eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea



MikroRNAen potentziala B Zelula Handiko Linfoma Hedatsuaren diagnostiko, sailkapen eta pronostikoan

Doktorego tesia

Ane Larrabeiti Etxebarria

Leioa 2021

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Facultad de Medicina y Enfermería / Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea

Departamento de Genética, Antropología Física y Fisiología Animal / Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia Saila

Tesis doctoral / Doktorego tesia

MikroRNAen potentziala B Zelula Handiko Linfoma Hedatsuaren diagnostiko, sailkapen eta pronostikoan.

Ane Larrabeiti Etxebarria

Leioa, 2021

Nire bi izartxuei, Eneko eta Malen

Ama, zuretzat.

Esker onak

Quiero aprovechar estas líneas para agradecer el apoyo de todas las personas que han hecho posible esta tesis y que han estado a mi lado durante esta etapa.

En primer lugar, a África, gracias por brindarme la oportunidad de realizar la tesis y haber confiado en mí para este proyecto.

Eli, muchas gracias por tu gran apoyo y sobre todo por toda la paciencia que has tenido conmigo. Ha sido un camino duro en el que a pesar de todo el trabajo que tenías siempre has estado dispuesta a ayudarme y tirar para que esta tesis saliera adelante. Angela, desde la distancia has conseguido trasmitirme tu gran positividad y motivarme para no tirar la toalla.

¡Muchísimas gracias a las dos! Indudablemente sois unas maravillosas investigadoras y bellísimas personas que trasmitís pasión con vuestro trabajo. Siempre estaré agradecida por vuestro apoyo.

Agradecer a Maitane, Borja, Nerea e Idoia, por formar parte del equipo, guiarme y ayudarme a dar forma a este trabajo.

Santi, en ti encontré la motivación para embarcarme en este proyecto y siempre has estado ahí, me has entendido y ayudado.

Eskerrik asko nire familiari, bereziki, Ama, Eneko eta Malentxu. Amatxu gracias por estar siempre a mi lado, creer en mi incondicionalmente y ayudarme a superar todos los baches que me he encontrado. Eneko eskerrik asko zure pazientziagaitik, zu barik hau ez litzateke posible izango. Durante estos años me has animado y en los momentos más difíciles me has hecho sacar fuerzas de donde creía que no las tenía. Zuri Malen, gure izarra. Llegaste al final de este proyecto iluminando nuestras vidas. Nunca olvidaré esas horas de trabajo contigo en el pecho como un koalita. Jesus, zuri ere mila esker, urte hauetan zehar hain ondo zaintzeagaitik.

Eskerrik asko denoi, bihotz-bihotzez!

Argitalpenak

Tesi honetako lana ondorengo argitalpenetan jaso da:

Systematic Review of the Potential of MicroRNAs in Diffuse Large B Cell Lymphoma. Larrabeiti-Etxebarria A, Lopez-Santillan M, Santos-Zorrozua B, Lopez-Lopez E, Garcia-Orad A. Cancers (Basel). 2019 Jan 26;11(2). pii: E144.

Potential of microRNAs in the diagnosis, classification and prognosis of Diffuse Large B Cell Lymphoma. In preparation.

Gainera, tesi hau garatu bitartean, artikulu hauek ere argitaratu ditut:

Circulating miRNAs as biomarkers in diffuse large B-cell lymphoma: a systematic review. Lopez-Santillan M, Larrabeiti-Etxebarria A, Arzuaga-Mendez J, Lopez-Lopez E, Garcia-Orad A. Oncotarget. 2018 Apr 27;9(32):22850-22861.

Laburdura	**Azalpena**
aaIPI	Adinaren araberako IPIa
AAL	leuzemia akutu linfoblastikoa
ACVR2B	2B motako aktibina-hartzailea
adib	adibidez
allo-HSCT	Zelula ama hematopoietikoen trasplante alogenikoa
AML	ziren leuzemia mieloide akutua
auto-HSCT	zelula ama hematopoietikoen trasplante autologoa
B-CLL	B zelula linfatikoko leuzemia kronikoa
BBZG	Beste bat zehaztu gabe; not otherwise specified
BEAM	BCNU, etoposidoa, zitarabina eta melfalan
CLL	leuzemia linfatiko kronikoa
CLL	leuzemia linfatiko kronikoa
Cox PH	arrisku proportzionalen Cox-en metodoa
CR	erantzun osoa
CR	erantzun osoa
CRG	Erregulazio Genomikoaren Zentroa
CTCL	azaleko T-zelula linfoman
CTCL	azaleko T-zelula linfoman
CTL	T linfozito zitotoxikoA
DE	adierazpen diferentziala
DEG	Adierazpen diferentziala duten geneak
EBB	Epstein Barr Birusa
ECOG	Eastern Cooperative Oncology Group
EEM	erabateko erredukzio metabolikoa
EHL	Ez-Hodgkin linfoma
EET	erabateko erantzun tasak
EMT	trantsizio epitelial mesenkimalean
ENCODE	ADN Elementuen Entziklopedia
EO	Erremisio osoa
EP	Erremisio partziala
ET	erradiazio terapia
ez-CR	erantzun osorik ez
ez-ZGB edo ABZ	aktibatutako B zelula mota
FFPE	formalinan finkatutako eta parafinan sartuta
GAP	Gene adierazpen profila
GELTAMO	Espainiako Linfoma Taldea
GEO	*Gene Expression Omnibus*
GGP	giza genoma proiektua
GIB	giza immunodefizientziaren birusa
GO	Gene Ontologia
HCC	gibeleko minbizia
HCC	minbizi hepatozelularra
HIF1α	hipoxia induzitzen duen faktore 1α
HM	hezur muina
IHK	Immunohistokimika

IPI	Indize Pronostiko Internazionalaren
JZ	jatorrizko zelula
LDH	laktato deshidrogenasa
logFC	fold change
MALT	eremu marginaleko linfoma
MOE	Munduko Osasun Erakundea
MTI	mikroRNA-itu interakzio
MTX	metotrexato
NCCN	The National Comprehensive Cancer Network
ncRNA	RNA ez-kodifikatzaileak
NGS	hurrengo belaunaldiko sekuentziazioa
NK	zelula hiltzaile natural
not CR	ez erantzun osoa
NSZ	Nerbio sistema zentrala
ONA	Osagai nagusien analisia
OS	biziraupen globala
p adj	Positibo faltsuen aurkitze-tasa
PANTHER	Protein ANalysis THrough Evolutionary Relationships
PCA	Osagai nagusizko analisia-Principal component analysis
PEP-C	prednisona, etoposidoa, prokarbazina-ziklofosfamida
PFS	aurrerapenik gabeko biziraupena
PPI	proteina-proteina interakzioen sarea
R	erituximab
R-ACVBP	erituximab, doxorubizina, ziklofosfamida, bidesina, bleomizina eta prednisona
R-CHOP	Erituximab, ziklofosfamida, doxorubizina, binkristina eta prednisona
R-DHAP	erituximab-dexametasona, zitosina arabinosidoa eta zisplatinoa
R-GDP	erituximab, genzitabina, zisplatinoa, eta dexametasona
R-GemOx	erituximab-genzitabina, oxaliplatinoa
R-ICE	erituximab, ifosfamida, karboplatinoa eta etoposidoa
R-ICE	erituximab-ifosfamida, karboplatinoa eta etoposidoa
R-miniCHOP	dosia murriztutako R-CHOP immunokimioterapia
RISC	RNA-isiltasuna eragiten duen konplexua
RT-qPCR	alderantzizko transkripzioaren PCR kuantitatiboa
STRING	Search Tool for the Retrieval of Interacting Genes
TGF-β	β hazkuntza-faktorea
XPO5	Exportine5
ZG	Zentro germinala
ZGB	zentro germinaleko B zelula mota
ZHBLH	B-zelula handiko linfoma hedatsua

Laburpena

B-zelula handiko linfoma hedatsua (BZHLH) helduetan gertatzen den neoplasia linfatiko arruntena da, ez-Hodgkin linfoma (EHL) kasuen % 30-40a izanik. BZHLH-k morfologia, genetika eta portaera biologikoari buruzko oinarri aldagarriak ditu, pazienteen artean heterogeneotasuna sortzen dutenak. Pazienteen sailkapenerako eta kudeaketarako tresna berriak garatu diren arren, horietako % 40k gaixotasun errefraktarioa dute oraindik edo berriro gaixotu egiten dira. Gainera, gaixotasun honen patogenesiari buruzko faktore anitz ez daude argituta, beraz, biomarkatzaile berrien identifikazioa beharrezkoa da. Ildo hori jarraituz, berriki egindako ikerketek adierazten dute mikroRNAak minbiziaren biomarkatzaile baliagarriak direla, baita garrantzitsuak ere gaixotasunaren garapenean. Hala ere, BZHLHri dagokionez, orain arte, ez dago funtsezko daturik. Horregaitik, lan honetako helburu nagusiak hauek izan ziren: BZHLH diagnostikorako, sailkapenerako, pronostikorako eta tratamendurako erabilgarriak diren mikroRNA multzo bat zehaztea, baita gaixotasunaren sorrerako mikroRNA ekintza-mekanismoa ezagutzea ere. Helburu horiek lortzeko, literaturan jadanik deskribatutako mikroRNAk gure BZHLHko populazioan biomarkatzaile fidagarriak ote ziren aztertu genuen. Lau mikroRNAz osatutako sinadura bat identifikatu genuen, BZHLH diagnostikoa egitean erregulazioan aldaketak aurkezten dituztenak. Hala ere, beste ikerketa lanetan analizatu dituzten mikroRNA kopuru murriztua dela eta eta haien emaitza kontraesangarriak ez dute ondorio sendorik ekartzen eta beraz, ezin daiteke gaixotasunaren sailkapena, tratamenduaren erantzuna eta pronostiko sinadura identifikatu. Ondoren, gure BZHLHren kohortean dauden mikroRNAa guztiak analizatu genituen RNA txikien sekuentziazioa erabiliz, eta, hurbilketa honekin, diagnostikoa, sailkapena, tratamenduaren erantzuna eta pronostikorako sinadura berriak zehaztu ahal izan genituen. Azkenik, mikroRNA-mRNA interakzioa-sarearen analisia erabiliz, erregulazioa aldatuta duten mikroRNAen ekintza mekanismoa aztertu genuen, zeina BZHLHren patogenesiarekin zerikusia izan lezake. Laburbilduz, gure ikerketak ohartarazten du mikroRNAk paper garrantzitsua joka dezaketela biomarkatzaile gisa BZHLHren diagnostikoan, sailkapenean, tratamenduan eta pronostikoan, baita gaixotasunaren patogenesian ere. Gainera, Next Generation Sequencing balio handiko teknika da eta gutxi ikertutako mikroRNAk aztertzea ahalbidetzen du.

Index

SARRERA

B ZELULA HANDIKO LINFOMA HEDATSUA

Sarrera

B-zelula handiko linfoma hedatsua (BZHLH) helduetan gertatzen den neoplasia linfatiko arruntena da, ez-Hodgkin linfoma (EHL) kasuen % 30-40a izanik (1). ZHBLH erabat heterogeneoa da morfologia, genetika eta portaera biologikoari dagokienez, eta horrek tratamenduarekiko erantzun eta biziraupen desberdintasun handiak dakartza pazienteen artean (2). Nahiz eta desberdintasun hauek, ZHBLH paziente gehienak kimioterapia erregimen estandarrarekin tratatzen dira, eta horrek erremisio osoa (EO) ahalbidetzen du % 75-80en kasuetan. Hala eta guztiz ere, pazienteen % 40ek ez dute tratamenduari erantzuten edo birgaixotzea aurkezten dute (3). Gainera, paziente hauek bigarren mailako kimioterapia eskemei erantzun eskasa aurkezten dute eta horrek hilkortasun kausa nagusia izaten jarraitzen du gaur egun (4). Ondorioz, biomarkatzaile fidagarriak eta tratamendurako itu berriak ikertzea da BZHLHren erronketako bat paziente hauen biziraupena hobetu ahal izateko.

Definizioa

BZHLH, ez-Hodgkin linfoma agresiboan B zelula linfoide handiek hazkuntza patroi hedatua aurkezten dute. Bere ezaugarri nagusien artean, B zelulen nukleoek makrofagoen nukleoaren tamaina (edo handiagoa) edo linfozitoen nukleoaren bikoitza aurkezten dute (5).

BZHLHren diagnostikoa nahiko hetereogeneoa da, morfologia, genetika eta portaera biologikoari dagokionez. Gaur egun, Munduko Osasun Erakundearen (MOE) laugarren edizioaren arabera diagnostiko maila berezia osatzen du (1. taula) (5).

1. taula: B-zelula handiko linfoma hedatsuaren sailkapena (5)

B-zelula handiko linfoma hedatsua, BBZG
B- zelula handiko beste linfoma azpimotak
T-zelula/histiozitoetan aberats diren B-zelula linfoma
NSZko lehen mailako B-zelula linfoma
Larruazaleko lehen mailako B-zelula handiko linfoma hedatsua
B-zelula handiko linfoma hedatsua EBB-positiboa, BBZG
Inflamazio kronikoarekin erlazionatutako B-zelula handiko linfoma hedatsua
Granulomatosi linfomatoidea
B-zelula handiko linfoma IRF4 berrantolaketarekin
Lehen mailako B-zelula handiko linfoma mediastinikoa (timikoa)
B-zelula handiko linfoma intrabaskularra
B-zelula handiko linfoma ALK-positiboa
Lehen mailako isurtze linfoma
Gradu altuko B-zelula linfoma
Gradu altuko B-zelula linfoma MYC eta BCL2 edota BCL6 berrantolaketarekin
Gradu altuko B-zelula linfoma, BBZG
B-zelula linfoma, sailkaezina
B-zelula linfoma, sailkaezina, B-cell lymphoma, unclassiflable, B-zelula handiko linfoma eta Hodgkin lymphoma klasikoaren arteko ezaugarriekin

Laburdurak: BBZG: Beste bat zehaztu gabe; not otherwise specified; NSZ: Nerbio Sistema Zentrala; EBB: Epstein Barr Birusa

Hala ere, zenbait kasutan, heterogenizitate biologikoa dela eta ez dago sailkapenerako irizpide onartu eta argirik (6). BZHLH kasu hauek BBZG bezala sailkatzen dira. B linfoma ohikoena BZHLH denez, neoplasia linfoide hau ikertzea beharrezkoa da linfoma mota hauen biologia eta patogenesia hobeto ulertzeko eta bide batez, estrategia terapeutiko berriak garatzeko. Hori dela eta, gure lana bide honetan zentratzen da.

Epidemiologia

BZHLH helduaroko gaixotasuna da, gehien bat hirurogeita-hamargarren hamarkadan agertzen dena, nahiz eta, haur eta gazteetan garatu daitekeen ere. Gainera, gizonezkoetan emakumeetan baino arruntagoa da. BZHLH, BBZG EHL motarik ohikoena da; guztizkoaren %25-30 osatuz zehazki mendebaldeko herrialdetan eta ugariagoa garapen bidean dauden herrialdeetan. Europan, BZHLH intzidentzia gordina 3,92/100.000/urtekoa da, eta hori adinean gora egin ahala modu esangarrian areagotzen da (7).

Etiologia

BZHLH B-zelula helduetan sortzen da desberdintze-fase ezberdinetan. Zenbait alterazio genetikoek B-zelulen aldaketak sustatzen dituzte gene adierazpenean eraginez eta eraldaketa neoplasikoa bultzatuz (5) (1. irudia).



1. irudia: B linfozito normalen garapen diagrama eta B-zelula handiko linfoma hedatsuaren patogenesia (Basicmedical Key-tik moldatua (https://basicmedicalkey.com/cutaneous-b-cell-immunobiology/))

B linfozitoen heltze-prozesua hezur-muinean bertan gertatzen da non B zelula aitzindaria eraldatu eta B zelula helduan bihurtzen den. B linfozito helduak hezur muinetik atera eta linfa organo sekundarioetara barreiatzen dira (ehun linfoide sekundarioen gune interfolikularrean) antigenoa ezagutzeko zehazki (8).

Folikulu sekundarioen zentro germinalean (ZG) zentroblastoak zentrozitoetan bihurtzen dira ZG alde argira igarotzen diren heinean. ZGn, B zelulak errekonbinazio somatikoa eta hipermutazio somatikoa jasaten dute. BZHLH eta gainontzeko ez-Hodgkin linfoma gehienetan, immunoglobulinen gene berrantolatuek hipermutazio somatikoaren ezaugarri diren mutazioak jasaten dituzte. Antigorputzen dibertsitate mekanismo hau, organo linfoide periferikoen zentro germinalean gertatzen da normalean (9). Hori dela eta, BZHLZ ZGko B zeluletatik edo ondorengo desberdintze fasetatik garatu daiteke (10).

BZHLH *de novo* zein maila baxuko B zeluletako linfoma mota askoren eraldaketaren bidez agertu daiteke. Besteak beste leuzemia linfatiko kronikoa (adib. Richter´s eraldaketa), linfoma linfoplasmazitikoa, linfoma folikularra, eremu marginaleko linfoma (MALT) eta eremu marginaleko linfoma esplenikoa (11,12).

Diagnosia

BZHLHaren diagnostikoa analisi morfologiko, immunohistokimiko, zitogenetiko eta molekularretan oinarritzen da. Diagnostikoa linfomak erasotutako organo edota gongoil linfatikoaren biopsia bidezko azterketa anatomopatologikoaren bitartez burutzen da. Honek gongoil linfatikoen ezaugarriak eta ikerketa fenotipiko eta molekularrak burutzeko materiala ahalbidetzen du (12).

Biopsiak fixatu gabe laborategira bidaltzea da aukerarik aproposena, fluxu zitometria ikerketak burutu ahal izateko eta kalitate handiko DNA eta RNA erauzi ahal izateko. Biopsia kirurgikoa arriskutsua den pazienteetan orratz lodi bitartezko biopsia burutu daiteke (12,13).

Ezaugarri kliniko eta patologikoak

Kasu gehienak gongoil linfatikoetan gertatzen dira eta kasuen %40an gongoil kanpoko guneetan esaso egiten du tumore primario moduan. Gongoil kanpoko kasuak traktu gastrointestinalean gertatzen dira maizenik, baina edozein organotan ager daiteke, besteak beste, larruazala, NSZ, hezur-muina (HM), listu guruina, birika, giltzurruna eta gibela. Hezur muineko inplikazioa kasu guztien %11tik %27ra gertatzen da, eta odol periferikoan kasu gutxitan agertzen da (14,15).

BZHLH duten pazienteek azkar hedatzen den masa sintomatikoa aurkezten dute gongoilean bertan edo gongoiletik at (leku bakar edo ugaritan gehienetan lepo edo abdomenean) (16).

Gutxi gorabehera, BZHLH duten %60ak gaixotasun berantiarra aurkezten dute (III edo IV estadioa normalean) eta %40ak, aldiz, gaixotasun lokalizatua aukezten dute (17).

Paziente gehienak asintomatikoak dira baina sintomak agertzen direnean inplikatutako organoaren oso menpekoak dira. "B" sintoma sistemikoak (adib. sukarra, pisua galtzea, blai egiten duen gaueko izerdia) gaixoen %30 inguruan hautematen dira, eta laktato-dehidrogenasak (LDH) gora egiten du gutxienez kasuen erdietan (18).

Morfologikoki, gongoil linfatikoek zelula linfatiko handien hedapen zabala erakusten dute eta kasu gehienetan arkitektura zelularra erabat galdu egiten dute. Tamaina ertaineko zelulak gailentzen diren kasuetan ikerketa bereziak burutzea beharrezkoa da hezur-muin kanpoko leuzemiak, Burkitt linfoma edota mantu zeluletako linfoma barianteak baztertu ahal izateko (5).

Sailkapena

BZHLH, BBZG morfologiaren, ezaugarri molekularren eta alterazio genetikoen arabera sailkatzen da (2. taula)(5).

2. Taula: BZHLH, BBZG azpimotak MOEren 2017ko sailkapenaren arabera (5).

B-zelula handiko linfoma hedatsua, BBZG
Aldaera morfologikoak
Zentroblastikoa
Immunoblastikoa
Anaplastikoa
Beste aldaera arraroak
Azpimota molekularrak
Zentro germinaleko B-zelula
Aktibatutako B-zelula

I-Aldaera morfologikoak

Ezaugarri morfologikoak oinarritzat hartuz, hiru aldaera morfologiko arruntak deskribatu dira (zentroblastikoa, immunoblastikoa eta anaplasikoa) eta zenbait aldaera ezhoikoak. Aldaera zentroblastikoa motarik arruntena da eta zentroblasto agerpenak karakterizatzen du. Zentroblastoek tamaina ertaineko edo handiko zelula linfatikoak dira kromatina fina aurkezten dutenak nukleoan. Hala ere, kasu gehienetan, tumoreak polimorfikoak dira, zentroblasto eta immunoblasto (<% 90) nahastea aurkezten dutelarik. Immunoblastoak aldaera, %90 baino immunoblasto gehiagoz osatuta dago. Immunoblastoek nukleo handi, obalatu edo biribila dute, erdigunean kokatutako nukleolo bar eta zitoplasma basofiliko handi samarra. Beste alde batetik, bariante anaplasikoa nukleo pleomorfikoa duten zelula handiengatik bereizten da (5).

Morfologian oinarritzen diren sailkapenak porrot handia izan dute emaitzak errepikaezinak baitira patologoen artean eta horrek elkarren arteko desadostasun diagnostikoak dakartza (15).

II-Azpimota molekularrak

Zelula handien B motako linfomaren sailkapen molekularra, **"Jatorrizko zelula"** identifikatuz oinarritzen da. "Jatorrizko zelula" kontzeptua, linfomak ezaugarri kliniko, fenotipiko edo genetikoen arabera antza gehien duen zelula ez linfoidearekin erlazionatzean datza. "Jatorrizko zelula" hauetatik azpimotak identifikatzen dira.

II.a. Gene adierazpen profila (GAP)

GAP, "*gold standar*"tzat hartzen da azpimota molekularrak esleitzeko (10). Horrela, BZHLH bi azpimota molekular nagusitan bana daiteke: zentro germinaleko B zelula motakoak (ZGB) eta aktibatutako B zelula motakoak (ABZ edo ez-ZGB). ZGB eta ez-ZGB azpimotak ezberdinak dira kromosoma aldaketetan, seinaleztapen bideen aktibazioan eta biziraupenean (19). Gutxi gorabehera, kasuen % 10-15 ezin sailkatu gabe geratzen dira (11).

BZHLH bi azpimotak ehunka gene ezberdinen adierazpen desberdinagaitik bereizten dira ehun izoztuan RNA mikroarraiekin aztertuz (10). Gene horiek azpimota bakoitza B zelularen desberdintze eta aktibazio fasearekin erlazionatzen dute (10).

Hala ere, GAP ez dago eskuragarri ohiko proba kliniko gisa, eta linfoma ehun izoztuak ez daude beti eskuragarri ikertu ahal izateko. Horrela, jatorriko zelularen determinazioa immunohistokimika (IHK) algoritmoak onartzen dira.

II.b. Immunohistokimika

Biomarkatzaile panel txikiak erabiltzen dituzten zenbait algoritmo immunofenotipikoak garatu izan dira, ikerkuntza molekularrei esker dagoen informazio esangarriena ohiko plataforma klinikoa bihurtu ahal izateko, besteak beste, Colomo (20), Hans (21), Choi (22), Muris (23) eta Tally (24) algoritmoak (2. irudia). Algoritmo horietako bi immunoterapia aroa baino lehenago diseinatu zituzten (Colomo eta Hans, 2.A irudia eta 2.B irudia) eta beste hirurak erituximabarekin tratatutako pazienteen kohorteetan garatuak izan ziren (Muris, Choi eta Tally, 2.C, 2.D eta 2.E irudiak). Erabilitako markatzaileak, alde batetik, ZGB markatzaileak kontuan hartzen dituzte, esate baterako CD10, BCL6, GCET1, eta LMO2 eta beste alde batetik, zentro postgerminalarekin (ez-ZGB) erlazionatutakoak, hala nola MUM1/IRF4 eta FOXP1.

IHK bitartezko sailkapenaren lehen saiakeretako bat Colomo algoritmoa izan zen, zeinek ZGB eta ez-ZGB fenotipoak ezarri zituen hiru markatzaileen arabera (MUM1/IRF4, CD10 eta BCL6) 2.A irudian zehazten den moduan, baina algoritmo honek ez ditu ondorio klinikorik aurreikusten (20).

2004. urtean Hans *et al.,* ZGB eta ez-ZGB azpimotak bereizteko hiru markatzaileen adierazpenean oinarritutako algoritmo ohikena porposatu zuten: CD10, BCL6, eta IRF4/MUM1 (2.B irudia), GAParekin alderatuz %85etik %93rako zehaztasuna duena (12,21).

Proposaturiko metodo gehigarrien artean Muris algoritmoa dago, BCL2, CD10 eta MUM1 kontuan hartzen dituenak ZGB edo ez-ZGB fenotipoan sailkatzeko. Ondoren, BCL2 immunotindaketa bi talde pronostiko ezberdinetan (1 eta 2) bereizteko erabili zen (23).

Bestalde, beste bi adierazle gehigarri gehitu zizkioten Hans algoritmoari Choi *et al*.; FOXP1 eta GCET1. FOXP1 adierazpena germinal zentroko fenotipoa galdu duten BZHLH kasuen % 20tan deskribatu da (22) eta GCET1 ZGB motarekin oso erlazionatuta dagoela (25).

Azkenik, Tally algoritmoa, Meyer *et al.,* proposatu zuten 2011an eta LMO2 erabiltzen du germinal zentroko markatzaile bezala, Choi algoritmoaren BCL6aren ordez (24). Algoritmo

honek, ZGB markatzaile (GCET1 eta CD10) eta ez-ZGB markatzaile (FOXP1 eta MUM1/IRF4) kopuru berdina jasotzen du, ZGB edo ez-ZGB fenotipoa zehazteko (26).



2. irudia: Azpimota molekularrak sailkatzeko immunohistokimika ereduetan oinarritutako algoritmoak (A) Colomo´s algoritmoa, (B) Hans' algoritmoa, (C) Muri´s algoritmoa, (D) Choi´s algoritmoa, eta (E) Tally´s algoritmoa.

Hala ere, ondorio klinikoak aurreikusterakoan desadostasunak daude sailkapen ezberdinen artean, beraz, oraindik ez dago BZHLH sailkatzeko metodo egokirik eta gaur egun, GAP bitartezko sailkapena aproposena izaten jarraitzen du.

Jakina da IHK algoritmoek ez dituztela identifikatzen arestian aipatutako GAP bitartez sailkatu gabeko tumoreen %10-15a. Izan ere, emaitzak errepikatzeko arazoak ditu eta ez dago uniformeki aitortuta pronostikoa iragartzeko erabilgarritasuna duenik (1).

II.c. Jatorrizko zelula zehazteko beste teknika batzuk

Duela gutxi, BZHLH JZ GAP metodoak erabiliz identifikatzea lortu zuten formalinan finkatutako eta parafinan sartutako ehunetan sinpleagoa den gene adierazpen sinadura digital baten bitartez (Lymph2Cx) nanostring plataforma bat erabiliz (27).

Formalinan finkatutako eta parafinan dauden ehunetatik ateratako RNA kuantifikazioan oinarritutako metodo berriagoek GAP konbentzionalarekiko emaitza bateratuak ematen dituzte, laborategien artean errepikagarriak dira eta zelularen jatorrizko sailkapenaren eragin pronostikoa antzematen dute (28). Hala ere, metodo hauek ez daude eskuragarri laborategi gehienentzat, baina egungo algoritmoen alternatiba izan daitezke (1).

Arriskuen ebaluazioa eta tratamendu aukerak

Espainian BZHLH tratatzeko erabiltzen den protokoloak Espainiako Linfoma Taldearen (GELTAMO) ildoak jarraitzen ditu. Protokolo honek, hainbat bertsio ditu eta beraien artean alde txikiak aurkitzen dira. Gidaren azken gomendioak aurrerago deskribatzen dira (12).

Patologia honen ezaugarri nagusietako bat jokaera kliniko eta tratamendu kimioterapikoaren erantzun hetereogeneoa denez, gaur egungo tratamendu estrategiak arrisku faktoreen arabera estratifikatzean oinarritzen dira. Arrisku estratifikazio hauek, besteak beste, gaixotasunaren hedapena (estadio mugatua edo gaixotasun aurreratua), pazientearen adina eta Indize Pronostiko Internazionalaren (IPI) puntuazioa dira.

Arriskuen ebaluazioa

Ez-Hodgkin linfoma erasokorra duten pazienteen estadiajea Ann Arbor sailkapenarekin zehazten da (29). Sailkapen hau Hodgkin gaixotasunerako garatu zen hasiera batean eta ez da hain zehatza ez-Hodgkin linfoma duten pazienteen azpitalde pronostikoak identifikatzeko (30).

Ann Arbor sailkapenerako beharrezkoa da, besteak beste, Eastern Cooperative Oncology Group (ECOG) egoera funtzionala, B sintomen presentzia, azterketa fisiko osoa linfadenopatia edo biszeromegalia dagoen enfasi zehatza emanez, eta honako odol azterketa hauek: odoleko zelulen kontaketa, analisi biokimikoa, laktako deshidrogenasa (LDH), beta2 mikroglobulina, uratoa, gibel eta giltzurrun funtzioa, proteinograma, B hepatitisaren serologia (HBs antigenoa, anti-HBc antigorputzak), C hepatitis eta giza immunodefizientziaren birusa (GIB) (12).

IPIa BZHLH pazienteen pronostikoa zehazteko eskala erabiliena da eta parametro klinikoetan oinarritzen da. Adierazle horrek gaixoak estratifikatzen ditu bost faktoreren arabera, irizpide bakoitza betetzekotan puntu bana emanez: adina, estadioa, gongoil kanpoko infiltrazio agerpena, egoera orokorra eta LDH (3. taula). IPIk pazienteak 4 taldetan banatzen ditu 5 urteko biziraupen globala (OS) %26 eta %73 artean aurkituz. IPI puntuazio baxu batek (0-2) biziraupen global hobea duten pazienteak identifikatzen ditu IPI puntuazio altua duten pazienteekin alderatuz (3-5). Adinaren araberako IPIa (aaIPI) 60 urte baino gutxiagoko pazienteekin erabiltzen da eta puntuazioa kalkulatzeko, IPI arruntan erabiltzen diren faktoreak erabiltzen dira, adina eta gongoil kanpo erasandako eremuak izan ezik (31).

3. taula: Indize Pronostiko Internazionala (IPI) eta adinaren araberako IPI (aa-IPI) (6,31).

Arrisku faktorea	Puntuak	Arrisku taldea	5 urteko BG (%)
IPI			
Adina			
≤ 60 urte	0		
> 60 urte	1		
Ann Arbor estadioa		• Baxua (0 edo 1)	73
I edo II	0		
III edo IV	1	• Tarteko baxua (2)	51
ECOG performace status			
0 edo 1	0	• Tarteko altua (3)	43
≥ 2	1		
Serum LDH		• Altua (4 edo 5)	26
≤ 1 x normala	0		
> 1 x normala	1		
Afektazio extranodala			
≤ 1	0		
> 1	1		
aaIPI (≤ 60 urte)			
Ann Arbor estadioa			
I edo II	0	• Baxua (0)	83
III edo IV	1		
ECOG performace status		• Tarteko baxua (1)	69
0 edo 1	0		
≥ 2	1	• Tarteko altua (2)	46
Serum LDH			
≤ 1 x normala	0	• Altua (3)	32
> 1 x normala	1		

Arrisku handiko gaixoak hobeto sailkatzeko, batez ere pronostiko txarrena duten pazienteentzat, beste indize batzuk garatu dira, hala nola R-IPI, NCCN-IPI eta GELTAMO-IPI.

1990eko hamarkadaren amaieraz geroztik, R-CHOP eta "R-CHOP *like*" erregimen arruntetara erituximab (R) gehitu zen eta horrek arrisku talde guztien biziraupen hobekuntza ekarri zuen (32). Hori dela eta, IPIa erituximabarekin tratatzen diren pazienteetan berriro ebaluatu egin zen eta pronostikoa zehazteko erabilgarritasuna mantentzen zuela frogatu zen. R-IPIak hiru pronostiko talde ezberdin identifikatzen ditu: pronostiko oso ona dutenak (4 urteko biziraupen globala (OS) %94), ona (4 urteko OS %79), eta pronostiko txarra dutenak (4 urteko OS %55) (33).

Duela gutxi, The National Comprehensive Cancer Network (NCCN)-IPI eta GELTAMO-IPI garatu izan dira BZHLH pazienteen arriskua hobeto aurresan ahal izateko. NCCN-IPIk, IPIak erabiltzen dituen 5 aldagai berdinak kontuan hartzen ditu, baina, horrez gain, adina kategoriatan banatzen du, laktako deshidrogenasa normalizatua erabiltzen du eta leku zehatzetako afektazio extranodala kontuan hartzen du. IPIarekin alderatuz, NCCN-IPIk arrisku handiko taldea hobeto bereiztea lortzen du 5 urteko %33ko OSrekin, hala ere, pazienteen %8 eta %14 bitartean baino ez da agertzen pronostiko txarreko gaixotasuna, eta inplikazio extranodalaren presentzia

identifikatzen du (34). GELTAMO-IPIak beta-2 mikroglobulinaren gorakada kontuan hartzen du eta arrisku altuko pazienteak hobeto sailkatzen ditu (5 urteko OS %39 vs. %49) (35).

Tratamendu aukerak

GELTAMO tratamendu-protokoloa duela gutxi argitaratutako jarraibideetatik jasotzen da(12):

I) Lehen lerroko tratamendua

Lehenengo lerroko tratamendua gaixotasunaren hedapena (estadio mugatua edo hedatua), pazientearen adina eta IPI puntuazioaren arabera estratifikatu daiteke.

Ia) Gaixotasun mugatua (Ann Arbor I-II)

Erituximab, ziklofosfamida, doxorubizina, binkristina eta prednisona (R-CHOP) kimioterapia konbinatua 21 egunero erabiltzen da BZHLHdun paziente guztientzat lehen lerroko tratamendu gisa. Gaixotasun mugatua eta masa tamaina txikia (<7 cm) duten pazienteak erituximab-CHOP (R-CHOP) 4 ziklorekin tratatzen dira eta arrisku faktoreak aurkezten dituzten pazienteak beste R-CHOP bi ziklo gehiagorekin tratatzen dira. R-CHOP 4 ziklo jaso ondoren erabateko erredukzio metabolikoa (EEM) lortzen ez duten pazienteetan beste R-CHOP bi ziklo eta erradiazio terapia (ET) gomendatzen da (36).

Masa handiko eta estadio II-ko gaixotasuna duten pazieentek, masa txikikoa eta estadio II-koa dutenek baino pronostiko laburragoa dute, eta R-CHOP×6 + RT gomendatzen da paziente talde honentzat. Zoritzarrez, erradiazio terapia gehitu arren, masa handiaren presentziak pronostiko txarreko faktorea izaten jarraitzen du eta biziraupen tasak masa txikia aurkezten duten gaixoenak baino okerragoak izaten jarraitzen dute (37).

Ib) Gaixotasun hedatua (Ann Arbor III-IV)

- 60–80 urte bitarteko gaixoak

Paziente hauen tratamendu estandarra R-CHOP 8 ziklokoa da 21 egunetik behin. Nahiz eta "R-CHOP *like*" erregimenei bortezomiba gehitu izana ezta erituximab obinutuzumabagatik (II motatako anti-CD20 antigorputza) ordezkatzeak ere, ez du biziraupena hobetu (38,39). Gongoil kanpoko lesioak edota tamaina handiko gaixotasuna tratatzeko erradioterapia erabiltzea eztabaidatsua da (40).

- Arrisku baxu edo ertaineko pazienteak (IPI puntuaketa, 0–2) eta <60 urte

Paziente hauen tratamendu estandarra ere R-CHOP 6-8 ziklo dira 21 egunetik behin (41,42). Masa handia aurkezten duten pazienteek erradioterapia jasotzen dure. BZHLH duten paziente gazte eta adinaren araberako (aa)-IPI=1 duten tratamendu erregimen intentsiboena jasotzen dute: R-ACVBP (erituximab, doxorubizina, ziklofosfamida, bidesina, bleomizina eta prednisona)/metotrexato (MTX)/R-ICE (erituximab, ifosfamida, karboplatinoa eta etoposidoa) eta honen ondoren, zelula ama hematopoietikoen trasplante autologoa egiten da (auto-HSCT), biziraupena handitzen duena baina toxikotasun gehiagorekin lotuta dagoena (43,44).

- Arrisku altuko pazienteak (IPI puntuaketa, 3–5) eta <60 urte

Paziente talde honentzako tratamendu estandarrik ez dagoen bitartean, normalean R-CHOP 6 eta 8 zikloekin tratatzen da 21 egunetik behin. DA-EPOCH-Ran oinarritutako erregimena aukera egokia izan daiteke arrisku altuko pazienteetan (IPI: 3–5; aaIPI: 2–3) (45) [dosi-murriztua(etoposidoa, prednisona, binkristina, ziklofosfamida, doxorubizina-erituximab)] (46). Zenbait ikerketek dosi altuko kimioterapia osteko zelula ama hematopoietikoen trasplante autologa ikertu izan dute (47), baina emaitza kontraesankorrak direla eta, ezin da gaixo guztientzat gomendatu.

- Komorbilitatedun pazienteak edo >80 urte

Ez dago tratamendu estandarrik 80 urtetik gorako gaixoentzat eta ebaluazio geriatrikoa burutzea gomendatzen da paziente "*fit*"-ak identifikatzeko. Erituximab eta doxorubizina daraman kimioterapiaren konbinazioak erremisio osoa eragiten du eta biziraupena hobetzen du. Hori dela eta, R-CHOP moduko tratamendu konbentzionalak erabiltzea gomendatzen da, edo dosia murriztutako immunokimioterapia (R-miniCHOP) (48). Patologia kardiobaskularrak dituzten gaixoetan adriamizina alde batera utz daiteke (R-COP), edo doxorubizina liposomatua edo mitoxantrona, etoposido edo gemzitabina bezalako farmakoengaitik ordezkatu daiteke (49–51).

II) Bigarren lerroko eta ondorengo terapiak

Pazienteen % 30-40k gaixotasun errefraktarioa du edo berriro gaixotu egiten dira lehenengo lerroko tratamendua jaso ondoren eta, ondorioz, erreskate terapia behar izango dute.

IIa) Dosi altuko kimioterapia HSCT hautagaietan

Salbamendu immunokimioterapia komorbilitaterik ez dituzten paziente gazteen artean aukerazko tratamendua da (<60-70 urte). Kimioterapiari sentikorrak diren pazienteetan, tratamenduarekiko erantzuna kimioterapia dosi altuekin eta auto-HSCT-arekin sendotu behar zaie (52). Hala ere, ez dago erregimenik besteen gainero nagusitasunik erakutsi duenik; R-DHAP (erituximab-dexametasona, zitosina arabinosidoa eta zisplatinoa), R-ICE (erituximab-ifosfamida, karboplatinoa eta etoposidoa) (53) edo R-GDP (erituximab, genzitabina, zisplatinoa, eta dexametasona) antzeko efikazia azaldu dute (54). Hala ere, azaldutako tratamenduen edozein erregimenekin lortutako emaitzak oso eskasak dira, PFS %20 ingurukoa delarik (55). Beraz, gaixo hauentzako aukerarik honena farmako berriak dituzten entsegu klinikoetan sartzea da (12).

Trasplantea egiteko garaian pronostiko faktore nagusia linfoma estatusa da, PET/CT bitartez zehazten dena, EEM lortzen duten pazienteek biziraupen hobeagoa dute erremisio partziala (EP) lortzen dutenak baino (PFS: %72–%87 vs. %18–%49) (56,57). BEAM (BCNU, etoposidoa, zitarabina eta melfalan) egokitze erregimena Europan gehien erabiltzen dena da (12). Zelula ama hematopoietikoen trasplante alogenikoa (allo-HSCT) eraginkorra izan daiteke tratamendu lerro anitzdun ondoren berrerortze edo gaixotasun aurrera egitea duten pazienteetan. Izan ere aukera egokia izan daiteke auto-HSCT izan duten pazienteentzat eta arrisku handiko faktoreak aurkezten dituztenentzat, hala nola lehengo mailako gaixotasun errefraktarioa (58,59).

IIb) auto-HSCT ez hautagiak

Gaixo talde hauetan ez dago tratamendu erregimen estandarrik ezarrita eta erantzun iraunkorrak ez dira ohikoak.

R-GemOx (errituximab-genzitabina, oxaliplatinoa) tratamenduarekin lortzen diren erabateko erantzun tasak (EET) %60 ingurukoak dira eta urte bateko OS %45koa delarik eta 12 hilabeteko PFSa %25 ingurukoa (60). Hori dela eta, posiblea den kasu guztietan pazienteak entsegu klinikoetan parte hartu behar dute (12).

III) Hirugarren lerroko eta geroko terapia lerroak

Hirugarren lerroko terapia aukerazkoa da erreskate tratamendura erantzun ez duten pazienteentzat. Zenbait kasutan, gaixo hauek aurretik erabili ez diren bigarren lerroko tratamenduak jaso ahal dituzte. Aurretik tratamendu 3 lerro jaso dituzten pazienteetan, pixantronak %40ko erabateko erantzun tasak erakutsi ditu monoterapian (61). Lenalidomida monoterapian edo errituximabarekin konbinatuta efikazia erakutsi du egoera honeran, %30eko erabateko erantzun tasa lortuz, iraupen laburreko erantzun erlatiboarekin (62,63). Bestalde, ez dago entsegu klinikoko daturik beste farmakoak monoterapian erabiltzeko (gemzitabina, oxaliplatinoa, etoposidoa, mitoxantrona, vinorelbina) egokienak zehazten duenik. Efikazia datuak eskuragarri daude bi tratamenduekin: zelecoxib, metotrexatoa eta ziklofosfamida, %30eko EET eragiten duena eta PEP-C (prednisona, etoposidoa, prokarbazina-ziklofosfamida) erregimena, 9 gaixoetatik 3retan erantzuna eragiten duelarik, toxizitate altuarekin (64). Paziente hauek entsegu klinikoetan parte hartzea gomendatzen da ahal den kasu guztietan (12).

Pronostikoaren estratifikaziorako proposamen berriak

Gaixoen % 30-40ak, errefraktarioak dira edo berriro gaixotu egiten dira eta hauek biziraupen txarra eta tratamendu aukera mugatuak dituztela kontuan hartuta, linfomaren biologia eta markatzaile biologiko berriak ikertzeak, BZHLH duten pazienteen pronostikoa hobetzeko ikerketak garatzea ahalbidetu du.

Laborategiko zenbait **parametro**, hala nola, albumina serikoa eta β2M IPI faktoreekin konbinatu dira (35,65). Parametro hauek beste parametro kliniko batzuekin konbinatu dira (66) edota laborategi parametroekin (67), eta baita IHKrekin (68) pronostikoa hobeto iragarri ahal izateko.

Bestalde, **gene adierazpenean** oinarritutako zenbait sinadura identifikatu dira biziraupena iragarri ahal izateko BZHLH gaixoetan. Linfoma/leuzemia profil molekularraren poiektuak pronostikoa iragartzeko 17 gene (69) eta 3 osagaiez osatutako sinadura proposatu zuten (70). Lossos *et al.,* 6 genetan oinarritutako eredua proposatu zuten (71). Alizadeh *et al*., eredu hau sinplifikatu zuten 2 gene kontuan hartzen dituen eredua garatuz arriskua aurreikusteko (72). Nahiz eta geneetan oinarritutako iragarleek diskriminazio gaitasun ona izan, bakarrik erabiltzen direnean IPIak BZHLH duten pazienteen emaitza klinikoaren iragarle fidagarria izaten jarraitzen du (73).

GAP bitartez zehaztutako jatorrizko zelula fenotipoa pronostiko faktore garrantzitsua da baita ere (74). ZGB eta ez-ZGb motako BZHLH OS eta EFS ezberdintasun esangarriekin lotuta daude. Nahiz eta paziente guztien batez besteko 5 urteko biziraupena %52koa izan, ZGB motako

pazienteen %76k bizirik jarraitzen dute bost urte ondoren, aktibatutako B zelula mota duten pazienteen %16arekin alderatuz. Horrela, bi linfoma mota hauen arteko alde molekularrak portaera klinikoan ezberdintzasunak eragiten ditu, ZGB eta ez-ZGB gaixotasun ezberdinak bezala kontuan hartu behar direla iradokiz (14).

Beste alde batetik, translokazioak kontuan hartu gabe, BZHLHan *MYC* eta *BCL2* adierazpenak biziraupen globala eta gaixotasunik gabeko biziraupen laburragoa iragartzen dute (75,76).

Berrikiago, hurrengo belaunaldiko sekuentziazioa (ingelesez, "*Next Generation Sequencing*" NGS) azterketek mutazio somatiko komunak identifikatu dituzte BZHLH azpitaldetan, baita ZGB eta ez-ZGB azpimotetan ezberdinak diren alterazioen profil zehatza. BZHLH bi azpimotetan ohikoak diren mutazio somatioen artean *TP53* inaktibatzen duten mutazioan, immunozaintzan erlazionatutako geneak (*B2M*, *CD58*), erregulatzaile epigenetioen alterazioak (*CREBBP/EP300*, *KMT2D/C* [*MLL2/3*], *MEF2B*), eta *BCL6*aren aktibazio onkogenikoak aurkitzen dira. ZGB azpimotak histona metil transferasan *EZH2* aldaketak aurkezten ditu maiz, *BCL2* translokazioak, eta zelularen mugikortasunaren erregulatzailean *GNA13* mutazioak. Aldiz, ez-ZGB BZHLH geneetan aurkezten dituzte mutazioak (*MYD88*, *CD79A*, *CARD11*, *TNFAIP3*) B-zelula errezeptorea/Toll-like errezeptorea aktibatuz eta NF-κB bidezidorra aktibatuz. Hala ere, mutazio hauen inplikazio klinikoak ez dira erabat ulertzen (1).

Eredu asko pronostikoa egiaztatzeko baliagarriak direla esan den arren, ez dago paziente errefraktarioak edo berriro gaixotuko direla iragartzen duen eredurik. Beraz, faktore hauen erabilera mugatua da praktika klinikoan eta momentu honetan markatzaile hauetan oinarritutako erabaki terapeutikoak entsegu klinikoetara mugatzen dira.

Hortaz, tratamenduarekiko erresistentzia modu goiztiarrean identifikatzea minbiziaren terapia arrakastatsu baterako oso garrantzitsua da eta hori dela eta, markatzaile terapeutiko berrien ikerkuntza funtzeskoa da.

GUNE EZ-KODETZAILEAK

Giza Genoma Proiektuak (GGP) 2001ean proteinak kodifikatzen dituzten geneen kopurua 20.000-25.000 ingurukoa dela frogatu zuen, genoma osoaren %1,5arekin bat datorrena gutxi gorabehera eta proportzioa %2ra heltzen da itzuli gabe dauden eskualdeak kontuan hartzen badira (77).



3. irudia: Gure genomaren transkripzioa

Hala ere, giza genomaren sekuentzia jaso zenean, erronka berriak proposatu ziren GGPak sortutako datuak interpretatzeko, eta ondoren ENCODE (ADN Elementuen Entziklopedia) izeneko proiektua abiarazi zen. Proiektu honen helburu nagusia, giza genoman kodifikatutako elementu funtzional guztiak biltzen zituen katalogo oso bat prestatzea izan zen eta lortutako ondorio nagusietako bat gure genomaren %80a proteinak kodifikatzen ez dituzten elementu gisa transkribatuta dagoela izan zen. Hasiera batean "zabor DNA" kontsideratua izan zen arren, proteinak kodifikatzen ez duten alde handi bat funtzionala dela zehaztu zen. Elementu hauen RNA ez-kodifikatzaileak dira (ncRNA) (78).

NcRNAk bere luzeragatik sailkatzen dira. RNA ez-kodifikatzaile txikien artean, mikroRNAk dira ikertuenak eta minbiziarekin duten harremana baieztatuta dago (79) (3.irudia).

MikroRNAk

MikroRNAk 18-22 nukleotidoko luzerako harizpi bakarreko RNA familia handia osatzen dute eta gene adierazpenaren erregulatzaile giltzarri gisa agertu dira transkripzio osteko mailan, geneen isiltzea eragiten dutelarik (80). MikroRNAk genomaren kokapen ezberdinetatik transkribatzen dira RNA polimerasa II-aren bidez pri-mikroRNA izeneko transkribatu primario luze batzuetara (dsDNA, 300-5000 bp). Pri-mikroRNA hauek, ezaugarri moduan, 30-40 nukleotidoko luzera duten harizpi bikoitzeko RNA (dsRNA) zentral bat dute, lakio terminal bat eta elkarri kontrajarritako harizpi bakarreko bi RNA (ssRNA) zati ditu. Pri-mikroRNA hauek nukleoan prozesatzen dira DROSHA RNasa eta dsRNA lotzeko domeinuak dituen DGCR8 konplexuaren bitartez. DsRNA sekuentziak bere egitura sekundarioa eta proteina prozesatzaileei atxikitzeko gaitasuna zehazten du (81).

Pri-mikroRNA prozesamendua eta gero, lortutako molekula txikiago hauek (70 nukleotiko ingurukoak) pre-mikroRNA bezala ezagutzen dira. Pre-mikroRNAk Exportine5 (XPO5) eta RAN GTPasa (82,83) proteinen bitartez nukleotik zitoplasmara garraiatzen dira. Zitoplasman, Dicer (84,85) eta TARBP2 entzimen bitartez pre-mikroRNAk prozesatzen dira, zeintzuek lakioa deusezten duten, mikroRNA duplex bezala ezagutzen den dsRNA molekula sortuz (86). Mikro-RNA duplex-a harizpi bakarreko mikroRNA heldua sortzeko banatzen da. MikroRNA duplex-etik aukeratutako arizpia RISC (RNA-isiltasuna eragiten duen konplexua) izenaz ezagutzen den proteina anitzen konplexura erantsi egiten da, EIF2C1 (AGO1), EIF2C2 (AGO2), SND1, GEMIN3, GEMIN4 eta CCR-NOT geneez osatzen dena (87). MicroRNA heldua RISC konplexuaren bitartez RNA mezularietara garraiatua izaten da, erregulazioaren azken itua (88). MikroRNA mRNA-ren 3´ UTR eremuetan dauden base osagarriei lotzen zaio (4. irudia).



4.irudia. MikroRNAren biogenesia eta ekintza mekanismoa.
Iturria: Ryan *et al*.,-etik egokitua 2010 (Ryan, Robles, eta Harris 2010)(89).

MikroRNAk ituen ezagutzarako balio duen 7 bp-tako sekuentzia bereizgarri bat dute, "seed" eremua bezala ezagutzen dena. MikroRNA-k "seed" sekuentzia honi osagarria den itu sekuentzia baten arteko lotura espezifikoari esker jarduten du. Erregulazio mekanismoa mikroRNA-mRNA osagarritasun graduaren araberakoa da. Esate baterako, osagarritasuna erabatekoa denean mRNA-ren degradazio zuzena eragiten da eta baseen parekatzea ez denean erabatekoa, proteinen itzulpenaren blokeo edo inhibizioa gertatzen da (90).

MikroRNA "seed" sekuentziarekin osagarriak direnez, mikroRNAak "seed" eremuaren osagarriak diren mRNA-en zenbait itu deuseztu ditzakete edo itzulpena inhibitu dezakate. Hala ere, posible da mikroRNA anitzek gene bakar bat erregulatzea.

Erregulazio mekanismo honen bitartez, mikroRNAek giza geneen %50 baino gehiago erregulatu ditzakete, minbiziarekin lotutako geneak ere aurkitzen direlatik (91). Hala ere, mikroRNA-en kopuru aldaketak mikroRNAk gidatutako gene erregulazioan eragina izan dezake. Alabaina, mikroRNA bidezko geneen erregulazioan mikroRNAen maila edo kantitateak eragin dezake. Ondorioz, mikroRNAen adierazpenak minbiziaren diagnostiko, sailkapen eta pronostikoaren iragarle potentziala erakutsi du.

MikroRNA adierazpena giza minbizietan

MikroRNA profila eta sekuentziazio sakonei esker mikroRNA adierazpena giza minbizian erregulazioa aldatuta dagoela baieztatu da. Erregulazio aldaketa hauek hainbat mekanismoren bidez gertatzen da, besteak beste, mikroRNA geneen anplifikazioa edo ezabatzea, mikroRNAen kontrol transkripzional anormala, deregulatutako aldaketa epigenetikoak eta mikroRNA biogenesi makinarian akatsak. Ondorioz, erregulazioa aldaketak dituzten mikroRNAk minbiziaren bereizgarri diren hainbat mekanismoetan eragina dutela frogatu da, besteak beste, seinale proliferatiboak eutsiz, hazkuntza ezabatzaileak saihestuz, zelulen heriotza eutsiz, inbasioa eta metastasia aktibatuz eta angiogenesia eraginez (92).

MikroRNA adierazpenaren sinadurak tumore zelulak ehun normaletatik bereiztea, minbizi mota ezberdinak zehaztasun handiz bereiztea eta gutxi desberdindutako tumoreak jatorrizko ehunagatik identifikatzea ahalbidetzen du (93,94). Azpimarragarria da mikroRNAek onkogene edo tumore ezabatzaile gisa jardun dezaketela baldintza jakin batzuetan. Gainera, mikroRNA sinadura ezberdinek minbizi mota gehienak pronostiko talde ezberdinetan sailkatzea ahalbidetu dezakete.

<u>MikroRNA tumore ezabatzaileak</u>

Minbizian mikroRNAen parte hartzea iradokitzen duen lehen ikerketa Croce doktorearen taldeak burutu zuen, kromosoma eremu batean (13q14) tumore ezabatzaile geneak aurkitzen saiatzen zirelarik, B zelula linfatikoko leuzemia kronikoa (B-CLL) duten pazienteetan maiz delezioa aurkezten duena. Proteina bat kodetzen duen tumore ezabatzailea den gene kanoniko bat aurkitu beharrean, tumore ezabatzaile bezala jarduten duten bi mikroRNA aurkitu zituzten, miR-15 eta miR-16-1. Emaitza honen arabera, mikroRNAk giza minbiziaren patogenesiarekin erlazionatuta daudelaren lehenengo froga lortu zen (95). Lehen azterketa honen ondoren, mikroRNA ugari aurkitu dira azpi-erregulatuta minbizian.

Minbizian azpi-erregulatuta dauden mikroRNAen artean, tumore funtzio ezabatzailea betetzen dutenen artean, miR-34 familiak (miR-34a, miR-34b eta miR-34c) funtsezko arreta jaso du. MikroRNA hauek beheranzko erregulazioa aukeztu dute birika, bular eta beste hainbat minbizietan (96,97). Familiako hiru kide hauek p53 tumore ezabatzailea erregulatzen dute transkripzionalki DNA kalte erantzunaren bitartean (98). Ikerketek iradokitzen dute p53 tumoreek erantzun immunea zuzenean modulatzen dutela PDL1 erregulatuz miR-34aren bitartez (99).

Bestalde, hainbat ikerketek mikroRNAren let-7 familiak galdu edo azpi erregulazioa dutela frogatu dute hainbat minbizietan, hala nola, bular, birika edo prostatako minbizietan (100–103). Let-7 adierazpena galtzearen inplikazio funtzionalak ez daude guztiz argituta baina tumore

progresio arintzea eragiten du RAS familiako proteinak inplikatuta dauden seinale sareen asaldurak direla eta (104).

Gainera, obarioko minbiziari dagokionez, mRNA-en itu potzentzialen adierazpenaren sare integratuaren analisiak miR-506 obario ehunetan azpi erregulazioa duela azaldu egin du. Gainera, miR-506 metastasia bultzatu egiten du (105). Bular eta obarioko minbizietan, miR-520 beheranzko erregulazioa aurkezten du eta tumore ezabatzaile gisa jarduten duela dirudi, *TGFBR2* azpi-adierazpena erregulatuz, zeinak metastasia eragin dezakeen TGF seinaleztapenaren proteina errezeptore bat kodifizatuz (106,107).

Minbizian azpi-erregulatuta dagoen beste mikroRNA familia miR-200 da, tumore metastasia eta angiogenesiarekin erlazionatuta dauden proteinen adierazpena modulatzen duena. Haien ituek eta funtzio biologikoek trantsizio epitelial mesenkimalean (EMT) parte hartzen duten faktoreak barne hartzen dituzte (108,109).

MikroRNA onkogenikoak

Onkogeneak diren mikroRNAk ere identifikatu egin dira, tumore ezabatzaileen kontrako funtzioa dutenak.

Esate baterako, ikerketa ugarik frogatu dute miR-21ak paper antiapoptotikoa duela eta gain-erregulatuta dagoela tumoreetan, ehun normalekin alderatuz (110–112). Hain zuzen ere, 17q23.2 eskualde kromosomikoaren anplifikazioa hauteman da, miR-21 barne hartzen duena, bular, birika, gibel, obario eta prostata minbizian (113).

Tumore-sustatzailea den beste mikroRNAen artean, miR-155 aurkitu dezakegu, linfoma eta beste hainbat tumore solido motatan onkomiR garrantzitsu gisa jarduten duena (113–117), eta miR-210, hipoxia induzitzen duen faktore 1α (HIF1α)-ren itu nagusienetarikoa bezala deskribatu dena, minbizi zelulen biziraupena sustatzen baitu (118).

MiR-17-92 klustera, miR-17, miR-18a, miR-19a, miR-20a, miR-19b eta miR-92a osatzen dutena, transkripzionalki gorantza erregulatuta dago hainbat gaitzetan (119). Asoziazio hau, *MYC* bultzatutako bere gene errezeptorearen, *MIR17HG,* gain-erregulazio transkripzionalagatik gertatzen dela aurkitu zen. MiR-17-92 mota askotariko rolak ditu: adibidez, BIM proteina pro-apoptotikoa azpi-erregulatzen du (*BCL2L11* bezala ere ezagutua) B linfozitoetan, B linfozitoen apoptosi gutxiera eraginez (120).

Bularreko minbizi metastasikoa, glioblastoma eta melanoma bezalako beste minbizi mota batzuk miR-10b-ren goranzko erregulazioa azaldu dute (121–123), eta gibeleko minbizian (minbizi hepatozelularra (HCC) ere deitzen dena) gorantzazko erregulazioa duen mikroRNA esangarriena miR-221 da, tumore ezabatzaile diren mRNA ituak dituena, hala nola, *p27KIP1* (*CDKN1B* bezala ere ezaguna), *PTEN* eta 3 metaloproteinasen ehun inhibitzaileak (124,125).

MikroRNAk pronostiko eta iragarle biomarkatzaile gisa

Tumore ezabatzaile edo onkogene gisa duten paperaz gain, zenbait ikerketa taldek mikroRNAen potentziala deskribatu dute pronostiko markatzaile bezala eta minbiziaren eboluzioa iragarri ahal izateko. Adibidez, miR-155 goranzko adierazpena eta let-7a azpi-adierazpena birikietako

minbizian eboluzio txarra iragarri ahal dute (126). Era berean, miR-191 eta miR-193a maila altuak biziraupen laburragoarekin erlazionatuta daude (127). Minbizi gastrikoan, 7 mikroRNAko sinadura biziraupen globala eta gaixotasunik gabeko biziraupena aurreikus ditzake fidagarritasun handiarekin (128).

Nahiz eta biziraupena iragartzea garrantzitsua izan daitekeen zentzu orokorrago batean, terapia espezifikoei erantzuteko iragarpenak askoz balio kliniko handiagoa du. Zenbait mikroRNA gain-adierazita egon daitezke farmakoen erresistentzia kasuetan, hala nola miR-19 eta miR-21 bularreko minbizian eta miR-221/222 klusterra biriketako eta gibeleko minbizian (124,129,130).

Beste batzuk, miR-130a eta miR-298 adibidez, azpi-erregulazioa aurkezten dute, mikroRNAk prozesu honetan duten paper biologiko garrantzitsua iradokiz (131,132). Beste kasu batzuetan, mikroRNAek tratamenduen erresistentzian duten eragina ehun espezifikoa da. Izan ere, miR-27a zeharka lotuta dago obarioko minbiziarekin, eta zuzenean lotuta egon daiteke leuzemiaren tratamenduarekiko erresistentzian (133).

Guzti hau kontuan izanda, mikroRNA profil garapenaren ikerketak martxan daude prognosia eta tratamenduaren erantzuna aurreikusi ahal izateko. Biomarkatzaile iragarle gisa erabiltzetik aparte, mikroRNA adierazpenaren eta terapia espezifikoen erantzunaren arteko korrelazioak haien tratamendu adjubante potentzial esperantzagarria ere proposatu du, nahiz eta hipotesi hau batez ere *in vitro* ikerketetan oinarritzen den (134). MikroRNAk, mRNA anitz itu moduan izateko duten gaitasun handia dela eta, molekula horiek hautagai terapeutiko (microRNA mimics) edo itu terapeutiko (antimiRs) gisa erabiltzeko interesgarri bihurtzen ditu (135).

MikroRNAk gaitz hematologikoetan

MikroRNAen adierazpen anormala B zelulako neoplasmetan ere ohikoa da, B zelula linfoma barne. Jakina da mikroRNAen bitartezko gene erregulazioan araudi zehatzak behar direla zelula hematopoietikoak modu egokian garatu ahal izateko, eta honen etenaldiak zelulen transformazio gaiztoa dakar. MikroRNAk erregulazio-rol kritikoak ditu sistema immunologikoan, zelula amen mantenimenduan, zelularen funtzio immunologikoetan, B-zelularen heldutasuna eta immunoglobulina ekoizpenean (136).

Leuzemiaren biomarkatzaile gisa proposaturiko mikroRNAei dagokienez, emaitza sendoak behatu dira miR-155ren gain-adierazpenean leuzemia akutu linfoblastikoan (ALL), leuzemia linfatiko kronikoan (CLL), azaleko T-zelula linfoman (CTCL), B-zelula handiko linfoma hedatsuan (BZHLH) eta beste hainbat gaixotasun hematologikoetan (137–139). Gainera, miR-150 adierazpen murriztua aurkitu da ALL duten paziente pediatrikoetan osasuntsu dauden pazienteekin aderatuta (140), eta zenbait mikroRNA, hala nola, miR-720, miR-1246, miR-451, miR-1915, miR-1308 eta miR-638, modu esangarrian adierazita aurkitu dira mieloma anitzan paziente osasuntsuekin alderatuz baita ere (141).

Horrez gain, mikroRNA adierazpenak leuzemia moten artean desberdintzeko erabili dira. Adibidez, miR-128a, miR-128b, let-7b eta miR-223 ALL eta AML bereizteko gai zirela aurkitu zen (142).

Azkenik, mikroRNAk pronostikoarekin lotu dira baita ere gaitz hematologikoetan. Adibidez, miR-146a maila altuak pronostiko onarekin erlazionatu ziren AMLan (143), ostera miR-122 gain-adierazpena pronostiko txarrarekin erlazionatuta dagoela baieztatu da (144).

Hori guztia kontuan hartuta, BZHLH duten pazienteen ehun laginen mikroRNAen adierazpen-mailaren ebaluazioa gaixotasunaren diagnostikoa eta karakterizazioa egiteko erabili daiteke, minbiziaren prognosia iragartzeko eta terapia aukeratzeko edo erantzunaren markatzaile gisa. Hala ere, orain arte adierazitako datuak bateraezinak dira. Adibidez, miR-150-5p BZHLHko lau ikerketetan azpi-erregulatuta aurkitu zen (145–148), beste ikerketa batean gainadierazita aurkitu zen bitartean (149) beste ikerketa baten adierazpena aldaketa gabe behatu zen (150). Era berean, miR-222-3p pronostiko onarekin asoziatu zen lau ikerketetan (151–154) eta ez zen asoziaziorik aurkitu beste lau ikerketetan (147,150,155,156). Horregatik, ikerketa gehiago behar dira mikroRNAen aplikazioa sakoago aztertu ahal izateko, BZHLHko diagnostiko klinikorako, sailkapenerako edo pronostikorako markatzaile espezifiko eta sentikor gisa erabili ahal izateko.

HIPOTESIA ETA HELBURUAK

HIPOTESIA

BZHLHren mekanismo patologikoak are gehiago ulertu eta erituximab oinarritzat duen kimioimmunoterapia gehitu den arren, tratamenduak eraginkortasun gutxiago du pazienteen % 30-40arengan gaitzak heterogeneotasun handia duelako eta farmakoekiko erresistentzia azkarra agertzen delako. Biziraupen tasak hobetzeko, sakonago ulertu behar dira BZHLHren patogenesia eta farmakoekiko erresistentzia eragiten duten mekanismoak.

Azkenaldian, minbizi-zelulen portaera biologikoan eta farmakoekiko erresistentzian mikroRNA molekulek dituzten eraginei buruzko informazio garrantzitsu ugari agertu da.

Horren harira, BZHLHren jatorrian, azpimoten arteko ezberdintasunetan eta tratamenduari emandako erantzunean mikroRNA molekulek ere parte hartzen dutela proposatzen dugu lan honetan. Hori hala dela frogatuz gero, BZHLHren diagnostikorako, sailkapenerako, pronostikorako eta tratamenduari emandako erantzuna neurtzeko biomarkatzaile gisa erabili ahal izango lirateke mikroRNAk.

HELBURUAK

Lan honen helburu nagusiak alde batetik, BZHLH diagnostikatzeko, sailkatzeko, pronostikoa egiteko eta tratamenduari emandako erantzuna neurtzeko balioko duen mikroRNA multzoa zehaztea, eta, bestetik, erregulazioan alterazioak dituzten mikroRNA molekulek gaitzaren jatorrian duten ekintza-mekanismoa argitzea.

Helburu nagusi horiek lortzeko, helburu espezifiko hauek ezarri ditugu:

1. BZHLHren diagnostikoarekin, sailkapenarekin, tratamenduari emandako erantzunarekin eta pronostikoarekin erlazionatuta egon daitezkeen mikroRNAen xedea zein den zehaztea:
    a. BZLHLren biomarkatzaile gisa aurretiaz proposatu diren mikroRNAk identifikatzea berrikuspen sistematiko bat eginez.
    b. Identifikatutako mikroRNAen erabilgarritasuna GELTALMO gidalerroak jarraiki tratatutako eta diagnostikatutako kohorte berrian biomarkatzaile gisa balioestea.
2. BZHLHen biomarkatzaile gisa erabili daitekeen mikroRNA molekulen sinadura berria definitzea; horretarako, anotazioa duten mikroRNA guztien azterketa egitea RNA txikien sekuentziazioa erabiliz.
3. Erregulazioan alterazioak dituzten mikroRNA molekulek BZHLHn duten ekintza-mekanismoa identifikatzea, mikroRNA-mRNA interakzio-sarearen analisia erabiliz.

MATERIALAK ETA METODOAK

BERRIKUSPEN SISTEMATIKOA

Bilaketa-estrategia

Bilaketa sistematikoa egin zen [((“Non-coding RNA”) OR (“miRNA” OR “microRNA” OR “miR”) OR (“exosome”) OR (“extracellular vesicle”) OR (“secretome”)) AND (“Diffuse large B cell lymphoma” OR “DLBCL”)] terminoekin, PubMed datu-basea erabilita (https://www.ncbi.nlm.nih.gov/pubmed/); 2020ko martxora arte argitaratutako artikuluak hartu ziren kontuan.

Inklusio- eta esklusio-irizpideak

Gure inklusio irizpideak betetzeko giza populazioetan mikroRNAk BZHLHren tumore-ehunean duten adierazpena diagnostiko gisa, azpimoten arabera sailkatzeko, tratamenduari emandako erantzuna aurreikusteko edo pronostikoaren biomarkatzaile gisa mikroRNAk ebaluatu zituzten azterketa original eta independenteak izan behar zuten. Ezaugarri hauek dituzten ikerketak baztertu ziren: jatorrizko datuak (berrikuspenak, meta-analisiak, gutunak eta iruzkinak) ez dituzten artikuluak, kasu-txostenak, laburpenak, ingelesez argitaratu ez diren artikuluak, gizakiak ez ziren beste espezietako mikroRNA molekulen datuak ez zituzten ikerketak eta BZHLH ez diren gaitzei buruzko artikuluak. Testuak guztiz aztertu ondoren, baztertu egin ziren, halaber, beste gaitz batzuk ere barnean hartzen zituzten artikuluak, zirkulazioan dauden mikroRNAk aztertu zituztenak, BZHLH ez-primarioan arreta jartzen zutenak, diagnostikoan, azpimotetan, tratamenduei emandako erantzunean edo pronostikoan mikroRNA molekulek zuten funtzioa ebaluatzen ez zutenak edo mikroRNA molekulen adierazpena aztertzen ez zutenak. Identifikatutako lanetan zeuden erreferentziak berrikusi egin ziren, irizpideekin bat egiten zuten ikerketa gehigarriak aurkitzeko. Bi ikertzailek egin zuten hautaketa-prozesua, modu idenpendentean, eta bat ez etortzeak kontsentsu bidez ebatzi ziren.

Datuak erauztea

Informazio hau erauzi zen azterketa bakoitzetik: argitalpen-urtea, aztertutako ehun-lagin mota, aztertutako populazioaren ezaugarriak, metodologia, aztertutako mikroRNA kopurua eta modu esangarrian adierazitako mikroRNA molekulen zerrenda. Bi ikerketetan edo gehiagotan estatistikoki adierazgarriak ziren eta emaitza esangarriak zituzten mikroRNAk soilik hautatu ziren.

MIKRORNA MOLEKULEN ADIERAZPENAREN ANALISIA

Azterketako populazioa

BZHLH diagnostikoa zuten eta R-CHOP edo antzeko kimioterapia-erregimenekin tratatutako 78 paziente helduren eta 17 kontrolen laginak formalinan finkatutako eta parafinan sartutakoak (FFPE) erabili ziren azterketan. Euskadiko Ikerkuntza Klinikoko Batzorde Etikoak onartu zuen azterketa (P2016121). Parte-hartzaile bakoitzak baimen informatua sinatu zuen, eta Helsinkiko Hitzarmeneko zehaztutasunak jarraituz egin zen azterketa.

BZHLH diagnostikatu zitzaien momentuko 78 pazienteren tumore aleetatik eskuratu ziren laginak (epe luzeko erremisio totala zuten 50 paziente, gaitz errefraktarioa zuten 12 paziente

eta azkenik, diagnostikatu eta 10 urteren epean berriro gaixotu ziren 16 paziente). 1999 eta 2018 urteen bitartean eskuratu ziren laginak Espainiako erreferentziako hiru ospitaletako Hematologia Unitateetatik (Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea, Donostiako Unibertsitate Ospitalea eta Arabako Unibertsitate Ospitalea). Kontrol laginak, hau da, BZHLHrik ez duten pertsonak, gongoil ez-tumoraletatik hartu ziren Arabako Unibertsitate Ospitalean.

4. taula: Diagnostikoko BZHLH pazienteen ezaugarri demografikoak eta klinikoak (n=78).

Datu klinikoak	BZHLH pazienteak (n=78)	Kontrolak (n=17)
Adina		
Batezbesteko adina (tartea)	58,66 (21-81)	67,76 (31-86)
≥60	43	4
<60	34	13
NA	1	0
Sexua		
Gizonezkoa	41	9
Emakumezkoa	37	8
Estadioa		
I	7	
II	11	
III	23	
IV	27	
NA*	10	
B sintomak		
Bai	31	
Ez	31	
NA*	18	
IPI puntuazioa		
Arrisku baxua (0-1)	15	
Arrisku baxu edo ertaina (2)	13	
Arrisku eratin edo altua (3)	15	
Arrisku altua(4-5)	20	
NA*	15	
IHK azpimotak edo molekularrak		
ZGB	32	
Ez-ZGB	21	
NA*	25	
Terapia erantzuna		
CR	50	
Ez CR	28	
LDH		
Normala	23	
Handituta	40	
NA*	17	
β2-MG, β 2 mikroglobulina		
Normala	22	
Handituta	39	
NA*	17	
5 urteko PFS		
Batezbestekoa, hilabeteak	39,68	
5 urteko OS		
Batezbestekoa (tartea), hilabeteak	46,63	

Laburdurak: CR, erantzun osoa; BZHLH, B-zelula handien linfoma hedatsua; ZGB, zentro germinaleko B zelula mota; IHK, immunohistokimika; IPI, Indize Pronostiko Internazionala; β2-MG, β 2 mikroglobulina; LDH, laktato deshidrogenasa; PFS, aurrerapenik gabeko biziraupena; OS, biziraupen globala; NA, ez eskuragarri; *Hainbat aldagaik balio falta dute, pazienteen historio klinikoetako informazio faltagaitik.

Bi ikertzaile independentek jaso zituzten datu demografikoak eta klinikoak pazienteen historia klinikoetatik. Adina, sexua, fase klinikoa (I-IV), B sintomak (bai/ez), IPI kalifikazioa (0-5), azpimotak (ZGB edo ez-ZGB), tratamenduari emandako erantzuna —erantzun osoa (CR), erantzun osorik ez (ez CR)—, LDH kontzentrazioa (normala edo altua), β-2 mikroglobulina kontzentrazioa (normala edo altua), tratamenduaren emaitza, aurrerapenik gabeko biziraupena (PFS) eta biziraupen orokorra bost urtera (4. taula). Kontrol-pazienteengandik ere eskuratu zen informazio demografikoa (4. taula).

Laginen prozesamendua eta RNA erauzketa prozesua

Euskal Biobankuak (www.biobancovasco.org) eman zituen azterketan parte hartu zuten pazienteen laginak eta datuak, eta lanketa-prozedura estandarrei jarraituz landu ziren.

RNA erauzteko, zutabetan oinarritutako erauzketa-metodoak erabili ziren, zeinetan RNA molekula txikiak eta handiak batera bakartzen baitira *miRNeasy FFPE Kit*-a erabilita (Qiagen, Hilden, Germany).

RNA txikien sekuentzien liburutegia prestatzea eta sekuentziatzea

TruSeq small RNA Sample Prep Kit-a (ref. RS-200-0012, Illumina) erabili zen, fabrikatzailearen protokoloari jarraituz. RNA osoaren 1 µg erabili zen. Lehendabizi, 3' egokitzaileak eta, gero, 5' egokitzaileak lotu zitzaizkion RNAri. Ondoren, cDNA sintetizatu zen alderantzizko transkriptasa (SuperScript II, ref. 18064-014, Invitrogen) eta 3' RNA egokitzailearen osagarria den "*primer*" edo abiarazle espezifiko bat erabilita (RNA RT Primerra). cDNA are gehiago anplifikatu zen PCR bidez, kit-ean zeuden egokitzaile indexatuak erabilita. Azkenik, tamainaren arabera hautatu ziren liburutegiak, *% 6ko Novex® TBE Gel*-ak erabilita (ref. EC6265BOX, Life Technologies). 18-36 bp-ko tamaina zuten txertatze-sekuentziak ebaki ziren geletik, eta DNA molekulak prezipitatu eta eluitu egin ziren 10 µl EB erabilita.

Agilent DNA High Sensitivity txipak erabili ziren lortutako liburutegiak aztertzeko, hau da, kantitatea zenbatesteko eta tamainaren araberako banaketa egiaztatzeko. Ondoren, qPCR erabiliz kuantifikatu ziren; horretarako, *KAPA Library Quantification Kit*-a (ref. KK4835, KapaBiosystems) erabili zen Illumina-ren *cBot*-arekin anplifikatu aurretik. Berrogeita hamar nukleotidotako eta irakurketa bakarreko sekuentziez osatu zen liburutegia, Illumina-ren *HiSeq 2500* sistema erabilita. Sekuentziazioaren sakonera 10 milioi irakurketakoa izan zen lagineko, gutxi gorabehera. Erregulazio Genomikoaren Zentroan (CRG) egin zen prozesu osoa.



5. irudia: Truseq RNA lagin prestaketa (Truseq laginak prestatzeko gidatik egokitua). https://support.illumina.com

Azterketa bioinformatikoa eta mikroRNAren adierazpen diferentziala

Skewer erabilita, irakurketak ebaki egin ziren RNA txiki egokitzaileak zeuden tokietan, irakurketa iragaziak lortuz. Hau da, 15 base baino laburragoak eta 40 base baino luzeagoak ziren sekuentzia guztiak kendu ziren. Gainerakoak erreferentziako genomarekin lerrokatu ziren (GRCh38) *ShortStack* erabilita, eta *htseq-count* erabiliz aztertu ziren lortutako lerrokatzeak, gene bakoitzeko etiketa kopurua zehazteko. Gencode partzuergoko v27 anotazioa erabili zen. Azkenik, mikroRNA geneetara murriztu zen kontaketa-matrizea.

Kondizio guztietan egindako irakurketen batura kontuan hartuta 10 irakurketa edo gutxiago zituzten RNA txiki guztiak baztertu ziren eta gainerako geneak *DESeq2*-ren adierazpen diferentzialaren (DE) analisirako erabili ziren. *DESeq2*-ek irakurketa-kontaketak normalizatu eta transformatu egiten ditu, dispertsioak zenbatesten du eta Wald proba egiten du DE gene nabarmenak detektatzeko. Positibo faltsuen aurkitze-tasa (p adj) erabiliz doitu ziren p-balioak.

Osagai nagusizko analisia (ingelesez, "*Principal component analysis*", PCA) egin zen, datu multzo handien dimentsioa txikitzeko eta adierazpen-profilean oinarrituta berez agertu ziren lagin klaseak aztertzeko. Horren bidez, hasierako datu multzoaren proiekzioa egin daiteke bata bestearekiko independenteak diren ardatzen arteko eremu murriztuan (osagai nagusiak), eta, hala, sistemaren bariantza osoaren zati nabarmena azaltzen du. MikroRNA guztien adierazpenak kontuan hartuta, laginak bariantza horren arabera multzokatzen diren adierazpena eskura dezakegu. Transformazio logaritmikoaren bidez normalizatutako balioak erabili ziren azterketarako. Bariantzaren osagairik handienak X ardatzean ezartzen dira, eta bigarren handienak Y ardatzean. R-ren *prcomp* paketea erabiliz egin zen PCA, eta irakurketa-kontaketa transformatuak aztertzeko erabili zen.

Biziraupenaren analisia

Biziraupenaren analisiak egin ziren, epe luzeko erremisioa zuten eta gaixotasuna berriro garatu zuten pazienteen diagnostikoko laginetan adierazpen diferentziala zuten mikroRNA horiek PFS OS duten eragina zenbatesteko (doitutako p-balioa < 0,05; $\log_2$ aldaketa > 2 edo < –2). Erregulazioan aldaketak duten mikroRNA molekulen adierazpenaren mediana kontuan hartu zen pazienteak adierazpen gutxiko edo adierazpen handiko taldeetan sartzeko (miR-4444, miR-449c-5p, miR-3681-5p, miR-3928-3p, miR-449b-5p, miR-370-3p eta miR-4424 pronostiko onaren biomarkatzaileak; miR-133a-3p, miR-208b-3p eta miR-205-5p pronostiko txarraren biomarkatzaileak). Kaplan-Meyer analisia erabili zen biziraupen-kurbak definitzeko, eta Log-Rank testa esangarritasuna ebaluatzeko. Aldagai anitzeko analisia egiteko, azpimota eta IPI egoera ere kontuan hartu genituen arrisku proportzionalen Cox-en metodoa (Cox PH) erabilita. *Survival R* paketea erabiliz egin ziren kalkulu guztiak. Biziraupenarekin lotura adierazgarria kontsideratu zen p-balioa < 0,05 zuten kasuetan.

mikroRNA-mRNA interakzio-sarea

MikroRNA molekulen adierazpenari buruz ditugun datu propioak (BZHLH duten pazienteak vs kontrolak) *Gene Expression Omnibus* (GEO) datu-basean (157) dauden mRNA molekulen adierazpen-datuekin elkartu eta mikroRNA-mRNA interakzio-sare bat sortu genuen, BZHLH garatzeko mekanismoa argitzeko.

Itu-geneak identifikatzea

Diagnostikoa egiterakoan erregulazioan aldaketak zituzten mikroRNA molekulen itu-geneak identifikatu ziren (BZHLHdun pazienteak *vs* kontrolak). MiRTarBase (158)(http://mirtarbase.cuhk.edu.cn/php/index.php) erabili zen esperimentuz baliozkotutako mikroRNA-mRNA itu-interakzioak bilatzeko. Hirurehun eta hirurogei mila mikroRNA-itu interakzio (MTI) ditu jasota MiRTrBasek; literatura egokia aztertuta biltzen dira guztiak eskuz. Oro har, bildutako MTIak era esperimentalean baliozkotzen dira adierazle-azterketak (ingelesez, *"reporter assay", "Western blot"-ak, "microarray*") eta hurrengo belaunaldiko sekuentziazio-esperimentuak (ingelesez, *"Next generation sequencing"*) erabilita. qRT-PCR, ELISA, immunohistokimika, "Westen blot" eta adierazle-azterketa bidez baliozkotutako ituak dira mikroRNA baten eta haren ituen arteko zuzeneko interakzioa (balizko interakzio) erakusteko metodo fidagarrienak. "Microarray" edo hurrengo belaunaldiko sekuentziazioak, berriz, mikroRNA eta haien ituen arteko harreman ez-zuzenak eskaintzen dituzte (interakzio ahulak). Azterketa honetarako mikroRNA-mRNA balizko interakzioak soilik hautatu ziren.

GEO errepositorioko datu-baseak

GEO errepositorioa erabili zen informazio klinikoa duten BZHLH tumoreen eta kontrol osasuntsuen geneen adierazpen-datuak (mRNA) bilatzeko. Informazio genetiko osoa bilatzeko, "*DLBCL and expression profiling by array*" (BZHLH eta adierazpenaren profilak bilatzea array bidez) terminoak erabili genituen, hasiera-data mugagabea eta amaiera-data 2020ko iraila zuten

ikerketa-argitalpenak identifikatzeko. 77 datu multzo aztertu genituen eta sartzeko irizpideak betetzen zituzten 15 artikuluetatik batek bakarrik zituen kontrol-datuak; gure analisian sartu genuen azterketa hori (6. irudia)._MikroRNA eta mRNA molekulen adierazpen bateratuaren sarearen analisiaren lan-fluxua 7. irudian ikus daiteke.

GPL570 plataformako "microarray" datu multzo bat ([HG-U133_Plus_2] Affymetrix Human Genome U133 Plus 2.0 Array) deskargatu zen GEOtik (http://www.ncbi.nlm.nih.gov/geo/), kontrolarekin alderatuz BZHLHn adierazpen diferentziala duten geneak aztertzeko. Adierazpen-profilak gongoilen 55 BZHLH lagin eta 33 lagin osasuntsu zituen, Aalborg-eko Unibertsitate Ospitaletik bidalitakoak (159,160).



6. irudia: Datu hautapenaren fluxu-diagrama.

Adierazpen diferentziala duten geneak (DEGak) identifikatzea

GEO serieetako lagin sorta bi edo gehiago alderatzeko aukera ematen duen web-tresna interaktiboa da GEO2R. Alderaketa horren bidez, kondizio esperimentaletan adierazpen diferentziala duten geneak identifika daitezke. Alderaketaren emaitza geneak adierazkortasunaren arabera antolatutako taula batean adierazi dira. Halaber, grafikoki adierazi da adierazpen diferentziala duten geneak ikusarazteko eta datu multzoen kalitatea ebaluatzeko. Datu multzoak paziente eta kontrolen kategorietan sailkatu ondoren, parametro lehenetsiekin egin zen azterketa. Inklusio-irizpide hauek ezarri genituen DEGetarako: erregulazioa handituta duten geneen $\log_2$ aldaketak edo "*fold change*" (logFC) ≥ 2 balioa izan behar du eta doitutako p-balioak < 0,05 izan behar du; azpi-erregulazioa duten geneek, aldiz, logFC ≤ –2 eta doitutako p-balioa < 0,05 izan behar dute.

Datuak bateratzea

Desregulazioa aurkezten duten mikroRNA molekulen ituak, esperimentu bidez baliozkotutakoak, adierazpen diferentziala duten mRNA molekulekin gainjarri ziren (azken horiek GEO datu-baseetatik eskuratutakoak) (7. irudian ikus daiteke). Adibide gisa, gain-adierazitako mikroRNAen itu-geneak eta azpi-adierazitako geneak gainjarri ziren (GEO datuetatik eskuratutakoak), mikroRNA molekulen ekintza-mekanismoari jarraituz. Azpi- zein gain-adierazitako geneen arteko ebakiduraren mapa egin zen Venn paketea erabilita (http://bioinformatics.psb.ugent.be/webtools/Venn/).

Analisi bioinformatikoa eta aurreikuspen funtzionala

Gainjarritako geneekin azterketa hauek egin ziren: Gene Ontologiaren (GO) anotazio funtzionalak, PANTHER (Protein ANalysis THrough Evolutionary Relationships) sailkapen-sistema eta seinale-bideen aberaste-analisiak (Consensus Pathway database http://cpdb.molgen.mpg.de/). miR-205ren DEGen interakzioak aztertzeko, STRING (Search Tool for the Retrieval of Interacting Genes/http://string.embl.de/) datu-basera igo genituen DEGak.



7. irudia: mikroRNA-mRNA sarearen eraikuntzaren lan fluxua.

EMAITZAK

B ZELULA HANDIKO LINFOMA HEDATSUAN MIKRORNA POTENTZIALAK HAUTATZEA LITERATURA SISTEMATIKOKI AZTERTUZ

Bilaketa-estrategiari esker, 677 erregistro aurkitu ziren PubMed datu-basean (8. irudia). Bikoiztutako emaitzak kendu ondoren 438 argitalpen geratu ziren eta horietatik, 303 baztertu egin ziren laburpena irakurri ondoren, ez baitzituzten betetzen inklusio-irizpideak. Ondoren, BZHLHko mikroRNA molekulei buruzko 135 ikerketen testu osoa irakurri zen. Beste 84 artikulu baztertu ziren, besteak beste, arrazoi hauengatik: BZHLHLrekin batera beste patologia batzuk zeudelako, mikroRNAk ez zirelako aztertu tumore-laginean, BZHLH ez-primarioa ere kontuan hartu zutelako, diagnostikoan, azpimota, tratamenduei emandako erantzunean edo pronostikoan mikroRNA molekulek duten funtzioa ez zutelako ebaluatu edo mikroRNA molekulen adierazpen-aldaketak ez zirelako kontuan hartu. Guztira, BZHLHren tumore-laginetan mikroRNA molekulen adierazpen-aldaketak biomarkatzaile gisa duten funtzioa aztertzen zuten 51 ikerketa sartu ziren. Haietatik 33 lanetan, BZHLH diagnostikatzeko ustezko biomarkatzaile gisa hartzen zituzten mikroRNAk, 22tan azpimotak sailkatzeko tresna gisa, bost tratamenduari emandako erantzuna aztertzeko, eta 25 ikerketetan pronostikorako bilatu zituzten markatzaileak.



8. irudia: Ikerketen hautapenaren fluxu-diagrama.

Tumore-ehunetako mikroRNAk BZHLH diagnostikatzeko biomarkatzaile gisa

Hogeita hamahiru ikerketek mikroRNA molekulen adierazpena aztertu zuten, BZHLH kasuak kontrol osasuntsuekin alderatuz (145–150,154,161–186). Hogeita hamairu ikerketa horiei esker, BZHLH pazienteetan kontrol osasuntsuekin alderatuz adierazpen esangarria zuten 152 mikroRNA identifikatu ahal izan ziren; Eranskineko 1. taulan daude.

Bi ikerketa edo gehiagotan era berean erregulazioan aldaketak zituzten mikroRNA molekulei dagokienez, BZHLH pazienteetan gain-adierazita agertzen ziren hiru mikroRNA identifikatu genituen (miR-155-5p (145,147,167,170,174,176,178–181), miR-21-5p (145,161,171,174,178,180,183) eta miR-146a-5p (169,174,179)), nahiz eta ikerketa batzuek ez aurkitu lotura esangarririk (miR-155-5p (149,150), miR-21-5p (147,150), miR-146a-5p (145,150)). Halaber, emaitza kontraesankorrak zituen mikroRNA bat aurkitu genuen: miR-150-5p. Lau ikerketetan, BZHLH pazienteetan azpi-adierazita aurkitu zen (145–148), eta beste ikerketa batean gain-adierazita (149). Beste ikerketa batean, berriz, ez zen lotura esangarririk aurkitu (150) (5. taula).

Tumore-ehunetako mikroRNAk BZHLHren azpimotak sailkatzeko biomarkatzaile gisa

Hogeita bi ikerketetan, BZHLHren ZGB eta ez-ZGB azpimotak bereizteko tumore-ehunetako mikroRNA molekulek duten gaitasuna aztertu zen (145,147,150,151,155,171,173,175–181,187–194). Ikerketa horietan aurkitu zenez, BZHLH ZGB eta ez-ZGB laginen artean, 80 mikroRNA ezberdinek zuten adierazpen esangarria; Eranskinaren 2. taulan ikus daitezke. Adierazpen esangarria zuten 80 mikroRNA molekulen artean, lau aipatu ziren bi ikerketa baino gehiagotan. Aipatzen zenez, ZGB laginetan horietatik hiruk azpi-adierazita (miR-155-5p (145,150,155,178–181,187,192,194), miR-221-3p (150,151,155,180) eta miR-222-3p (150,151,155)) edo adierazpena aldatu gabe zuten (miR-155-5p (147), miR-221-3p (145,191) eta miR-222-3p (145,147,187,191)) eta miR-28-5p molekulak, berriz, gain-adierazita (148,149,185,189) edo aldatu gabe (145,155) aurkitu zen azpimota berean (6. taula).

5. taula: Bi ikerketa baina gehiagotan BZHLHren diagnostikoarekin lotura esangarria duten mikroRNAk.

mikroRNA esangarriak	Emaitza	n BZHLH	n Kontrolak	Lagin iturria	Metodoa	n mikroRNA	Erreferentzia
miR-155-5p	Altu	29	32 (RLH)	Ehuna	qRT-PCR	1	Li 2017
		22	6 (NLN)	Biopsia	qRT-PCR	1	Huskova 2015
		200	11 (NT)	FFPE	qRT-PCR	3	Go 2015
		45 (DC);75 (VC)	10 (DC);6 (VC)(NLN)	FF eta FFPE	qRT-PCR/array	177	Caramuta 2013
		90	31 (RLN)	FFPE	qRT-PCR	2	Zhong 2012
		58	7 (NLN)	FFPE	qRT-PCR	157	Roehle 2008
		48	6 (NBC)	FF eta FFPE	qRT-PCR	3	Lawrie 2007
		23	2	FF	Semi RT-PCR	1	Eis 2005
		24	14 (NLN)	FFPE	Array	3100 zunda	Tamaddon 2016
		84	4	FFPE	Array	1	Wu 2018
	NS	92	15	FF	sekuentziazioa	miRNAome	Lim 2015
		12	7	FFPE	qRT-PCR	4	Handal 2013
miR-21-5p	Altu	55	20 (NLN)	FF eta FFPE	qRT-PCR	1	Liu 2017
		26	10 (NLN)	FFPE	qRT-PCR	1	Song 2017
		200	11 (NT)	FFPE	qRT-PCR	3	Go 2015
		45 (DC);75 (VC)	10 (DC);6 (VC)(NLN)	FF eta FFPE	qRT-PCR/array	177	Caramuta 2013
		48	6 (NBC)	FF eta FFPE	qRT-PCR	3	Lawrie 2007
		24	14 (NLN)	FFPE	Array	3100 zunda	Tamaddon 2016
		45	23(RLNH)	Ehuna	qRT-PCR	1	Chen 2020
	NS	92	15	FF	sekuentziazioa	miRNAome	Lim 2015
		58	7 (NLN)	FFPE	qRT-PCR	157	Roehle 2008
miR-146a-5p	Altu	90	31 (RLN)	FFPE	qRT-PCR	2	Zhong 2012
		24	14 (NLN)	FFPE	Array	3100 zunda	Tamaddon 2016
		56	28(RLNH)	Ehuna	qRT-PCR	1	Zhuang 2014
	NS	45 (DC);75 (VC)	10 (DC);6 (VC)(NLN)	FF eta FFPE	qRT-PCR/array	177	Caramuta 2013
		92	15	FF	sekuentziazioa	miRNAome	Lim 2015
miR-150-5p	Altu	12	7	FFPE	qRT-PCR	4	Handal 2013
	Baxu	45 (DC);75 (VC)	10 (DC);6 (VC)(NLN)	FF eta FFPE	qRT-PCR/array	177	Caramuta 2013
		36	5 (NLN)	Ehuna	qRT-PCR	8	Fassina 2012
		58	7 (NLN)	FFPE	qRT-PCR	157	Roehle 2008
		5	4 (RLH)	Ehuna	nanostring	800	Jia 2018
	NS	92	15	FF	sekuentziazioa	miRNAome	Lim 2015

Laburdurak: FF: izoztutako ehuna; FFPE: formalinan finkatutako eta parafinan sartutako ehuna; NA: ez eskuragarri; Altu: BZHLH pazienteetan modu esangarrian gain-adierazita; Baxu: BZHLH pazienteetan modu esangarrian azpi-adierazita; NS: desberditasun ez esangarriak pazienteen eta kontrolen artean; RLH: Linfoma hiperplasia erreaktiboa; NLN: Ehun linfatiko normala; NT: amigdala normala; DC: aurkikuntzaren kohortea; VC: balioztatzearen kohortea; NBC: B zelula normalen lagina.

6. taula: Bi ikerketa baino gehiagotan BZHLHren azpimotekin lotura esangarria duten mikroRNAk.

mikroRNA esangarriak	Emaitza	n ZGB	n ez-ZGB	Lagin iturria	Metodoa	n mikroRNA	Erreferentzia
miR-155-5p	Baxu ZGB	53	95	FFPE	qRT-PCR	8	Go 2015
		32	27	FFPE	qRT-PCR/array	377	Iqbal 2015
		20	34	FF eta FFPE	qRT-PCR/array	177	Caramuta 2013
		36	31	FF	qRT-PCR	1	Huang 2012
		21	69	FFPE	qRT-PCR	2	Zhong 2012
		32	28	FFPE	Array	464	Lawrie 2009
		16	18	FF eta FFPE	qRT-PCR	3	Lawrie 2007
		4	19	FF	Semiq. RT-PCR	1	Eis 2005
		41	30	FF	sekuentziazioa	miRNAome	Lim 2015
		32	32	biopsia	qRT-PCR	1	Due 2019
	NS	25	25	FFPE	qRT-PCR	157	Roehle 2008
miR-221-3p	Baxu ZGB	11	18	FFPE	qRT-PCR/array	470	Montes-Moreno 2011
		32	28	FFPE	Array	464	Lawrie 2009
		16	18	FF eta FFPE	qRT-PCR	3	Lawrie 2007
		41	30	FF	sekuentziaioa	miRNAome	Lim 2015
	NS	20	20	Ehuna	Array	113	Zhang 2009
		20	34	FF eta FFPE	qRT-PCR/array	177	Caramuta 2013
miR-222-3p	Baxu ZGB	11	18	FFPE	qRT-PCR/array	470	Montes-Moreno 2011
		32	28	FFPE	Array	464	Lawrie 2009
		41	30	FF	sekuentziaioa	miRNAome	Lim 2015
	NS	25	25	FFPE	qRT-PCR	157	Roehle 2008
		20	20	Ehuna	Array	113	Zhang 2009
		32	27	FFPE	qRT-PCR/array	377	Iqbal 2015
		20	34	FF eta FFPE	qRT-PCR/array	177	Caramuta 2013
miR-28-5p	Altu ZGB	11	18	FFPE	qRT-PCR/array	470	Montes-Moreno 2011
		32	27	FFPE	qRT-PCR/array	377	Iqbal 2015
		41	30	FF	sekuentziaioa	miRNAome	Lim 2015
		20	20	Ehuna	Array	113	Zhang 2009
	NS	20	34	FF eta FFPE	qRT-PCR/array	177	Caramuta 2013
		32	28	FFPE	Array	464	Lawrie 2009

Laburdurak: ZGB: zentro germinaleko B zelula mota; ez-ZGB: aktibatutako B zelula mota; FF: izoztutako ehuna; FFPE: formalinan finkatutako eta parafinan sartutako ehuna; NA: ez eskuragarri; Altu: ZGB pazienteetan modu esangarrian gain-adierazita; Baxu: ZGB pazienteetan modu esangarrian azpi-adierazita; NS: desberdintasun ez esangarriak ZGB eta ez-ZGB pazienteen artean.

Tumore-ehunetako mikroRNAk BZHLHn tratamenduari emandako erantzuna aurresateko biomarkatzaile gisa

Bost ikerketetan, BZHLH ehunetako mikroRNAk R-CHOP tratamenduari emandako erantzunaren biomarkatzaile gisa duten funtzioa aztertu zuten (148,175,176,179,190). Azterketa bakoitzaren ezaugarriak Eranskineko 3. taulan daude jasota. Bost mikroRNA ezberdinek adierazpen esangarria azaltzen zuten tratamenduari emandako erantzun ona eta txarra zuten pazienteen artean. Terapiari emandako erantzun onarekin lotura zuten hiru mikroRNA aurkitu ziren (miR-27b-3p (148), miR-34a-5p (176) eta miR-224-5p (175)). MiR-155-5p (179) eta miR-146-5p (179), berriz, kimioerresistentziarekin erlazioa zutela aurkitu zen. Hala ere, mikroRNA bakoitza azterketa bakarrean aztertu zen, eta emaitza bat ere ez zen erreplikatu.

Tumore-ehunetako mikroRNAk BZHLHren pronostikorako biomarkatzaile gisa

Hogeita bost ikerketetan aztertu zen BZHLH pazienteetan tumore-ehuneko mikroRNA molekulek pronostikorako duten garrantzia (147,148,150–156,167,172,173,175,177–180,184,186,187,190,193–196). Biziraupenarekin erlazio nabarmena zuten 50 mikroRNA aurkitu ziren; Eranskineko 4. taulan daude jasota guztiak.

Bi ikerketa baino gehiagotan bat egiten duten emaitza esangarriak izatearen baldintza betetzen zuten miR-222-3p eta miR-155-5p mikroRNAk identifikatu ziren. Lau ikerketetan, miR-222-3p (151–154) eta miR-155-5p (167,179,187,195) molekulen gain-adierazpena pronostiko txarrarekin erlazionatu zen; horietako batean (154), ez-ZGB taldean soilik pronostiko txarrarekin asoziatu zen. Hala ere, miR-222-3p (147,150,155,156) eta miR-155-5p (147,150,152,153,155,156,178,180) molekulek pronostikoarekin asoziariorik ez zutela ondorioztatu zuten lau eta zortzi ikerketek, hurrenez hurren, eta ikerketa batek emaitza kontraesankorrak aurkitu zituen miR-155 azpi-adierazpena zuten ZGB pazienteen OS eta PFSari dagokionez (194) (7. taula).

7. taula: Bi ikerketa baino gehiagotan BZHLHren pronostikoarekin lotura esangarria duten mikroRNAk.

mikroRNA esangarriak	Emaitza	n BZHLH	Lagin iturria	Metodoa	n mikroRNA	Erreferentzia
miR-222-3p	Altu: OS↓	176	FFPE	qRT-PCR	11	Alencar 2011
	Altu: PFS eta OS↓	36/240	FFPE	qRT-PCR/array	470/9	Montes-Moreno 2011
	Altu: OS eta PFS↓	106	FFPE	qRT-PCR	3	Malumbres 2009
	Altu: OS ez-ZGB-an ↓	74	Biopsia	qRT-PCR	1	Shanshan 2019
	NS	64	FFPE	Array	464	Lawrie 2009
		92	FF	sekuentziazioa	miRNAome	Lim 2015
		58	Biopsia	qRT-PCR	157	Roehle 2008
		83	FFPE	qRT-PCR/array	±900	Shepshelovich 2015
miR-155-5p	Altu: biziraupen baxuagoa	118	FF	qRT-PCR	1	Zhu 2016
	Altu: OS↓	79	FFPE	qRT-PCR	8	Iqbal 2015
	Baxu: PFS↑	90	FFPE	qRT-PCR	1	Zhong 2012
	Altu: PFS↓	82	FFPE	qRT-PCR	1	Wu 2018
	Baxu: OS eta PFS↓	array	Biopsia	qRT-PCR	Array	Due 2019
	NS	176	FFPE	qRT-PCR	11	Alencar 2011
		200	FFPE	qRT-PCR	3	Go 2015
		35	FFeta FFPE	qRT-PCR	3	Lawrie 2007
		64	FFPE	Array	464	Lawrie 2009
		92	FF	sekuentziazioa	miRNAome	Lim 2015
		106	FFPE	qRT-PCR	3	Malumbres 2009
		58	Biopsia	qRT-PCR	157	Roehle 2008
		83	FFPE	qRT-PCR/array	±900	Shepshelovich 2015

Laburdurak: FF: izoztutako ehuna; FFPE: formalinan finkatutako eta parafinan sartutako ehuna; OS: biziraupen globala; PFS: aurrerapenik gabeko biziraupena; EFS: gertaera gabeko biziraupena; RFS: berriz gaixotze gabeko biziraupena; Baxu: Berriz gaixotutako BZHLH pazienteetan azpi-adierazita; Altu: Berriz gaixotutako BZHLH pazienteetan gain-adierazita; NS: desberdintasun ez esangarriak berriz gaixotzen diren pazienteen eta epe luzeko hobekuntza dutenen artean.

MIKRORNA HAUTAGAIAK BALIOZKOTZEA IKERKETAKO POPULAZIOAN

Literaturan deskribatutako diagnostiko-ereduaren analisia ikerketako populazioan

Gure ikerketako populazioan literaturan hautemandako lau mikroRNA molekulak aztertu ziren, erregulazioan aldaketak zituztenak, diagnostikorako biomarkatzaile gisa kasuak baztertzeko duten gaitasuna berresteko.

8. taulan ikus daitekeenez, erregulazioan aldaketak zituzten mikroRNA guztiek antzeko adierazpen-ereduak zituzten ikerketako populazioan, literaturan behatutakoarekin alderatuz (miR-150-5p, padj = $1{,}44x10^{-22}$; miR-146a-5p, padj = $1{,}16x10^{-12}$; miR-155-5p, padj = $1{,}67x10^{-08}$; miR-21-5p, padj = $4{,}03x10^{-05}$).

8. taula: Literaturaren arabera BZHLHn erregulazioa aldatuta duten mikroRNAen adierazpen maila gure ikerketa populazioan.

mikroRNA	"Base Mean"	Log2 "Fold Change"	p-balioa	padj
hsa-miR-150-5p	6310,7	-3,22	$3{,}46x10^{-25}$	$1{,}44x10^{-22}$
hsa-miR-146a-5p	33085,6	2,11	$2{,}05x10^{-14}$	$1{,}16x10^{-12}$
hsa-miR-155-5p	20773,1	1,99	$7{,}26x10^{-10}$	$1{,}67x10^{-08}$
hsa-miR-21-5p	140750,7	1,11	$4{,}37x10^{-06}$	$4{,}03x10^{-05}$

Log2 "Fold change" positiboa edo negatiboa mikroRNAen gain-adierazpena edo azpi-adierazpena adierazten du BZHLH duten pazienteen eta osasuntsu kontrolen artean hurrenez hurren; "Base Mean": zenbaketa normalizatutako balioen batezbestekoa adierazten du, tamaina faktorearen arabera banatuta, lagin guztiak hartuta.

Literaturan deskribatutako azpimota-ereduaren analisia ikerketako populazioan

Gure ikerketako populazioan aztertu ziren literaturan hautemandako erregulazioan aldaketak zituzten lau mikroRNA molekulak, azpimotak detektatzeko biomarkatzaile gisa kasuak baztertzeko duten gaitasuna berresteko.

Lau mikroRNA molekuletatik batek bakarrik erakutsi du estatistikoki esangarriak diren ezberdintasunak gure populazioan (miR-28-5p, padj = 0,00342) (9. taula).

9. taula: Literaturaren arabera BZHLHren azpimotetan era esangarrian adierazitako mikroRNAen adierazpen maila gure ikerketa populazioan.

mikroRNA	"Base Mean"	Log2 "Fold Change"	p-balioa	padj
hsa-miR-28-5p	475,7	1,24	$3{,}85x10^{-05}$	0,00342
hsa-miR-222-3p	1897,9	-0,79	0,00456	0,09895
hsa-miR-221-3p	4859,2	-0,37	0,22993	0,55006
hsa-miR-155-5p	19078,2	0,12	0,74670	0,91329

Log2 "Fold change" positiboak mikroRNAen gain-adierazpena adierazten du ZGB azpimotan eta negatiboak ez-ZGB azpimotan gain-adierazpena; "Base Mean": zenbaketa normalizatuko balioen batezbestekoa adierazten du, tamaina faktorearen arabera banatuta, lagin guztiak hartuta.

Literaturan deskribatutako tratamenduari emandako erantzuna aurresateko ereduaren analisia ikerketako populazioan

Literaturan aurkitutako bost mikroRNAk ikerketa bakarrean aztertu zirenez, haiek gure populazioan zuten adierazpena aztertu genuen azaldutako emaitzak baliozkotu ahal zirela berresteko.

10. taulan ikus daitekeenez, batek ere ez du ezberdintasun esangarririk erakutsi adierazpenean, erremisio osoa duten eta errefraktarioak diren pazienteen artean.

10. taula: Literaturaren arabera BZHLHren tratamenduaren erantzunarekin erlazionatutako mikroRNAen adierazpen maila gure ikerketa populazioan.

mikroRNA	"Base Mean"	Log2 "Fold Change"	p-balioa	padj
hsa-miR-224-5p	47,7	0,72	0,11013	0,46446
hsa-miR-155-5p	20773,1	-0,49	0,20472	0,59557
hsa-miR-146a-5p	33085,6	-0,12	0,72557	0,91006
hsa-miR-34a-5p	759,4	-0,02	0,91785	0,97574
hsa-miR-27b-3p	14074,6	0,21	0,50219	0,50218

Log2 "Fold change" positiboak mikroRNAen gain-adierazpena adierazten du erremisio osa duten pazienteetan errefraktarioekin alderatuz eta negatiboak kontrakoa adierazten du; "Base Mean": zenbaketa normalizatutako balioen batezbestekoa adierazten du, tamaina faktorearen arabera banatuta, lagin guztiak hartuta.

Literaturan deskribatutako pronostiko-ereduaren analisia ikerketako populazioan

Gure ikerketako populazioan aztertu ziren literaturan hautemandako erregulazioan aldaketak zituzten bi mikroRNA molekulak, pronostikorako biomarkatzaile gisa kasuak baztertzeko duten gaitasuna berresteko.

MikroRNA horiek ez zuten ezberdintasun esangarririk erakutsi adierazpenean, gure populazioaren barruan berriro gaixotu diren eta epe luzeko erremisioa duten pazienteen artean (11. taula).

11. taula: Literaturaten arabera pronostikoarekin erlazionatutako mikroRNAen adierazpen maila gure ikerketa populazioan.

mikroRNA	"Base Mean"	Log2 "Fold change"	p-balioa	padj
hsa-miR-222-3p	1984,9	-0,08	0,77088	0,93065
hsa-miR-155-5p	20773,1	-0,03	0,92503	0,97641

Log2 "Fold change" positiboak mikroRNAen gain-adierazpena adierazten du epe luzeko erantzuna duten pazienteetan diagnonsiaren momentuan berriz gaixotzen direnekin alderatuz eta negatiboak kontrakoa adierazten du; "Base Mean": zenbaketa normalizatuko balioen batezbestekoa adierazten du, tamaina faktorearen arabera banatuta, lagin guztiak hartuta.

BZHLH-N KARAKTERISTIKOAK DIREN MIKRORNA MOLEKULEN SINADURA BERRIAREN IDENTIFIKAZIOA, RNA TXIKIEN SEKUENTZIAZIO BIDEZ

mikroRNA molekulen analisi osoa

Guztira 1584 mikroRNA identifikatu ziren mikroRNA molekulen sekuentziazio-analisia erabilita. Osagai nagusien analisia (PCA) egin zen mikroRNA guztien adierazpena kontuan hartuz, eta, hala, laginak bariantzaren arabera nola multzokatzen ziren ikusteko (9. irudia). Lehen osagaiak (PC1) sistemaren bariazioaren zatirik handiena erakusten du (azaldutako bariantza osoaren % 14,9); bigarrenari, berriz, bariantza osoaren % 5,7 dagokio. Horren ondorioz, PCA grafikoaren eskualde ezberdinetan kokatu ziren pazienteen laginak: guztiz sendatu direnak, errefraktarioak, berriro gaixotutakoak eta kontrolak. Antza denez, ezberdintasun gutxirekin multzokatzen dira guztiz sendatu diren laginak, errefraktarioak eta berriro gaixotutako pazienteen artean; kontrol taldeko laginak, berriz, guztiz bereizitako taldean multzokatzen dira.

PCA grafikoaren arabera, mikroRNA guztiak bistaratzean erraz bereiz zitezke BZHLH kasu gehienak kontroletatik. Beraz, BZHLH pazienteek mikroRNA molekulen adierazpen bereizgarria dute kontrol taldearekin alderatuz gero. BZHLH pazienteen azpitaldetan ez da ezberdintasun nabarmenik aurkitu tratamenduari emandako erantzunaren eta pronostikoaren arabera.



9. irudia: BZHLH pazienteen eta kontrolen arteko mikroRNAen adierazpenaren osagarri nagusien analisiaren irudikapen grafikoa.

Diagnostikoaren biomarkatzaileak

BZHLH diagnostikatzeko biomarkatzaile berriak izan daitezkeen hautagaien zerrenda lortzeko, mikroRNA bakoitzaren adierazpena konparatu zen BZHLHren diagnostikoa egitean hartutako 78 laginetan eta BZHLH ez zuten pertsonen gongoiletako 17 laginetan. BZHLH diagnostikatu zitzaien

pazienteen laginetan estatistikoki esangarria zen adierazpena 146 mikroRNA molekulek zutela aurkitu genuen kontrol-laginekin alderatuz gero (padj <0,05; log_2 "fold change" > 2/<-2). MikroRNA horietatik 122 gain-adierazita aurkitu ziren BZHLHn, eta 24 mikroRNA, berriz, azpi-adierazita. Eranskineko 5. eta 6. tauletan daude BZHLH pazienteetan gain edo azpi-adierazitako mikroRNA guztiak, kontrolarekin alderatuta (p < 0,05 eta log_2 "fold change"> 0). Gehien gain- edo azpi-adierazitako 20 mikroRNAk 12. eta 13. tauletan azaltzen dira.

12. taula: Gehien gain-adierazitako 20 mikroRNA BZHLH pazienteetan kontrolekin alderatuz.

MikroRNA	"Base Mean"	log2 "Fold Change"	p-balioa	p adj
hsa-miR-210-3p	842,9	3,51	$2,33x10^{-29}$	$1,45\ x10^{-26}$
hsa-miR-944	60,9	4,10	$2,19x10^{-23}$	$6,80\ x10^{-21}$
hsa-miR-12136	76,05	26,94	$3,64x10^{-20}$	$6,47\ x10^{-18}$
hsa-miR-3681-5p	75,3	5,16	$3,33x10^{-20}$	$6,47\ x10^{-18}$
hsa-miR-378i	24,9	3,01	$3,01x10^{-17}$	$4,16\ x10^{-15}$
hsa-miR-4454	183,4	2,35	$1,01x10^{-16}$	$1,04\ x10^{-14}$
hsa-miR-1291	354,7	4,02	$1,84x10^{-16}$	$1,76\ x10^{-14}$
hsa-miR-7974	111,8	3,46	$1,87x10^{-15}$	$1,45\ x10^{-13}$
hsa-miR-183-5p	891,1	3,40	$5,77x10^{-15}$	$3,59\ x10^{-13}$
hsa-miR-146a-5p	33085,5	2,11	$2,05x10^{-14}$	$1,16\ x10^{-12}$
hsa-miR-2467-5p	25,56	2,33	$7,35x10^{-14}$	$3,81\ x10^{-12}$
hsa-miR-4420	8,09	4,63	$2,02x10^{-13}$	$1,01\ x10^{-11}$
hsa-miR-1248	202,5	2,69	$1,03x10^{-12}$	$4,73\ x10^{-11}$
hsa-miR-18a-3p	54,06	2,05	$1,21x10^{-12}$	$5,36\ x10^{-11}$
hsa-miR-129-5p	25,1	4,62	$3,03x10^{-12}$	$1,22\ x10^{-10}$
hsa-miR-147b-3p	92,5	3,41	$3,78x10^{-12}$	$1,47\ x10^{-10}$
hsa-miR-3691-5p	6,6	2,59	$1,09x10^{-11}$	$3,88\ x10^{-10}$
hsa-miR-1246	4,6	4,47	$2,64x10^{-11}$	$8,86x10^{-10}$
hsa-miR-205-5p	67,1	6,11	$3,81x10^{-11}$	$1,22x10^{-09}$
hsa-miR-769-3p	21,5	2,53	$4,00x10^{-11}$	$1,25x10^{-09}$

Log2 "Fold change" positiboak mikroRNAen gain-adierazpena adierazten du BZHLH duten pazienteak eta osasuntsuak alderatuz; "Base Mean": zenbaketa normalizatutako balioen batezbestekoa adierazten du, tamaina faktorearen arabera banatuta, lagin guztiak hartuta.

13. taula: Gehien azpi-adierazitako 20 mikroRNA BZHLH pazienteetan kontrolekin alderatuz.

MikroRNA	"Base Mean"	log2"FoldChange"	p-balioa	padj
hsa-miR-215-5p	53,8	-4,42	$6{,}74 \times 10^{-35}$	$8{,}39 \times 10^{-32}$
hsa-miR-150-5p	6310,7	-3,22	$3{,}46 \times 10^{-25}$	$1{,}44 \times 10^{-22}$
hsa-miR-224-5p	47,7	-3,30	$5{,}11 \times 10^{-21}$	$1{,}27 \times 10^{-18}$
hsa-miR-194-5p	37,8	-4,33	$6{,}19 \times 10^{-17}$	$7{,}00 \times 10^{-15}$
hsa-miR-452-3p	7,2	-2,33	$2{,}10 \times 10^{-16}$	$1{,}87 \times 10^{-14}$
hsa-miR-335-5p	127,6	-2,74	$6{,}20 \times 10^{-16}$	$5{,}14 \times 10^{-14}$
hsa-miR-145-5p	2060,5	-2,16	$2{,}65 \times 10^{-15}$	$1{,}94 \times 10^{-13}$
hsa-miR-139-5p	48,8	-2,26	$5{,}40 \times 10^{-15}$	$3{,}57 \times 10^{-13}$
hsa-miR-497-5p	332,5	-2,07	$3{,}53 \times 10^{-14}$	$1{,}91 \times 10^{-12}$
hsa-miR-10a-3p	10,2	-2,29	$7{,}45 \times 10^{-12}$	$2{,}73 \times 10^{-10}$
hsa-miR-95-3p	18,1	-2,13	$3{,}79 \times 10^{-11}$	$1{,}22 \times 10^{-09}$
hsa-miR-151b	24,8	-2,21	$6{,}67 \times 10^{-10}$	$1{,}60 \times 10^{-08}$
hsa-miR-551b-3p	7,9	-2,25	$2{,}97 \times 10^{-09}$	$5{,}78 \times 10^{-08}$
hsa-miR-194-5p	234,5	-2,52	$4{,}25 \times 10^{-09}$	$8{,}01 \times 10^{-08}$
hsa-miR-135a-5p	4,3	-3,49	$1{,}92 \times 10^{-08}$	$3{,}07 \times 10^{-07}$
hsa-miR-549a-3p	1,6	-2,39	$2{,}28 \times 10^{-07}$	$3{,}02 \times 10^{-06}$
hsa-miR-549a-5p	3,4	-2,44	$4{,}93 \times 10^{-07}$	$5{,}96 \times 10^{-06}$
hsa-miR-451a	6085,0	-2,07	$4{,}55 \times 10^{-06}$	$4{,}16 \times 10^{-05}$
hsa-miR-670-3p	0,9	-2,72	$8{,}61 \times 10^{-06}$	$7{,}44 \times 10^{-05}$
hsa-miR-135a-3p	0,6	-2,46	$2{,}89 \times 10^{-05}$	0,00021

Log2 "Fold change" negatiboak mikroRNAen azpi-adierazpena adierazten du BZHLH duten pazienteak eta osasuntsuak alderatuz; "Base Mean": zenbaketa normalizatutako balioen batezbestekoa adierazten du, tamaina faktorearen arabera banatuta, lagin guztiak hartuta.

Azpimotak sailkatzeko biomarkatzaileak

ZGB diren 32 lagin eta ez-ZGB diren 21 laginen adierazpen-profilak aztertzean diagnostikoaren momentuan, adierazpen diferentziala duten zortzi mikroRNA aurkitu ziren (padj <0,05; $\log_2$"fold change" > 2/<-2). Haietatik bost gain-adierazita agertu ziren BZHLH ZGB pazienteetan (miR-129-2-3p, miR-4464, miR-3150b-3p, miR-138-5p eta miR-129-5p), eta beste hiru mikroRNA gain-adierazita zeuden BZHLH ez-ZGB azpimotetan (miR-511-5p, miR-205-5p eta miR-3652). Eranskineko 7. eta 8. tauletan daude BZHLH ZGB eta BZHLH ez-ZGB pazienteetan gain- eta azpi-adierazita dituzten mikroRNA molekulen emaitza guztiak.

14. taula: Modu esangarrian adierazitako mikroRNAk BZHLH ZGB eta ez-ZGB azpimoten artean

MikroRNA	"Base Mean"	log2 "FoldChange"	p-balioa	p adj
hsa-miR-129-2-3p	4,9	4,12	$1,50x10^{-06}$	0,00050
hsa-miR-4464	2,9	3,91	$1,21x10^{-05}$	0,00151
hsa-miR-3150b-3p	49,0	2,00	$1,90x10^{-05}$	0,00211
hsa-miR-138-5p	568,1	2,00	$9,92x10^{-05}$	0,00661
hsa-miR-129-5p	18,2	2,90	0,00014	0,00891
hsa-miR-511-5p	7,6	-2,01	$9,92x10^{-06}$	0,00142
hsa-miR-205-5p	20,3	-3,30	$4,10x10^{-05}$	0,00342
hsa-miR-3652	8,9	-2,44	0,00088	0,03137

Log2 "Fold change" positiboak mikroRNAen gain-adierazpena adierazten du BZHLH ZGB pazienteetan ez-ZGB pazienteekin alderatuz; "Base Mean": zenbaketa normalizatutako balioen batezbestekoa adierazten du, tamaina faktorearen arabera banatuta, lagin guztiak hartuta.

Tratamenduari emandako erantzunaren biomarkatzaileak

Hamaika mikroRNA (padj <0,05; $\log_2$ aldaketa > 2 or <-2) adierazi ziren modu esangarrian erremisio osoa zuten pazienteen (n = 50) eta paziente errefraktarioen (n = 12) diagnostikoko laginetan. Hamaika horietatik hamar gain-adierazita zeuden erremisio osoa zuten pazienteetan (miR-12136, miR-129-5p, miR-129-1-3p, miR-3150b-3p, miR-127-3p, miR-3681-5p, miR-370-3p, miR-4464, miR-129-5p eta miR-3928-3p), eta beste bat azpi-adierazita agertu zen (miR-192-5p) (15. Taula). Tratamenduari emandako erantzun on eta txarrekin erlazionatutako mikroRNA guztiak (p < 0,05) Eranskineko 9. eta 10. tauletan daude.

15. taula. Tratamenduari emandako erantzun on edo txarrarekin modu esangarrian erlazionatutako mikroRNAk.

MikroRNA	"Base Mean"	log2"Fold Change"	p-balioa	p adj
hsa-miR-12136	120,0	25,73	$1,29x10^{-13}$	$9,70x10^{-11}$
hsa-miR-129a-5p	42,7	5,09	$2,86x10^{-09}$	$1,08x10^{-06}$
hsa-miR-129-1-3p	7,4	4,08	$1,86x10^{-06}$	0,00035
hsa-miR-3150b-3p	50,7	2,33	$1,60x10^{-05}$	0,00241
hsa-miR-127-3p	3977,2	2,01	$6,14x10^{-05}$	0,00661
hsa-miR-3681-5p	75,3	2,34	0,00016	0,01507
hsa-miR-370-3p	16,1	2,59	0,00041	0,02380
hsa-miR-4464	3,3	3,55	0,00117	0,04641
hsa-miR-129b-5p	27,5	2,88	0,00102	0,04641
hsa-miR-3928-3p	16,5	2,03	0,00113	0,04641
hsa-miR-192-5p	10375,5	-2,41	$1,60x10-^{07}$	$4,01x10^{-05}$

Log2 "Fold change" positiboak mikroRNAen gain-adierazpena adierazten du erremisio osoa duten pazienteetan diagnosiaren momentuan errefraktarioekin alderatuz eta negatiboak kontrakoa adierazten du; "Base Mean": zenbaketa normalizatutako balioen batezbestekoa adierazten du, tamaina faktorearen arabera banatuta, lagin guztiak hartuta

Pronostikoaren biomarkatzaileak

Epe luzeko erremisioa zuten 50 paziente eta berriro gaixotu ziren 16 pazienteren mikroRNA molekulek diagnostikoa egiteko momentuan zuten adierazpena aztertu zen. Emaitzetan ikusi

zenez, epe luzeko erremisioa zuten pazienteetan zazpi mikroRNA (miR-4444, miR-449c-5p, miR-3681-5p, miR-3928-3p, miR-449b-5p, miR-370-3p eta miR-4424) gain-adierazita agertu ziren modu esangarrian (padj <0,05; log_2 aldaketa > 2). Bestalde, berriro gaixotu ziren pazienteetan lau mikroRNA (miR-133a-2-3p, miR-133a-1-3p, miR-208b-3p eta miR-205-5p) modu esangarrian gain-adierazita zeuden (padj <0,05; log_2 aldaketa< -2) (16. taula). Pronostiko on edo txarrarekin erlazionatutako mikroRNA guztiak (p < 0,05) Eranskineko 11. eta 10. tauletan daude.

16. taula. Pronostikoarekin modu esangarrian erlazionatutako mikroRNAk.

MikroRNA	"Base Mean"	log2"Fold Change"	p-balioa	p adj
hsa-miR-4444	10,3	2,25	$6,20x10^{-05}$	0,0089
hsa-miR-449c-5p	9,8	2,22	$4,75x10^{-05}$	0,0089
hsa-miR-3681-5p	75,3	2,03	0,00021	0,014
hsa-miR-3928-3p	16,5	2,02	0,00018	0,014
hsa-miR-449b-5p	7,23	2,22	0,00036	0,021
hsa-miR-370-3p	16,1	2,12	0,00071	0,029
hsa-miR-4424	110,8	2,32	0,0010	0,041
hsa-miR-133a-2-3p	470,9	-3,8	$1,53x10^{-06}$	0,001
hsa-miR-133a-1-3p	69,29	-2,52	$6,78x10^{-05}$	0,0089
hsa-miR-208b-3p	12,94	-3,08	0,00014	0,013
hsa-miR-205-5p	62,4	-3,36	0,0002	0,014

Log2 "Fold change" positiboak mikroRNAen gain-adierazpena adierazten du epe luzeko erantzuna duten pazienteetan diagnosiaren momentuan berriz gaixotzen direnekin alderatuz eta negatiboak kontrakoa adierazten du; "Base Mean": zenbaketa normalizatutako balioen batezbestekoa adierazten du, tamaina faktorearen arabera banatuta, lagin guztiak hartuta.

mikroRNA molekulen adierazpen-mailak biziraupenean duen inpaktua

Pazienteen biziraupen-kurba sortzeko diagnostikotik bost urteko PFS eta OS hartu ziren oinarritzat. Pazienteak adierazpen handiko eta txikiko taldetan banatu ziren, pronostiko onarekin erlazionatutako zazpi mikroRNAen batezbesteko adierazpenaren arabera: miR-4444 (2,83), miR-449c-5p (2,75), miR-3681-5p (4,98), miR-3928-3p (3,02), miR-449b-5p (2,75), miR-370-3p (2,73), miR-4424 (3,92); eta pronostiko txarrarekin erlazionatutako lau mikroRNAen arabera: miR-133a-1-3p (3,73), miR-133a-2-3p (3,83), miR-208b-3p (1,97), miR-205-5p (2,32).

Pronostiko onarekin erlazionatutako mikroRNA molekulen artean, ezberdintasun esangarriak ikusi ziren OS eta PFSetan, miR-4444 molekularen adierazpen altuaren eta baxuaren taldeen artean OSren p-balioa = 0,0169 eta PFSren p-balioa = 0,0162 (10. irudia). Horrez gain, pronostiko txarrarekin erlazionatu izan diren mikroRNAk kontuan hartuta, ezberdintasun esangarriak identifikatu genituen miR-205-5p molekularen adierazpen altua eta baxua zuten taldeen artean (p = 0,0444) (10. irudia).

Cox-en arrisku proportzionalen (Cox PH) aldagai anitzeko analisia egin genuen, mikroRNA horiek OS eta PFSrekin erlazionatuta zeuden jakiteko, BZHLH pazienteen bilakaera azaltzen duten bi adierazle finkatuekin (azpimota eta IPI) loturarik izan gabe. Analisi horien emaitzek erakutsi zutenez, miR-205-5p mikroRNA OS (p=0,02) eta PFS (p=0,02) txarragoekin zegoen asoziaturik, IPI eta azpimota edozein izanda ere.



10. irudia: Pronostikoarekin lotutako mikroRNAen biziraupen analisia

MikroRNA-mRNA INTERAKZIO-SAREAREN ANALISIA

Esperimentu bidez baliozkotutako ituak identifikatzea

Diagnostikoko analisian (BZHLH *vs* kontrolak) adierazpen aldakorra zuten eta esperimentu bidez baliozkotutako mikroRNA molekulen ituak, mirTarbase datu-basea erabilita identifikatu ziren. Esperimentu bidez baliozkotutako 482 itu identifikatu genituen, guztira, gure ikerketan gain-adierazita aurkitutako 122 mikroRNA molekuletarako. Azpi-adierazitako 25 mikroRNA molekulei dagokienez, berriz, 375 gene aurkitu ziren (11. irudia).

Adierazpen aldakorra zuten geneak identifikatzea BZHLHn

GEOn aurkitu eta DLCBL pazienteen datuak zituzten 15 ikerketetatik batek bakarrik erakusten zituen kontrol osasuntsuen datuak, eta hori dela eta, gure analisian sartzeko egokia suertatu zen (6. irudia). GSE56315 adierazpen-profilaren datu multzoak BZHLH zuten pertsonen 55 lagin eta pertsona osasuntsuen 33 lagin zituen. Gain-adierazitako 1918 gene eta azpi-adierazitako 4545 gene aurkitu ziren BZHLH zuten pazienteetan, kontrolerako banako osasuntsuekin alderatuz gero, GEOren datu multzoan.

Integrazioa, ohar funtzionalak eta seinale-bideen aberaste-analisiak

BZHLHn azpi-adierazitako geneen artean 138 gene izan ziren gain-adierazitako mikroRNAen ituak (Eranskineko 13. taula), eta BZHLHn gain-adierazitako geneetatik 76 izan ziren azpi-adierazitako mikroRNA molekulen itu (Eranskineko 14. taula) (11. irudia). Zenbait genek mikroRNA bat baino gehiagorekin interakzioak zituztela ikusi zen (17. taula eta 18. taula). Adibidez, *FOXO1*, *BCL2*, *GS3KB* eta *PTEN* geneak, BZHLHn azpi-adierazita zeudenak, hurrenez hurren, 7, 5, 5 eta 4 mikroRNAren itu dira.



11. irudia: a) BZHLHan azpi-adierazitako geneak eta gain-adierazitako mikroRNAen gainjartzea adierazten duen Venn diagrama. b) BZHLHan gain-adierazitako geneak eta azpi-adierazitako mikroRNAen gainjartzea adierazten duen Venn diagrama.

17. taula: Azpi-adierazitako itu geneekin elkarrekintzak erakusten dituzten gain-adierazitako mikroRNAk.

Gene ituak	mikroRNA
AKT2	hsa-miR-612; hsa-miR-2861
ALDH5A1	hsa-miR-210-3p; hsa-miR-147b
APC	hsa-miR-135a-5p; hsa-miR-663a; hsa-miR-129-5p
BCL2	hsa-miR-7-5p; hsa-miR-182-5p; hsa-miR-205-5p; hsa-miR-135a-5p; hsa-miR-9-5p
CCND2	hsa-miR-182-5p; hsa-miR-146a-5p
CDK6	hsa-miR-129-5p; hsa-miR-320a
CREB1	hsa-miR-182-5p; hsa-miR-9-5p
CXCR4	hsa-miR-146a-5p; hsa-miR-9-5p; hsa-miR-663a; hsa-miR-146a-3p
ELAVL1	hsa-miR-9-5p; hsa-miR-146a-5p
EZR	hsa-miR-183-5p; hsa-miR-205-5p
FBXW7	hsa-miR-182-5p; hsa-miR-182-3p; hsa-miR-155-3p
FOXO1	hsa-miR-182-5p; hsa-miR-183-5p; hsa-miR-183-5p; hsa-miR-9-5p; hsa-miR-9-3p; hsa-miR-135a-5p; hsa-miR-135a-5p
FOXO3	hsa-miR-182-5p; hsa-miR-9-5p
GSK3B	hsa-miR-183-5p; hsa-miR-182-5p; hsa-miR-9-5p; hsa-miR-129-1-3p; hsa-miR-1246
HES1	hsa-miR-9-3p; hsa-miR-9-5p
HIF3A	hsa-miR-210-3p; hsa-miR-147a
IGF2BP3	hsa-miR-9-5p; hsa-miR-129-5p
ITGB1	hsa-miR-183-5p; hsa-miR-9-3p
MAPK1	hsa-miR-320a; hsa-miR-9-3p; hsa-miR-129-5p
MTSS1	hsa-miR-182-5p; hsa-miR-135a-5p
NOTCH1	hsa-miR-129-5p; hsa-miR-9-5p; hsa-miR-146a-5p
PTEN	hsa-miR-182-5p; hsa-miR-155-3p; hsa-miR-205-5p; hsa-miR-320a
RAC1	hsa-miR-320a; hsa-miR-146a-5p
RECK	hsa-miR-182-5p; hsa-miR-183-5p
ROCK1	hsa-miR-146a-5p; hsa-miR-135a-5p
RUNX2	hsa-miR-205-5p; hsa-miR-320a; hsa-miR-135a-5p
SIAH1	hsa-miR-135a-5p; hsa-miR-944
SMAD4	hsa-miR-146a-5p; hsa-miR-182-5p; hsa-miR-205-5p; hsa-miR-183-5p
SOX2	hsa-miR-1181; hsa-miR-146a-5p
SP1	hsa-miR-129-5p; hsa-miR-612
TGFB1	hsa-miR-663a; hsa-miR-146a-5p
TP53	hsa-miR-612; hsa-miR-663a; hsa-miR-155-3p
YY1	hsa-miR-7-5p; hsa-miR-205-5p

18. taula: Gain-adierazitako itu geneekin elkarrekintzak erakusten dituzten azpi-adierazitako mikroRNAk.

Gene ituak	mikroRNA
BCL2	hsa-miR-451a; hsa-miR-497-5p; hsa-miR-135a-5p; hsa-miR-224-5p; hsa-miR-139-5p
CD44	hsa-miR-216a-5p; hsa-miR-145-5p
CDH2	hsa-miR-194-5p; hsa-miR-145-5p
CEBPD	hsa-miR-95-3p; hsa-miR-135a-5p
EGFR	hsa-miR-145-5p; hsa-miR-135a-5p
KLF4	hsa-miR-145-5p; hsa-miR-135a-5p
KRAS	hsa-miR-217; hsa-miR-224-5p
MTDH	hsa-miR-145-5p; hsa-miR-217
PTEN	hsa-miR-217; hsa-miR-216a-5p
SMAD4	hsa-miR-483-3p; hsa-miR-224-5p
STAT1	hsa-miR-145-5p; hsa-miR-150-5p
VEGFA	hsa-miR-145-5p; hsa-miR-150-5p
ZEB2	hsa-miR-215-5p; hsa-miR-335-5p

Bestalde, mikroRNA batzuek hainbat iturekin interakzioak dituztela ikusi zen (19. taula eta 20. taula). Adibidez, litekeena da miR-9-5p molekula ia 25 itu-generen azpi-adierazpenean parte

hartzea, eta miR-146a-5p eta miR-182-5p, berriz, BZHLHn azpi-adierazitako 24 eta 20 gene artean erregulatuko lituzkete hurrenez hurren.

19. taula: Gain-adierazitako mikroRNAekin elkarrekintzak erakusten dituzten azpi-adierazitako itu geneak.

mikroRNA	Gene ituak
hsa-miR-1181	*SOX2; STAT3*
hsa-miR-1246	*GSK3B; DYRK1A; PRKAR1A*
hsa-miR-129-1-3p	*GSK3B; PDCD2*
hsa-miR-129-5p	*APC; CDK6; IGF2BP3; MAPK1; NOTCH1; SP1; FNDC3A; PDPK1; SOX4*
hsa-miR-135a-5p	*APC; BCL2; FOXO1; MTSS1; ROCK1; RUNX2; SIAH1; BMPR2; KLF8; RBAK*
hsa-miR-141-5p	*SPAG9; WNK1*
hsa-miR-146a-5p	*CCND2; CXCR4; ELAVL1; NOTCH1; RAC1; ROCK1; SMAD4; SOX2; TGFB1; BCLAF1; BRCA2; CNOT6L; CPM; FAF1; FANCM; HOXD10; IRAK2; NFAT5; PRKCE; RHOA; SIKE1; SOS1; STAT1; WASF2*
hsa-miR-147a	*HIF3A; PSMA3*
hsa-miR-155-3p	*FBXW7; PTEN; TP53*
hsa-miR-182-3p	*FBXW7; STAT5B*
hsa-miR-182-5p	*BCL2; CCND2; CREB1; FBXW7; FOXO1; FOXO3; GSK3B; MTSS1; PTEN; RECK; SMAD4; ATF1; CYLD; FLOT1; RARG; TP53BP1; TP53INP1; TRIM8; TSC22D3; ZFAND4*
hsa-miR-183-5p	*EZR; FOXO1; GSK3B; ITGB1; RECK; SMAD4; BTRC; EGR1; PPP2CB*
hsa-miR-18a-3p	*ATM; KRAS*
hsa-miR-19b-1-5p	*CASP8; FGFR2*
hsa-miR-205-5p	*BCL2; EZR; PTEN; RUNX2; SMAD4; YY1; ACSL4; CCNJ; E2F5; EGLN2; IL24; LMNA; SRC*
hsa-miR-208b-3p	*CACNB2; QKI*
hsa-miR-210-3p	*ALDH5A1; HIF3A; FOXN3; FOXP3; INPP5A; MNT; PTBP3; PTPN1; PTPN2; RAD52; XIST*
hsa-miR-944	*SIAH1; PTP4A1*
hsa-miR-320a	*CDK6; MAPK1; PTEN; RAC1; RUNX2; ARPP19; CTNNB1; ITGB3; MCL1; MTDH; NFATC3; SUZ12; YWHAZ*
hsa-miR-612	*AKT2; SP1; TP53*
hsa-miR-663a	*APC; CXCR4; TGFB1; TP53; JUND*
hsa-miR-7-5p	*BCL2; YY1; BAX; CUL5; ILF3; KMT5A; MSH3; PIK3CG; REL; SKP2; SNCA; XIAP*
hsa-miR-9-3p	*FOXO1; HES1; ITGB1; MAPK1; DLG1; DMD; TUG1*
hsa-miR-9-5p	*BCL2; CREB1; CXCR4; ELAVL1; FOXO1; FOXO3; GSK3B; HES1; IGF2BP3; NOTCH1; TGFBR2; AP3B1; BCL2L11; CAMKK2; CUL4A; DICER1; DRD2; ETS1; FOXP1; MALAT1; MTHFD1; POU2F2; PRKAA1; RAP2A; REST*

20. taula: Azpi-adierazitako mikroRNAekin elkarrekintzak erakusten dituzten gain-adierazitako itu geneak.

mikroRNA	Gene ituak
hsa-miR-135a-5p	*BCL2; CEBPD; EGFR; KLF4; APC; BMPR2; HOXA10; MTSS1*
hsa-miR-139-5p	*BCL2; ACTC1; ADGRL4; FAM162A; RHOT1*
hsa-miR-145-5p	*CD44; CDH2; EGFR; KLF4; MTDH; STAT1; VEGFA; ABHD17C; APH1A; CD28; EPAS1; FZD7; ITGB8; JAG1; MEST; MMP1; MMP12; MYO5A; MYO6; MYOCD; PARP8; RREB1; SERINC5; SERPINE1; SPTLC1; SRGAP1; YES1*
hsa-miR-150-5p	*STAT1; VEGFA; PRKCA; SRCIN1*
hsa-miR-194-5p	*CDH2; CHD1; HBEGF; IL10; ITGA9; ITSN1; PTPN12; SOCS2*
hsa-miR-215-5p	*ZEB2; NID1; WNK1*
hsa-miR-216a-5p	*CD44; PTEN; CEMIP*
hsa-miR-95-3p	*CEBPD; CELF2*
hsa-miR-217	*KRAS; MTDH; PTEN; NR4A2; PTPN14; ROBO1*
hsa-miR-224-5p	*BCL2; KRAS; SMAD4; AP2M1; DPYSL2; EDNRA; TRIB1*
hsa-miR-335-5p	*ZEB2; BRCA1; ID4; MERTK; PLAUR; SOX4; TCEAL9; TNC*
hsa-miR-451a	*BCL2; MIF; MMP2; MMP9*
hsa-miR-483-3p	*SMAD4; DLC1; IGF1*
hsa-miR-497-5p	*BCL2; CHEK1; Reck*

Xehetasun biologiko gehiago bilatu nahian, gene-ontologia (GO) aberaste-analisia egin zen PANTHER programa erabilita. Bi talde funtzionaletan sailkatu ziren adierazpen diferentziala zuten geneak (DEG): funtzio molekularraren eta proteina-klasearen arabera. Gain-adierazita zeuden mikroRNAekin interakzioak zituzten gain-adierazitako 138 geneetan, gehien aberastutako funtzio molekularrak proteinekiko lotura (77 gene), jarduera katalitikoa (44 gene) eta funtzio molekularraren (41 gene) erregulatzaileak izan ziren (12.a irudia). Proteina-klaseen analisiari dagokionez, geneekiko espezifikoa den transkripzio-erregulatzaileak (24 gene), proteinak eraldatzeko entzimak (24 gene) eta azido nukleikoaren metabolismoko proteinak (12 genes) izan ziren aberastuenak (12.b irudia).



12. irudia: Gain-adierazitako mikroRNAekin elkarrekintzak erakusten dituzten eta azpi-adierazitako itu geneen aberaste-analisia.

Azpi-adierazitako mikroRNA molekulekin interakzioak zituzten gain-adierazitako 76 geneetan, gehien aberastutako funtzio molekularrak proteinekiko loturak (32 gene), jarduera katalitikoa (27 gene) eta funtzio molekularraren erregulatzaileak (18 gene) izan ziren baita (13.a irudia). Proteina-klaseen analisiari dagokionez, proteinak eraldatzeko entzima (14 gene), geneekiko espezifikoa den transkripzio-erregulatzaileak (12 gene), proteinak eraldatzeko entzima eta mintzean zeharreko seinale-hartzailea (8 gene) izan ziren aberastuenak (13.b irudia).

a) PANTHER: Funtzio molekularra
Gene totala: 78



b) PANTHER: Proteina klasea
Gene totala: 78



13. irudia: Azpi-adierazitako mikroRNAekin elkarrekintzak erakusten dituzten eta gain-adierazitako itu geneen aberaste-analisia.

Itu-gene esangarriak dituzten mikroRNAek eragin dezaketen bidezidorrak ebaluatzeko, bidezidorrak aberasteko analisia egin zen *ConsensusPathDB* web-tresna erabilita. Azpi-adierazitako eta gain-adierazitako itu-geneen hamar bide esangarrietatik, minbiziko bideak maiz agertu ziren bi kasuetan (p-balioa $3{,}98 \times 10^{-23}$ eta $1{,}75 \times 10^{-09}$, hurrenez hurren) (21. taula eta 22. taula) (ikus 14. irudia). Bide horietan, gain-adierazitako mikroRNAek 38 gene izan zituzten itu (Eranskineko 15. taula), eta azpi-adierazitako mikroRNAek, berriz, 17 gene izan zituzten itu (Eranskineko 16. taula). Minbiziko bidean gain- eta azpi-adierazitako geneen ituak Eranskineko 17 eta 18. tauletan azaltzen dira. Are gehiago, hamar biderik esangarrienetan, FoxO seinale-bidea, tirosina kinasaren hartzaileen bidezko seinaleztapena eta PI3K-Akt seinale-bideak asko agertu ziren azpi-adierazitako itu-geneetan (21. taula). Gain-adierazitako itu-geneen kasuan, hamar biderik nabarmenetan asko adierazi zen tirosina kinasen hartzaileen bidearen bidezko seinaleztapena, 14 gene itu dituelarik (22. taula).



14. irudia: Minbizi bidezidorreko geneak eta haien itu diren gain-adierazitako eta azpi-adierazitako mikroRNAk (KEGG datu basetik egokitua)

21. taula: Azpi-adierazitako itu geneentzako gehien aberastutako 10 bidezidorrak.

Bidezidorraren izena	Tamaina	Kandidatuak	p-balioa	q-balioa	Bidezidor iturria
Minbiziaren bidezidorrak - Homo sapiens	526	38 (7,2%)	$3,98x10^{-23}$	$2,93x10^{-20}$	KEGG
Minbizi kolorrektala - Homo sapiens	86	17 (19,8%)	$5,11x10^{-18}$	$1,88x10^{-15}$	KEGG
Gaixotasunaren seinale transdukzioa	248	24 (9,7%)	$1,54x10^{-17}$	$3,8x10^{-15}$	Reactome
Minbizian eragile diren miRNAk - Homo sapiens	299	25 (8,4%)	$1,01x10^{-16}$	$1,87x10^{-14}$	KEGG
B Hepatitisa - Homo sapiens	144	18 (12,5%)	$2,52x10^{-15}$	$3,72x10^{-13}$	KEGG
Gaixotasuna	510	29 (5,7%)	$6,92x10^{-15}$	$8,51x10^{-13}$	Reactome
FoxO bidezidorraren seinaleztapena - Homo sapiens	132	17 (13,0%)	$8,35x10^{-15}$	$8,81x10^{-13}$	KEGG
AGE-RAGE bidezidorraren seinaleztapena konplikazio diabetikoetan - Homo sapiens	99	15 (15,2%)	$3,29x10^{-14}$	$3,04x10^{-12}$	KEGG
Tirosina kinasa hartzaile bidezko seinaleztapena	423	26 (6,1%)	$3,83x10^{-14}$	$3,14x10^{-12}$	Reactome
PI3K-Akt seinaleztapen bidezidorra - Homo sapiens	354	24 (6,8%)	$4,63x10^{-14}$	$3,33x10^{-12}$	**KEGG**

22. taula: Gain-adierazitako itu geneentzako gehien aberastutako 10 bidezidorrak.

Bidezidorraren izena	Tamaina	Kandidatuak	p-balioa	q-balioa	Bidezidor iturria
Minbizian eragile diren miRNAk - Homo sapiens	299	15 (5,0%)	$4,38x10^{-11}$	1,42x10-08	KEGG
EGFR Transaktibazioa gastrina bidez	10	5 (50,0%)	$9,69x10^{-10}$	1,53x10-07	Reactome
Minbiziaren bidezidorrak - Homo sapiens	526	17 (3,2%)	$1,75x10^{-09}$	1,53x10-07	KEGG
Maskuriko minbizia - Homo sapiens	41	7 (17,1%)	$1,88x10^{-09}$	1,53x10-07	KEGG
Proteoglikanoak minbizian - Homo sapiens	201	11 (5,5%)	$9,01x10^{-09}$	5,84x10-07	KEGG
Gastrin-CREB seinaleztapen bidezidorra PKC eta MAPK bidez	19	5 (26,3%)	$4,3x10^{-08}$	2,05x10-06	Reactome
Tirosina kinasa hartzaile bidezko seinaleztapena	423	14 (3,3%)	$4,44x10^{-08}$	2,05x10-06	Reactome
AGE-RAGE seinaleztapen bidezidorra konplikazio diabetikoetan - Homo sapiens	99	8 (8,1%)	$5,46x10^{-08}$	2,21x10-06	KEGG
SHC1 gertaerak ERBB2 seinaleztapenean	22	5 (22,7%)	$9,63x10^{-08}$	3,32x10-06	Reactome
Seinaleztapena SCF-KIT bidez	43	6 (14,0%)	$1,02x10^{-07}$	3,32x10-06	Reactome

mikroRNA-mRNA interakzio-sarearen analisiaren estrategiaren proteina-proteina interakzioen sarea (PPI) eraikitzea izan zen. Analisi honetarako, alde batetik, miR-205 erregulatzen eta adierazpen aldakorra zuten geneak miR-205en mikroRNA–itu mRNA interakzio-sarea sortzeko erabili ziren. Bestalde, baliozkotutako 36 ituak erabili ziren elkarrekintzak identifikatzeko mirTarbase datu basea erabiliz (15. irudia). Interakzio sarea, miR-205rekin eraiki zen soilik, izan ere, miR-205-5p erlazioa erakutsi zuen OS eta PFS txarragoekin, IPI eta azpimota edozein dela ere. Mailarik altuena zuten bi nodoak *ERBB3* eta *PTEN* izan ziren.



15. irudia: miR-205ren 36 itu geneen proteina-proteina interakzio sarea.

EZTABAIDA

Ikerketa honen lehenengo helburua, BZHLH diagnostikatzeko, sailkatzeko, haren pronostikoa egiteko eta tratamenduari emandako erantzuna neurtzeko balio duten mikroRNA molekulen sorta zehaztea izan zen. Horretarako, BZHLHrako esangarriak ziren mikroRNA molekulen sinadura berria identifikatzea erabaki zen, diagnostikoa, azpimotak karakterizatzeko eta tratamenduari emandako erantzuna hobetzeko. Helburu hori betetzeko, berrikuspen sistematikoa egin genuen BZHLHrako biomarkatzaile gisa proposatutako mikroRNAk identifikatzeko eta espainiar populazioan mikroRNA bibliografiko horiek balioztatu genituen. Ondoren, mikroRNA sinadura berri bat proposatu genuen RNA txikien sekuentziazioaren teknikaren emaitzak erabiliz. BZHLHren patogenesian mikroRNA molekulen ekintza-mekanismoa ikertzea zen bigarren helburua; horretarako, mikroRNA-mRNA interakzio-sarea eraiki genuen. Horren bidez, BZHLHren mekanismo patologikoak hobeto ulertu ahal izango dira, eta biziraupen-tasak hobetu.

LITERATURAN DESKRIBATUTAKO MIKRORNA POTENTZIALAK HAUTATZEA B ZELULA HANDIETAKO LINFOMA HEDATSUAN

Egungo literaturaren analisi sakona egin genuen BZHLH duten pazienteen diagnostikorako, azpimotak karakterizatzeko, tratamenduari emandako erantzuna eta pronostikoa aurreikusteko garaian tumore-biopsietan mikroRNA molekulen adierazpenak biomarkatzaile gisa izan dezakeen funtzioari buruz.

BZHLHn mikroRNAk diagnostikorako biomarkatzaile izateko egokitasunari dagokionez, 33 artikulu aurkitu ziren. Bi ikerketa baino gehiagotan bat egiten zuten emaitzekin, BZHLH pazientetan azpi-adierazita zeuden hiru mikroRNA identifikatu ziren (miR-155-5p (145,147,167,170,174,176,178–181), miR-21-5p (145,161,171,174,178,180,183) eta miR-146a-5p (140,146,154). Horietatik miR-155-5p eta miR-21-5p molekulek dituzte emaitzarik sendoenak, ikerketa gehienetan ikusi denez, gain-adierazita daude BZHLH pazienteetan.

MiR-155-5p gehien aztertutako mikroRNA izan zen. Aipatu diren ikerketetatik hamarretan, BZHLH pazienteetan gain-adierazita zegoela detektatu zen (145,147,167,170,174,176,178–181), eta beste bi ikerketetan ez zen erlazio nabarmenik aurkitu (149,150). MiR-155-5p eta BZHLHren arteko lotura nabarmenik aurkitu ez dituzten bi ikerketetatik batek zuen guztietan lagin-tamainarik txikiena (19 paziente) (149), eta beste azterketak irizpide zorrotzagoak jarraitu zituen estatistikoki esangarriak ziren loturak detektatzeko (150). Gure baliozkotze-ikerketak ere BZHLH laginetan mikroRNA hau gain-adierazita dagoela berresten du, eta horrek argi erakusten du mikroRNA horren adierazpena gaitzaren biomarkatzaile egokitzat jo daitekeela. Emaitza horrekin bat eginez, aurretik egindako ikerketek proposatu dute miR-155 onko-miR bat izan daitekeela, tumore askotan aktibatzen baita horren adierazpena (esaterako, prostata-minbizian, bularreko minbizian eta beste tumore batzuetan, batez ere ehun linfatikoari eragiten dietenetan) (197–199). BZHLHren bereizgarriak diren geneak (hala nola *SOSC* eta *SHIP1*) daude mikroRNA horren itu baliozkotuen artean, eta datu hori proposatu da molekulak BZHLHn duen inplikazioa azaltzeko (200).

Bestalde, bederatzi ikerketa independentetan aztertu zen miR-21-5p molekularen erregulazioa; BZHLH pazienteetan nabarmenki emendatuta zegoela ikusi zuten zazpi ikerketetan (157–

159,161,164,165,170,173,176,179), baina beste bi ikerketetan ez zen asoziazio estatistiko esangarririk aurkitu (147,150). Gure baliozkotze-ikerketan ere mikroRNA horren gehiegizko adierazpena berretsi zen. BZHLH pazienteetan mikroRNA horren gain-erregulazioak gaitzean funtzioren bat bete dezakela adierazten du. Behaketa horrekin bat eginez, miR-21 molekula minbizi gehienetan erregulatu gabe dagoela aurkitu da (kolon eta ondesteko minbizian, adibidez), eta onkogene gisa funtzionatzen duela (201). Oro har, miR-21 molekula onko-miR gisa hartzen da, hainbat fosfatasaren adierazpena inhibitzen baitu —*PDCD4* (*Programmed Cell Death 4*) eta PTEN (*Phosphatase and Tensin Homolog*)—, eta AKT eta MAPK seinaleztapen bidezidorren jarduera kontrolatzen baitu (202); horrekin azal liteke BZHLHn duen funtzioa.

Bestalde, miR-150-5p molekulak emaitza kontraesankorrak ditu. Lau ikerketetan, BZHLH pazienteetan azpi-adierazita zegoen (145–148), eta beste ikerketa batean gain-adierazita (149). Gainerako ikerketan, berriz, ez zen lotura esangarririk aipatu (150). Hala ere, mikroRNA gain-adierazita aurkitu zuen *Hans et al.*-en ikerketaren lagin-tamaina txikiak azal lezake kontraesan hori (BZHLH pazienteak n = 12 eta kontrolak n = 7), lagin-tamaina horrek fidagarriak ez diren emaitzak eman baititzake. Are gehiago, mikroRNA hori izan da azpi-adierazitako mikroRNAetatik bigarren emaitzarik deigarriena gure baliozkotze-populazioan. Gainera, mikroRNA horren funtzio garrantzitsuaren alde egiten dute egindako *in vitro* ikerketek. Frogatu da miR-150 gain-adierazpenak zelulen proliferazioa murrizten duela eta apoptosia induzitzen duela NK/T-zelulen linfoma-lerroetan (203). Halaber, miR-150 *MYB* itu duen hematopoiesi arruntaren erregulatzaile garrantzitsua dela jakinarazi da (204). Horrenbestez, hematopoiesian duen oinarrizko funtzioa dela eta, erraz ondoriozta daiteke miR-150 molekulak tumore-ezabatzaile orokor gisa funtziona dezakela BZHLHn.

Hogeita bi ikerketetan aztertu da mikroRNA molekulek BZHLH azpimotetan sailkatzeko duten erabilgarritasuna. Erregulatu gabeko lau mikroRNA aurkitu ziren, guztira, bi ikerketa baino gehiagotan (miR-155-5p (145,150,155,178–181,187,192,194), miR-221-3p (150,151,155,180), miR-222-3p (150,151,155) eta miR-28-5p (150,151,187,191)). Hala ere, miR-222-3p eta miR-28-5p emaitza kontraesankorrak eman zituzten, ez baitaude BZHLHren sailkapenarekin era esangarrian erlazionatuta lau ikerketetan lehena (145,147,187,191) eta bi ikerketetan bigarrena (145,155)). Gure populazioan azpimarratzekoa da baliozkotu ahal izan dugun mikroRNA bakarra miR-28-5p izan dela, eta, horregatik, ezin dugu kanpoan utzi molekula horrek biomarkatzaile izateko duen aukera. Litekeena da BZHLH paziente batzuen azpimotaren sailkapena GAP edo IHK bidez egin izanagatik agertzea desadostasunak; izan ere, zaila da ikerketak konparatzea, aldakortasun handia baitago IHK tindagaiak (errepikakortasun zaila) eta interpretazioak egiterakoan. Kasu honetan, miR-155-5p eta miR-221-3p mikroRNAek erakutsi dituzte emaitzarik sendoenak. Hamaika ikerketetatik hamarretan, miR-155-5p gain-adierazita aurkitu zen ez-ZGB azpitaldean. Loturarik aurkitu ez zuen ikerketan, IHK erabili zen azpimotak sailkatzeko, eta betebehar zorrotzagoak zituen adierazpen diferentziala zuten mikroRNA molekulentzat (199). Emaitza horrekin bat eginez, gure baliozkotze-ikerketan (zeinean IHK erabilita sailkatu baitziren laginak) ez genuen ezberdintasunik aurkitu miR-155-5p molekularen adierazpenean ZGB eta ez-ZGB azpimotak alderatzean. Horrek adieraz lezake sailkapenen desberdintasunak mikroRNA horren adierazpenari eragiten diotela. Bestalde, miR-221-3p gain-adierazita agertu zen ez-ZGB azpitaldean, molekula hori aztertu zen sei ikerketetatik lautan. Gure baliozkotze-ikerketan, ordea, ez genuen ezberdintasun esangarririk aurkitu haren adierazpenean. Lehen aipatu dugun

eztabaida kontuan hartuz gero, biomarkatzaile gisa duen erabilgarritasuna zalantzan jartzen da azpimotak sailkatzeko.

R-CHOP tratamenduari emandako erantzuna aurresateko biomarkatzaile gisa balio izan dezaketen mikroRNAei dagokienez, bost ikerketa aurkitu ziren eta haietan ez da adostasunik lortu kontuan hartu ditugun mikroRNA molekulen inguruan (148,175,176,179,190). Gain-adierazitako mikroRNAen artean, miR-27-3p (148), miR-34a-5p (176) eta miR-224-5p (175) kimiosentikortasunarekin erlazionatu ziren, eta miR-155-5p eta miR-146-5p (179), berriz, kimioerresistentziarekin (Eranskineko 3. taula). Behin behineko-emaitza hauek berresteko ikerketa gehiago egin behar badira ere, gure baliozkotze-ikerketak ez du mikroRNA horiek R-CHOP tratamenduari emandako erantzuna aurresateko biomarkatzaile gisa duten balioaren alde egiten.

Azkenik, mikroRNAk BZHLHren pronostikoan duten inplikazioa 20 ikerketetan aztertu zen, eta 50 mikroRNA esangarri aurkitu ziren. (147,148,150–156,167,172,173,175,177–180,184,186,187,190,193–196). Horien artean, miR-222-3p (151–154) eta miR-155-5p (167,179,187,195) molekulen adierazpena pronostikoarekin erlazionatuta zegoela ikusi zen, bi ikerketa baino gehiagotan bat zetozen emaitzak aurkezten zituzten. Gainera, ez-ZGB azpitaldean bilakaerarik txarrenarekin erlazionatu zen miR-155-5p molekula (154). Hala ere, mikroRNA horiek ikerketa askotan aztertu izan dira, gure baliozkotze-ikerketa barne, eta haietan ez zen inolako loturarik aurkitu pronostikoarekin. Horrek esan nahi du aztertutako mikroRNA bat ere ezin dela finkatu pronostikoaren markatzaile fidagarri gisa. Azpimarragaria da ikerketa gehienek ez zutela tratamendu-erregimen espezifikoa adierazi. Parametro hori garrantzi handikoa da pronostikoaren biomarkatzaileak bilatzeko orduan, tratamendu-erregimen espezifikoarekiko menpe baitago pronostikoa.

Hainbat muga aurkitu ziren berrikuspen sistematiko hau egiteko garaian. Alde batetik, lanean sartutako ikerketek heterogeneotasun handia zuten laginen iturriari, erabilitako kontrol motei eta adierazpen-analisirako metodologiari dagokionez. Metodologien aldakortasun hori izan daiteke azterketen artean dauden ezberdintasunen jatorria. Berrikuspen batean ezberdintasun horien eragina zehaztea zaila denez, garrantzitsua litzateke etorkizunean egiten diren ikerketetarako ikerketa-metodologia bateratu eta estandar bat izatea, erreplikatzeko gaitasuna eta ikerketen arteko alderaketak errazte aldera.

Horrez gain, ikerketa batetik bestera esangarritasun estatistikorako mugako balioa ezberdina izatea ere heterogeneotasun-iturri izan daitekeela uste dugu. Are gehiago, estatistikoki esangarriak diren emaitzak soilik argitaratzeko joera dago, eta horrek alborapena eragiten du emaitzetan. Argitaratutako literaturan dauden muga horiek guztiek trinkotasun eza areagotzen dute emaitza askotan, eta, hala, zaildu egiten du BZHLHn biomarkatzaile gisa aztertutako mikroRNA batzuen funtzioari buruz ondorio nagusi batzuk ateratzea.

Azkenik, ikerketetan mikroRNA hautapena hartu dira kontuan, eta horrek konpara daitekeen emaitza kopurua mugatzen du; gainera, hobe ezagutzen diren mikroRNA molekuletan kokatzen du eztabaida, beste mikroRNA batzuk alde batera utzita. Horrenbestez, beharrezkotzat jotzen dugu mikroRNA multzo zabalago batekin egindako eskala handiko ikerketak egitea, hurrengo belaunaldiko sekuentziazioa eta antzeko teknikak erabilita, BZHLHn biomarkatzaile gisa erabiltzeko aukera duten mikroRNAk sakonago eta alborapen gabe identifikatzeko.

MIKRORNA MOLEKULEN ADIERAZPENAREN SINADURA BZHLH-N RNA TXIKIEN SEKUENTZIAZIOAN OINARRITUTA

Literaturaren berrikuspen sistematikoari esker identifikatutako mugak kontuan hartuta, BZHLHn mikroRNA molekulen sinadura berria definitzeko ikerketa egitea erabaki genuen. Horretarako, RNA txikien sekuentziazio osoa erabili genuen. Sekuentziazio osoaren bidez, mikroRNA molekulen adierazpen-profilak lortzen dira, bai lehendik deskribatutakoenak bai hautagai berrienak. Hautagai horiek ez dira sartu beste ikerketetan, zeinetan "*microarray*" eta alderantzizko transkripzioaren PCR kuantitatiboa (RT-qPCR) teknologiak erabili baitira gehien.

MikroRNAen adierazpenaren sinadura BZHLH diagnostikatzeko

BZHLH laginetan eta kontrol-laginetan mikroRNA molekulek duten adierazpena konparatzerakoan behatu ziren ezberdintasunik handienak talde batetik bestera. Identifikatutako mikroRNA guztien adierazpenak kontuan hartuta bereizketa garbia dagoela kontrol-taldearen laginen eta BZHLH laginen artean erakusten du PCA grafikak (9. irudia). Horrek esan nahi du BZHLH laginen eta kontrol-laginen mikroRNA profilak oso ezberdinak direla. PCA egitean taldeetako mikroRNA profiletan ezberdintasun handiak agertzeaz gain, erregulazioan aldaketak dituzten hainbat mikroRNA detektatu genituen konparaketak banaka egiterakoan.

Diagnostikoaren momentuko BZHLH laginetako eta kontrol-laginetako mikroRNAen adierazpenak konparatzean, 146 mikroRNAek adierazpen diferentziala zutela ikusi zen. MikroRNA horietatik 112 gain-adierazita zeuden BZHLH pazienteetan. Are gehiago, mikroRNA gehienen erregulazioaren aldakortasuna ez da aurretiaz aipatu BZHLH edo bestelako gaitzetan. BZHLH laginetan gehien gain-adierazitako mikroRNAk, miR-210-3p eta miR-994 izan ziren; azpi-adierazitako mikroRNAk, berriz, miR-215-5p eta miR-150. Azken horiek, pertsona osasuntsuetan gehiago adierazten zirela aurkitu zen.

Ikerketek erakutsi dutenez, miR-210 gain-adierazita agertzen da linfometan, eta zelulen zikloaren erregulatzaile nagusietako bat izan daitekeela proposatu da (205). Gure aurkikuntzekin bat datozen emaitzen artean, bi ikerketetan aipatu zen BZHLH pazienteetan miR-210-3p gain-adierazita zegoela (146,147), B-zelula arruntetako jarduerarekin alderatuz gero; hala ere, beste bi ikerketetan ez zen aurkitu estatistikoki esangarririk zen loturarik (150,165). Datu interesgarri bat ere aurkitu zen: mikroRNA molekulen adierazpen-profilak ikertzean, minbizi mota askotan detektatu da miR-210 molekularen adierazpenaren igoera (próstata (206), urdail-hesteak (207), bularreko (208) edo birikako minbizian (209), adibidez). Horrenbestez, beste egileei esker gaur arte bildutako datuek eta ikerketa honetan azaltzen ditugunak erakusten dutenez, miR-210-3p molekulak onkogene funtzioa izan dezake BZHLHn. Aurkikuntza berriek adierazten dutenez, miR-210 molekularen gain-adierazpenak tumoreen aurkako erantzun immunitarioaren eraginkortasuna jaitsi dezake, eta tumoreek immunozaintza saihesteko gaitasuna hobetu, zelulen bidezko zitotoxikotasunaren eraginkortasuna apalduta —T linfozito zitotoxikoen (CTL) eta zelula hiltzaile naturalen (*NK, natural killer cells*) jarduna, hain zuzen ere—(210). Gure interakzio-sarearen analisiak erakusten duenez, 3' muturreranzko ituek (*PTPN1,* esaterako) parte hartzen dute aipatu mekanismo horretan.

MiR-944 molekulari dagokionez, haren gain-adierazpenik ez da aurretik deskribatu BZHLHren kasuan, ezta bestelako gaitz hematopoietikoetan ere. Hala ere, tumore mota askotan ikusi da miR-944 molekularen adierazpena aldatuta dagoela, eta, gaitzaren arabera, tumoreak ezabatzeko funtzioa edo funtzio onkogenikoa duela. Alde batetik, bularreko minbizian (211), utero-lepoko minbizian (212) eta endometrioko minbizian (213), esaterako, miR-944 gain-adierazita aurkitu da, eta horrek esan dezake miR-944ak tumorearen garapena sustatzen duela, zelulen ugalketa, migrazioa eta inbasioa sustatzen baititu. Bestalde, beste ikerketa batzuetan ikusi denez, tumore-ezabatzaile funtzioa ere har dezake miR-944 molekulak, kolon eta ondesteko minbizi-ehunean haren erregulazioa nabarmen txikitzen baita (214,215). Gure ikerketan lortutako emaitzen arabera, bularreko, utero-lepoko eta endometrioko minbizian duen joera berdina hartzen du BZHLHn, hau da, onkogene funtzioa du. Hala ere, oraindik ez dira ezagutzen miR-944 molekulak BZHLHn izan ditzakeen funtzio biologikoak eta ekintza-mekanismoak. Egindako interakzio-sarearen analisiaren bidez BZHLHn garrantzitsuak diren miR-944 molekularen itu hauek identifikatu genituen: *HECW2, S100PBP, PTP4A1* eta *SIAH1*. *HECW2* geneak ongi karakterizatu gabe dagoen HECT domeinuko ubikitina ligasa kodetzen du; aurkitu denez, entzima horrek p73 tumore-ezabatzailea egonkortzen du eta haren transkripzio-jarduera areagotuz (216). Tentagarria da proposatzea miR-944 molekulak *HECW2* genearen adierazpena ezaba lezakeela, horrekin p73ren erregulazioa txikituz eta, beraz, tumoreen sorrera sustatuz. Hala ere, ikerketa gehiago egin behar dira *HECW2* geneak BZHLHn eta p73-miR-944 erregulazio-sarean duen funtzioa zehazteko. MiR-944 molekularen beste itu batek, *S100PBP* geneak, pankreako minbiziko zelula-lerroetan zelulen inbasioa eta atxikimendua ezabatzen duela ikusi da (217). BZHLHn *S100PBP* genearen erregulazioa txikituta dagoenez, interesgarria litzateke BZHLHren zelula-inbasioan ere parte hartzen duen edo ez zehaztea. Azkenik, beste azterketa batzuetan deskribatu denez, giza bularreko minbizian *SIAH1* genearen erregulazioa txikitzeak zelulen ugalketa, kolonien sorrera, migrazioa eta inbasioa, zelulek S fasea abiaraztea eta apoptosia inhibitzea sustatzen ditu (218). Hortaz, miR-944ek BZHLHn eskema bera jarraituko balu gaixotasun honen garapenerako mikroRNA honen ekintza mekanismoa azal dezake.

Erregulazioa txikituta duten mikroRNA molekulei dagokienez, gure populazioan gehien azpi-adierazitako molekula miR-125 izan zen. Horrekin bat eginez, miR-125 molekulak BZHLHn duen adierazpena dagoeneko aztertu zuten Wu *et al.*-ek (219), eta haiek ere azpi-adierazita aurkitu zuten BZHLH pazienteetan. Beste gaitz hematologiko batzuei dagokienez, Wang *et al.*-ek (2010) (220) aipatu zuten leuzemia mieloide akutuan (AML) ohikoa zela miR-125 azpi-adierazita aurkitzea. Are gehiago, minbizi mota askotan gehien ikertu den mikroRNA da miR-125, eta ikerketetan ikusi denez, tumore-ezabatzaile funtzioa edo onkogene-funtzioa izan dezake tumore motaren arabera. Kolon eta ondesteko minbizian (221,222), mikrozitikoa ez den birika-minbizian (223) eta bularreko minbizian (224) tumore-ezabatzaile gisa identifikatu zen azpi-adierazita lehendabizikoz. Urdaileko minbizian, aldiz, onkogene-funtzioa hartzen du gain-adierazita baitago (225) eta korrelazioa baitu tumorearen inbasioaren eta minbiziaren fasearen garapenarekin (226,227). Datu horiek argi erakusten dute zein konplexua den minbiziaren erregulazioa, eta, tumorearen jatorrizko ehunaren arabera, miR-215 tumoreen garapenean eta ezabatzean duen funtzio bikoitzean islatzen da hori. Gure kasuan, miR-125 BZHLHn izan dezakeen ezabatzaile-funtzioari buruzko xehetasun berriak ematen dituzte gure emaitzek.

Interes handiko beste aurkikuntza FRA1H (1q41–q42.1) gune ahularen *1q41.1* zatiko *miR-215-194-1* multzoan dago miR-125, miR-194-5p molekularekin batera (gure ikerketan gehien azpi-

adierazita zeuden mikroRNA guztien artean laugarrena), eta gune ahul hori ezabatu egiten da minbizi mota askotan (228). Bi mikroRNA horien batera azpi-adieraztearen fenomenoaren berri eman da beste minbizi batzuetan, esaterako, giltzurrun-zeluletako kartzinoman (229) eta mieloma anizkoitzean (230). Molekula horien ekintza-mekanismoei dagokienez, Pichiorri *et al.*-ek (230) ikusi zuten mikroRNA horien gain-adierazpena aurkezten zuten mieloma anizkoitzeko zeluletan *MDM2* genearen erregulazioa azpi-adierazita zegoela proteinen eta mRNA molekulen mailan. Azpi-adierazpen horrek alderantzizko erlazioa du p53-ren adierazpen handiagoarekin eta p21-en aktibazioarekin. Horrek azal lezake molekula horiek duten tumore-ezabatzaile funtzioa. BZHLHn miR-215 eta miR-194 molekulek prozesu zelularrei eragiteko dituzten mekanismoak are gehiago aztertzeko, interakzio-sarearen analisia egin genuen, eta tumorearen garapenean parte hartzeagatik ezagunak diren itu batzuk identifikatu ziren. Horien artean dago 2B motako aktibina-hartzailea *(ACVR2B)*. Molekula hori bi mikroRNA horien itu gisa deskribatu da haurtzaroko giltzurrun-neoplasian (231). Hartzaile horrek funtsezko funtzioa du aktibina aktibatzeko garaian, eta, aldi berean, beta hazkuntza-faktore transformatzailearen (TGF)-β seinale-bidearen osagai garrantzitsua izan daiteke, eta kartzinogenesian eragin dezake. Aurkikuntza horiek *miR-215-194-1* multzoak tumoreak ezabatzeko duen funtzioaren eta egon daitezkeen ekintza-mekanismoen alde egingo lukete, eta, beraz, are gehiago ikertzeko gai interesgarri bihurtzen ditu.

BZHLHn azpi-adierazita dauen mikroRNAen artean, miR-150-5p ere aurkitu genuen; molekula hori dagoeneko aztertu da BZHLHko hainbat ikerketetan. Leuzemietan eta linfomatan gertatzen den miR-150 molekularen erregulazioaren txikitzea deskribatu da jada. Litekeena da mikroRNA horrek oso funtzio espezifikoa izatea neoplasia linfatiko ezberdinen garapenean (BZHLH barne), aurreko atalean azaldu dugunez.

Bost mikroRNA horien (miR-210-3p, miR-944/miR-215-5p, miR-150-5p eta miR-194-5p) erabilera konbinatuta asko areagotuko litzateke mikroRNA markatzaile bakarrak diagnostikatzeko duen zehaztasuna. Edonola ere, ikerketa gehiago egin behar dira bost mikroRNA horien adierazpen-profilarekin BZHLH beste tumore motatatik bereizteko aukera dagoen edo ez argitzeko.

Laburbilduz, aurretik deskribatu diren erregulazioa galdutako hainbat mikroRNA berresteaz gain, BZHLHn erregulazioa galdu duten beste mikroRNA batzuen aurkikuntzaren berri ematen dugu, zeinak ez baitira ikertu minbizi mota honetan. Are gehiago, gehien gain-adierazitako 20 mikroRNA molekulen multzotik (12. taula) miR-146a-5p, miR-129-5p eta miR-205 dira aurretiaz BZHLHrako ikertu diren bakarrak. Gehien azpi-erregulatutako 20 mikroRNA multzoari dagokionez (13. taula), miR-224-5p, miR-145-5p, miR-497-5p, miR-151b eta miR-451 soilik ikertu dira aurretiaz BZHLHn.

Emaitza horiek argi erakusten dute mikroRNA molekulen profilak zehaztea tresna diagnostiko berria, fidagarria eta estandarizatu daitekeena izan daitekeela BZHLH karakterizatzeko. BZHLHren diagnostikoaren ezaugarri analitikoak are gehiago hobetzeko, lagungarria izan daiteke mikroRNA sinadura berri horiek ohiko biomarkatzaileekin batera erabiltzea.

MikroRNA molekulen adierazpenaren sinadura BZHLHren azpimotak sailkatzeko

BZHLH ZGB eta BZHLH ez-ZGB azpimotek aktibazio onkogenikorako mekanismo, anormaltasun genomiko eta emaitza kliniko ezberdinak dituzte (10,69). R-CHOPekin edo R-CHOPen antzekoak diren erregimenekin tratatzean, BZHLH ZGB duten pazienteek biziraupen hobeagoa dute IPIaren balioa edozein dela ere (31,232). Hala ere, ez dago argi azpimotetan sailkatzeak pronostikorako duen balioa, batez ere kontuan hartzen badugu azpimotetan sailkatzeko metodo ezberdinak erabiltzen direla eta emaitzak irregularrak lortzen direla. Sekzio honetan, bi azpimotetan mikroRNA molekulen adierazpena aldatzen den edo ez aztertu genuen, baita adierazpen horrek esparru klinikoan sailkapena errazten lagunduko dezakeen edo ez.

Diagnostikoa egitean hartutako ZGB eta ez-ZGB laginetako mikroRNAen adierazpen-profilak konparatzean, zortzi mikroRNAtan adierazpen esangarria aztertu zen. Haietatik bost (miR-129-2-3p, miR-4464, miR-3150b-3p, miR-138-5p eta miR-129-5p) gain-adierazita zeuden BZHLH ZGB pazienteetan, eta beste hiru (miR-511-5p, miR-205-5p, eta miR-3652) BZHLH ez-ZGB azpimotan gain-adierazita zeuden.

BZHLH ZGB pazienteetan gain-adierazitako mikroRNAei dagokienez, miR-129-5p eta miR-138-5p gain-adierazpena ZGB azpimotan aurretik azaldu dira (147,150,155,187). Are gehiago, ZGB azpimotan gain-adierazita dauden mikroRNAk, zentro germinaletako linfomen sorrerarekin erlazionatutako transkritoak itu izaten dituzte (233), batez ere, miR-129-3p/miR-129-5p eta miR-138-5p molekulen kasuan. MiRTarBase sareko tresna erabiliz aurresan ziren mikroRNA horien itu-geneak. Horien artean zeuden, besteak beste, funtzio hauekin erlazionatutako geneak: zelula-zikloa (*CDKN1A*), MAPK eta NFkB seinale-bidea *(MAPK1).* MikroRNA horien adierazpena handia izanez gero, ziklinaren mendekoa den kinasa-inhibitzailearen —*CDKN1A* (p21 izenez ere ezaguna)— adierazpena era negatiboan erregulatuko luke, eta, hala, zelulek zelula-zikloaren G1 puntua gaindituko lukete. Horregatik proposatzen dugu mikroRNA horiek ezinbestekoak direla zentroblastoentzat zelula-zikloaren G1 fasetik S fasera igarotzeko, *CDKN1A* genearen adierazpena murriztuz (234). Beste datu interesgarri bat ere aurkitu genuen: *TP53* genea miR-129-3p/miR-129-5p eta miR-138-5p molekulen itu-genea da. Zelula-zikloaren etena, DNAren konponketa, apoptosia, seneszentzia eta autofagia zuzentzen dituen funtsezko tumore-ezabatzailea da *TP53* genea (235,236). Linfomaren sorreran eta gaitzaren garapenean eragiten du *TP53* geneak gaizki funtzionatzeak, eta p53-ren funtzionamendu normala ezinbestekoa da tumoreak ezabatzeko. *TP53* genearen mutazioek pronostikoari dagokionez duen esanahiak ez du emaitza bateraturik eman hainbat minbizitan. Hala ere, azkenaldian egindako ikerketek erakutsi dutenez, *TP53* geneko mutazioek BZHLH ZGB mailatan banatzen dute eta bakoitzak OS ezberdina du (237). BZHLH ez-ZGBren kasuan, ordea, ez du halakorik egiten. Horrek adieraz lezake BZHLH ZGB *TP53* genearen mendekoa dela, eta BZHLH ez-ZGB, berriz, *TP53* genearekiko independentea. Horrek aipatu ditugun mikroRNA molekulen adierazpenak azpimota bakoitzean dituen ezberdintasunak azalduko lituzke. Bestalde, ikerketa honetan azpi-adierazita behatu diren miR-4464 eta miR-3150b-3p molekulak ez dira inoiz deskribatu orain arte BZHLHren patogenesian. Azkenik, ez-ZGB azpimotan gehien gain-adierazitako hiru mikroRNAk (miR-511-5p, miR-205-5p eta miR-3652) ere ez dira inoiz deskribatu orain arte BZHLHren patogenesian.

Gerta daiteke mikroRNA horien adierazpen diferentzialak erregulazio-bide ezberdinak azaleratzea, eta erabilgarriak izan daitezke BZHLH pazienteak sailkatzeko. Lehenago ikusi

dugunez, zentro germinaleko B zelula da BZHLH ZGBren ohiko baliokidea, eta BZHLHren ez-ZGB azpimotak zentro germinalaren osteko plasmablastoen antza du (10,74). NF-κB bidearen aktibazio osagarria da BZHLH ez-ZGBren ezaugarri bereizgarrietako bat. Zentro germinaleko zelula antzekoa (ZGB) duten BZHLHek PI3K/AKT bidearen aktibazio onkogenikoaren mende daudela erakutsi dute (233). Hala ere, ez dago argi PI3K/AKT bidea aktibatzearen atzean dagoen mekanismoa eta BZHLHn izan dezakeen funtzio onkogenikoa.

BZHLH azpimotetan adierazpen diferentziala duten zortzi mikroRNA aurkitu ditugun arren, goian aipatu bezala, muga bat dugu ikerketa honetan: Han-en IHK algoritmoa erabili zen pazienteak sailkatzeko. Ikerketek erakutsi dutenez, IHKn oinarritutako sailkapenak GAPn oinarritutako sailkapenarekin aurresandakoaren antzeko emaitza eman arren (eta GAP da urrezko estandarra) (25), IHK tindagaiak erreproduzitzean dagoen aldakortasuna eta immunotindatzeari eragiten dioten faktore subjektibo eta teknikoen ondoriozko interpretazioa izan daitezke emaitza bateraturik ez lortzearen arrazoiak (238). Horren harira, berrikuspen sistematikoa egiterakoan, GAP eta IHK erabili zuten ikerketen artean ezberdintasunak behatu genituen ikerketa mota bakoitzean identifikatutako mikroRNAei dagokienez. Hori dela eta, ikerketa gehiago egin behar dira ezberdintasun horiek argitzeko, eta, bien bitartean, are interesgarriagoa litzateke tratamenduari emandako erantzunarekin edo pronostikoarekin erlazionatutako mikroRNAk identifikatzea, azpimotetan adierazpen diferentziala dutenak aztertu beharrean.

Terapiari emandako erantzuna aurresateko mikroRNA sinadura

BZHLH duten pazienteen % 10–20 errefraktarioak izango dira lehen aukerako kimioterapia ematean, eta % 30–40 berriro gaixotuko dira erremisio totala eta gero. Paziente horiek hasieratik identifikatzea garrantzitsua izan daiteke, lehen aukerako kimioterapia hobeto esleitzeko; izan ere, lehen aukerako indukzio-tratamenduak huts egin ondoren BZHLH duten pazienteen emaitzak ezin baino txarragoak izaten dira (239). Hori dela eta, lehentasuna du eraginkortasun terapeutikoa era eraginkorrean baloratzeko adierazle berriak identifikatzea. Hala ere, agente kimioterapeutikoekiko erresistentzia garatzearen atzean dauden mekanismoak ez dira ongi ulertzen oraindik. MikroRNA molekulek, funtzio biologikoen erregulatzaileak direnez, farmakoekiko erresistentzian ere eragiten dute. Hori dela eta, BZHLH pazienteek tratamenduari ematen dioten erantzunarekin lotura duten mikroRNA berriak identifikatzeko helburua jarri genuen; mikroRNA horiek biomarkatzaile gisa erabili ahal izango lirateke pazienteak multzokatzeko eta terapia are gehiago pertsonalizatzeko. Hori bereziki garrantzitsua da kontuan hartuta BZHLHren kasuan mikroRNA molekulen adierazpenaren eta tratamenduari ematen zaion erantzunaren arteko erlazioa gutxi aztertu dela.

Ikerketa honetan, RNA txikien sekuentziazioa erabiliz, tratamenduari emandako erantzun onarekin erlazionatu zen hamar mikroRNAen gain-adierazpena (miR-12136, miR-129a-5p, miR-129-1-3p, miR-3150b-3p, miR-127-3p, miR-3681-5p, miR-370-3p, miR-4464, miR-129b-5p eta miR-3928-3p). Horrez gain, miR-192-5p gain-adierazpena R-CHOP terapiarekiko kimioerresistentziarekin erlazionatu zen. Nabarmentzekoa da mikroRNA horien erregulazioaren profilak ez direla inoiz aztertu BZHLHn, bai ordea beste minbizi mota batzuen testuinguruan.

Aurkitu dugunez, miR-12136 tratamenduari guztiz erantzuten dioten pazienteetan gehien gain-adierazitako mikroRNA da; adierazpena 25 bider edo gehiago handitu dela behatu da. Are gehiago, duela gutxi aurkitu da miR-12136, eta, beraz, oso gutxi dakigu mikroRNA horri buruz.

Molekula honi buruz lortutako emaitzek argi erakusten dute ikerketa gehiago egiteko hautagai interesgarria dela. Azken molekula horren antzera, ikusi genuen orain arte ikertu gabeko miR-3681-5p eta miR-3928-3p mikroRNAk ere tratamenduari emandako erantzun onarekin eta pronostiko onarekin erlazionatuta zeudela. MiR-129-5p ere tratamenduari emandako erantzun onarekin erlazionatuta dago (15. taula). Are gehiago, gure emaitzekin bat eginez, miR-129-5p azpi-adierazpenak kimioerresistentziarekin korrelazioa duela behatu da aurretiaz bularreko minbizian. MikroRNA horren gain-adierazpenak erregimen terapeutiko batzuei emandako erantzuna zein den jakiteko datu garrantzitsua izatearen alde egiten du informazio horrek (240). Horrez gain, gure populazioan tratamenduari emandako erantzun onarekin erlazionatutako miR-127 molekulak bularreko minbizian p53 bidezko apoptosiaren aktibazioan funtzioren bat izan dezakeela deskribatu da dagoeneko; BZHLHn tratamenduari emandako erantzun onarekin duen lotura azaltzen duen ekintza-mekanismo bat izan daiteke hori (241). Kontuan hartu behar da aurretik egindako ikerketa batzuetan miR-192 eta kimioerresistentzia erlazionatzen zituztela biriketako (242), laringeko eta hipofaringeko minbizietan (243). Emaitza horiek guztiek argi erakusten dute mikroRNA molekula horiek zer funtzio duten BZHLHn gertatzen den kimioerresistentzian.

R-CHOPekin tratatutako BZHLH pazienteen tratamenduaren erantzunarekin erlazionatutako sinadura-mikroRNA hauek proposatzen ditugu: miR-12136, miR-129a-5p, miR-129-1-3p, miR-3150b-3p, miR-127-3p, miR-3681-5p, miR-370-3p, miR-4464, miR-129b-5p, miR-3928-3p eta miR-192-5p. Etorkizunean, mikroRNA molekuletan oinarritutako tratamenduak ohiko kimioterapia-tratamenduarekin konbinatuta eskaintzea izan liteke BZHLH errefraktarioa duten pazienteak klinikoki kudeatzeko bidea. Lerro honetan, miR-12136, miR-129a-5p, miR-129-1-3p, miR-3150b-3p, miR-127-3p, miR-3681-5p, miR-370-3p, miR-4464, miR-129b-5p eta miR-3928-3p gain-adierazpena aukera hona izan liteke mikroRNA hauen adierazpen baxua aurkezten duten pazienteetan, erantzun ona duten korrelazioagaitik. Aipatutako hau, pre-mikroRNAk, mikroRNA geneak edo mikroRNA "*mimic*"-ak erabiliz lortu daiteke (244–246). Beste alde batetik, miR-129-5p inaktibazioa kontrako zentzuko mikroRNA oligonukleotidoak, mikroRNA belaki edo mikroRNA inhibitzaileak (245,246) estrategia terapeutiko berri bat izan daiteke mikroRNA hau gain-adierazita duten gaixoentzat. Testu inguru honetan, mikroRNAtan oinarritutako terapia minbizian etorkitzun handiko estrategia den arren, zelulen ituetara heltzea da erronka nagusia. Zorionez, zentzu honetan aurrerapen handiak egiten ari dira.

Horien bidez, errefraktario izateko aukera handia duten pazienteak identifikatu ahal izango lirateke, eta horientzat lehen lerroko tratamendua optimizatzeko aukera egongo litzateke. Tratamenduen eraginkortasun terapeutikoa hobetzen eta tratamenduak pertsonalizatzen lagunduko luke informazio horrek; izan ere, mikroRNA molekulen adierazpena aztertuta, paziente bakoitzari hobekien egokitzen zaion tratamendua aukeratu ahal izango litzateke.

BZHLHn emaitza klinikoarekin erlazionatuta dauden mikroRNA sinadurak

Tratamenduari emandako erantzunaz gain, BZHLH pazienteen hasierako tratamendu-plangintza egiterakoan ezinbestekoa izan daiteke bizirik irauteko aukera zehatza aurresateko gaitasuna. Gaur egun, IPI da BZHLHn pronostikoa aurresateko urrezko estandarra. Hala ere, sistema horrek ez ditu islatzen BZHLH pazienteetan behatzen den zelulen morfologiaren heterogeneotasuna, immunitate-fenotipoa eta biologia molekularra. Are gehiago, erituximab-en garaian, huts egin

du B zeluletako linfoma zuten pazienteen pronostikoa aurresatean, proportzio handi batean (247). Aurretik egindako ikerketek hainbat ondorio aurkeztu dituzte BZHLH pazienteen emaitza klinikoari benetan eragiten dioten faktore klinikoei buruz, eta kontraesanak agertu dira ikerketa horien artean. Hori dela eta, biomarkatzaile berriak beharko lirateke ezaugarri klinikoekin batera konbinatzeko. Ikerketetan bildutako datuek erakutsi dutenez, mikroRNAen adierazpena izan daiteke paziente baten emaitza aurresateko biomarkatzaile gakoa. Pronostikoarekin erlazionatutako mikroRNAk azpimotekin erlazionatutakoak baino tresna hobea dira pazienteak arriskuaren arabera sailkatzeko lanetan, eta, gainera, erabilgarriak izan litezke agente terapeutiko espezifikoak garatzeko.

Epe luzeko erremisioa zuten pazienteetan gain-adierazitako zazpi mikroRNA (miR-4444, miR-449c-5p, miR-3681-5p, miR-3928-3p, miR-449b-5p, miR-370-3p eta miR-4424) eta berriz gaixotu ziren pazienteetan lau mikroRNA (miR-133a-3p, miR-133a-3p, miR-208b-3p eta miR-205-5p identifikatu genituen.

Horietatik bi (miR-3681-5p eta miR-3928-3p) ez dira inoiz aztertu BZHLH kasuetan. Izan ere, duela gutxi karakterizatu dira miR-3681-5p eta miR-3928-3p, eta horregatik ez dira beste ikerketetan sartu. Biziraupenaren analisiak erakusten duenez, miR-4444 lotura nabarmena du OS eta PFS hobearekin. Orain arte, miR-4444 molekulak BZHLHn duen adierazpen-ereduak eta pronostikoan horrek duen esanahia ez dira era sistematikoan ikertu, baina aipatu izan da aurretik ondesteko adenokartzinomaren pronostiko txarrarekin erlazionatutako sei mikroRNA molekulen eredu baten barruan (248). MiR-4444 molekulak itu ezberdinak izatea eta bide ezberdinetan parte hartzeko aukera edukitzea izan daiteke emaitza kontraesankor horiek argituko lituzkeen azalpen bat. Hala izango balitz, funtzio ezberdinak beteko lituzke zelula motaren, gene-adierazpenaren tumore-ereduaren eta terapia motaren arabera. Horren eraginez, orain arteko emaitzak ezingo lirateke konparatu. Ikerketa gehiago behar dira BZHLHn duen funtzioa ulertzeko.

MiR-205 ere OS okerragoarekin era esangarrian erlazionatu da immunokimioterapiarekin era uniformean tratatu ziren BZHLH pazienteen taldean. Are gehiago, aldagai anitzeko analisiak erakutsi zuenez, miR-205-5p OS eta PFS okerragoarekin erlazionatuta dago, IPI eta azpimota edozein izanda ere. Azpimota ez da biziraupenarekin erlazionatu, ziurrenez, pazienteak erituximab-ekin tratatu direlako; tratamendu horrek BZHLH ez-ZGBrekin erlazionatuta dagoen pronostiko txarra gainditzen duela aurkitu baita (249). Edonola ere, mikroRNA adierazpen-ereduak IPI egoerarekin eta BZHLH azpimotarekin erlazionatuz gero, pronostiko ezberdinetan hobeto sailkatu ahal izango dira pazienteak, eta horrek tratamendua are hobeto pertsonalizatzea ekar dezake. Ikerketa honetan aurkitu dugunez, miR-205-5p molekularen adierazpena oso erabilgarria izan daiteke BZHLHren kasuan, pronostiko txarrarekin eta biziraupenarekin erlazionatuta egoteaz gain, BZHLH pazienteetan eta ez-ZGB pazienteetan erregulazioa handituta duelako.

MikroRNA honek BZHLHn dituen ekintza-mekanismoei buruzko ikerketa sakontzeko, proteina-proteina interakzioen (PPI) sare bat eraiki zen, mikroRNA-mRNA interakzio-sarearen zati gisa aztertu ziren miR-205 eta haren itu-geneak (15. irudia). PPI sare horretan, *ERBB3* proteinak zituen interakzio-nodorik gehien. *ERBB3* proteinak epidermiseko hazkuntza-faktoreen hartzaile-familiako kide bat kodetzen du. Haren mutazio somatiko batzuk ohikoak dira kolon eta

ondesteko eta urdaileko minbizietan, baina arraroak minbizi hematologikoetan. Oraindik ez dakigu proteina horrek zer funtzio duen. Hogeita hamasei itu-proteinen artean, *PTEN* ere funtsezko nodo-proteina da. PI3K/AKT seinale-bidearen erregulatzaile negatibo nagusia da *PTEN*, eta azkenaldian argitaratutako ikerketen arabera, BZHLH kasuen %25–30ean aktibatuta dago sorreran (250). *PTEN* proteinaren galera tumore solido askoren pronostiko okerragoekin erlazionatu da, BZHLH barne, eta era esangarrian erlazionatu da gaitz garatuarekin, kimioterapiarekiko erresistentziarekin eta bizirik irauteko aukera txikiarekin (251–254). Hori dela eta, horrek azal lezake BZHLHn duen funtzioa.

Guztia batera hartuta, gure datuek adierazten dute miR-4444 eta miR-205 molekulak BZHLHren patogenesiarekin erlazionatuta daudela eta pazientearen pronostikoan zerikusia dutela. Guk dakigula, ikerketa honetan lehen aldiz frogatu da miR-444 eta miR-205 molekulek BZHLH duten pazienteen pronostikoa aurresateko balioa dutela eta tratamendurako norabide berria eskaintzen dutela. Horregatik ondorioztatu dugu miR-4444 azpi-adierazpena eta miR-205 gain-adierazpena duten pazienteek onurak izan ditzaketela tratamenduaren hasieran programa terapeutiko trinkoago bat jasoz gero. Gure emaitzek tratamendu pertsonalizatuago bat garatzera bideratzen gaituzte, zeinean mikroRNAen adierazpenak lagundu egingo baitu paziente bakoitzarentzat egokiena den tratamendua aukeratzen. Hala ere, bakoitzaren mekanismo espezifikoa eta pronostikorako balioa are gehiago aztertu eta egiaztatu behar dira.

MikroRNAak BZHLHren pronostikoarekin erlazionatu dituzten ikerketa gehienak errituximab aplikatzen hasi aurretik tratatutako BZHLH pazienteekin egin ziren. Beraz, ikerketa honek abiapuntu interesgarria eskaintzen du testuinguru horretan. Gure emaitzak kohorte-tamaina egokia duten ikerketa independenteen bidez baliozkotu beharko liratekeela uste dugu, pronostikorako biomarkatzaile sendoak baliozkotzeko.

B ZELULA HANDIETAKO LINFOMA HEDATSUAN MIKRORNA MOLEKULEK DUTEN EKINTZA-MEKANISMOA ARGITZEA MIKRORNA-mRNA INTERAKZIO-SAREAREN ANALISIA ERABILIZ

Erregulazioan aldaketak dituzten mikroRNA molekulen mekanismo osoari buruzko xehetasunak argitzeko asmoz, mikroRNA-mRNA interakzio-sarea eratu genuen. Izan ere, mikroRNA molekulen erregulazioan aldaketek mikroRNA molekulen itu-geneen adierazpen aberrantea eragiten dute, eta horrek, aldi berean, linfomagenesia azkartzen du. Integrazio-analisiaren bidez ikusi zen BZHLHn 214 genek paira zitzaketela mikroRNA molekulen erregulazio aldakorraren ondorioak, mikroRNA molekulen mekanismoarekin bat zetorren adierazpen-eredua baitzeukaten. Ildo horretatik jarraituz, ikerketa honen bidez behatutako erregulazioaren emendioa zuten mikroRNA molekulak izan daitezke BZHLHn 138 generen adierazpena txikitzearen eragileak. Halaber, mikroRNAen azpi-adierazpenak azal lezake 76 geneen gain-adierazpena. Funtzioen aberaste-analisia eginez, proteina lotzaileen eta katalitikoen (transkripzio-faktoreak eta kinasak, adibidez) gain-adierazpena ikusi zen gene horietan. *In silico* analisien bidez zehaztu ahal izan zen gene horiek asko agertzen direla minbiziaren bidezidorretan, batez ere, PI3K-Akt eta MAPK seinale-bideetan. Interesgarria da jakitea bide horietako hainbat gene ikerketa honetan aurkitu diren eta erregulazio aldakortasuna duten mikroRNA bat baino gehiagoren itu direla, eta mikroRNA ugarik gene horietako bat baino gehiago dituztela itu bide horietan; hori dela eta, BZHLHren patogenesia areagotzearen

erantzule izateko hautagai sendoak dira. Erregulazioan aldaketak jaso dituzten mikroRNAk BZHLHn eragiten duten moduari dagozkien mekanismoak aztertu genituen, gehien inplikatuta dauden itu-geneetan eta mikroRNA molekulatan arreta jarrita.

MikroRNA bat baino gehiagoren itu diren eta azpi-adierazita dauden generik interesgarrienen artean *FOXO1* eta *PTEN* daude. PI3K-Akt bidean parte hartzen dute (255), eta hurrenez hurren, bost eta lau mikroRNA molekulen itu direla aurresan da. p27, p21, FasL eta Bim proteinen transkripzio-faktorea da *FOXO1*. Proteina horiek ezabatzaileak dira, G_1/S trantsizioa blokeatzen baitute eta apoptosia eta DNAren konponketa induzitu. *FOXO1* geneak oinarrizko funtzioa betetzen du B zelulekiko espezifikoa den diferentziazio-programa ezartzen eta mantentzen. Baina, horrez gain, zelulen heriotza eragiten du BCR seinaleztapen desegokiaren eraginez (256,257). *FOXO1* genearen funtzioa galtzeak tumoregenesia sustatzen du, estresarekiko erresistentzia, proliferazioaa eta zelulen biziraupena areagotzen baititu (258). Apoptosia pairatu beharko luketen zelula anormalek bizirik iraungo lukete *FOXO1* genearen funtziorik ez izateagatik, eta, horrek, tumorea hedatzea dakar. Horrenbestez, *FOXO1* genearen funtzioa galtzeak zelulen zikloaren etetea induzitzeko gaitasuna txikitzen du, eta horrek tumorea garatzea eragiten du (259). Tumore linfoideei dagokienez, *FOXO1* genea tumore-ezabatzailea bezala deskribatu da Hodgkin-en linfoman (260), eta, BZHLHn, gene horren erregulazioa asaldatuta dagoela aipatu izan da (261). Deskribatu denez, *FOXO1* geneak *MYC* protoonkogenea erreprimitu egiten du eta *BCL2L1* apoptosiaren inhibitzailea mediastinoko B zelulen linfoma primarioan (262). Gainera, *FOXO1* genearen fosforilazioak eta inaktibazioak alderantzizko korrelazioa du leuzemia mieloide akutua (AML) duten pazienteen biziraupen-denborarekin (263). Ikerketa honetan ikusi denez, 5 mikroRNAk, miR-182-5p, miR-183-5p, miR-135a-5p, miR-9-5p eta miR-9-3p, dute *FOXO1* zuzeneko itu gisa eta haren adierazpena ezabatu egiten dute. MikroRNAek gene hori isiltzen dutenez, litekeena da BZHLHren patogenesian parte hartzea. Ildo beretik jarraituz, lehenago aipatu dugun *PTEN* tumore-ezabatzaile bat da, *FOXO1* genearen 5' muturrean eragiten du eta *AKT* negatiboki erregulatzen du. *PTEN* bidezko erregulaziorik gabe, *AKT* aktibatuak *FOXO1* fosforilatu eta nukleotik zitoplasmara bidaltzen du, eta proteasomek degradatu egiten dute han (264). Gure ikerketaren arabera, miR-155, miR-320a, miR-205 eta miR-182-5p molekulen itu da *PTEN*. Beraz, gene horren adierazpena murriztu eta *AKT*-ren erregulazio negatiboa eten dezake. MiR-182-5p molekulak bi geneak ditu itu gisa, eta PI3K/AKT bidea modulatzen duen funtsezko mikroRNA bat izan daiteke, *PTEN* genearen 5' muturra eta *FOXO1* genearen 3' muturra baitira haren ituak. Gure aurkikuntzekin bat eginez, aurretiaz deskribatu da Hodgkin-en linfoma klasikoan miR-182 eta miR-183 mikroRNA molekulen eta *FOXO1* genea ezabatzearen arteko harremana (260).

GSK3β genearen adierazpenaren murriztea emaitza oso interesgarria da ere. Izan ere, miR-183-5p, miR-182-5p, miR-9-5p, miR-129-1-3p eta miR-1246 molekulen itu izan daitekeela aurresan da. *GSK3β* oinarrizko proteina kinasa bat da, zeluletan hainbat proteina fosforilatzen dituena, eta, beraz, hainbat bideri eragiten die, besteak beste Wnt seinale-bideari. Bide horrek ezinbesteko funtzioa du hainbat minbiziren tumoregenesian, BZHLH barne (265,266). Wnt bidea ez badago, β-katenina suntsitzeko konplexuak fosforilatzen du β-katenina, eta proteolisira bideratzen du molekula —ardatza inhibitzen duen proteina (*AXIN*), poliposis coli adenomatoso proteinak (*APC*) eta glukogeno sintasa kinasa 3β proteinak (*GSK3β*) osatzen dute konplexua— (267). Wnt seinale-bideak *GSK3β* inaktibatzen du eta ez du uzten β-katenina fosforilatzen. Hala, β-katenina egonkortu egiten da zitoplasman. β-katenina pilatzen joaten da, eta nukleora

translokatzen da. Han TCF/LEF konplexuari lotzen zaio eta haien transkripzio-jarduera izugarri handitzen du. Protoonkogeneak daude TCF/LEF konplexuak erregulazioa emendatzen dieten geneen artean; esaterako, *c-myc* eta *cyclin-D1*. Azken horrek zelulen proliferazioa sustatzen du eta apoptosia saihesten du (268). Horrenbestez, miR-183-5p, miR-182-5p, miR-9-5p, miR-129-1-3p eta miR-1246 molekulek *GSK3β* genearen erregulazioa murrizten badute, β-kateninaren pilaketa eta protoonkogeneen aktibazioa areagotuko lukete. *GSK3β* genea ezabatzeak, gainera, farmakoekiko erresistentzia areagotzen du minbizi-zeluletan, Wnt/β-katenina seinaleztapena erregulatzeko gaitasunari esker (269). Are gehiago, mikroRNA horiek gehiegi adieraztearen eraginez, BZHLH zelulen ugalketa, inbasioa eta apoptosiaren ezabatzea areagotuko litzateke, *GSK3β* genea erregulatzen baitute.

Datuen arabera, miR-182-5p, miR-183-3p eta miR-9-5p molekulen arteko elkarlanak laguntzen dio BZHLHren patogenesiari funtzio onkogenikoan, PI3K/AKT/FOXO1/Wnt bidea guztiz erregulatzen baitute.

Horrez gain, ikusi genuen miR-612, miR-663a eta miR-155-3p molekulak *TP53*-ren erregulatzaile negatibo zuzenak direla. p53 tumore-ezabatzaileak oinarrizko funtzioa betetzen du, egonkortasun genomikoa eta tumoreen ezabatzea mantentzen baitu. Halaber, zelularen zikloaren hasiera eta zelulen banaketa kontrolatzen du p53k, transkripzio-faktore bat baita (270). Mutazioen bilaketa zabal bat egitean ikusi zen *TP53* genean funtzioaren galera zekarten mutazioak agertzen zirela tumore gaiztoetatik %50 baino gehiagotan (271). Are gehiago, p53 hainbat tumore motarekin erlazionatuta dagoela eta mikroRNA jakin batzuek erregulatzen dutela frogatu da (272,273). Hiru mikroRNA molekuletatik miR-612 lehendik erlazionatu da esofagoko zelula ezkatatsuen kartzinomaren garapenarekin eta metastasiarekin, eta *TP53* genearen mRNA eta proteina-adierazpenaren inhibizioan eragiten du (274). Litekeena da mikroRNA horiek *TP53*-ren mRNA molekularen 3´-UTR muturrera lotzea, eta, hala, *p53*-ren mailaren eta funtzioaren erregulazioa txikitzea. Horrek era negatiboan erregulatzen du p53 bidezko apoptosia eta zelula-zikloaren etena, eta, beraz, mikroRNA horiek p53-ren sareko osagai garrantzitsuak dira.

Azkenik, analisi honetan aipatzeko modukoa da miR-146a-5p molekulak duen funtzioa: diagnostikorako biomarkatzaile izateko hautagaia den gehien gain-adierazitako mikroRNA. mikroRNA horrek BZHLHn erregulazioa txikituta duten 11 geneekin interakzioa duela ikusi da; gene horien artean daude, besteak beste, *BRCA2, RHOA, SOS1, STAT1, CCND2, CXCR4, NOTCH1, RAC1, ROCK1, SMAD4 eta TGFB1. BRCA1* genearekin erlazionatutako bularreko minbiziaren patogenesian parte hartzen duen oinarrizko mikroRNA gisa deskribatu izan da miR-146a-5p (275). Horri dagokionez, *BRCA1* geneak bularreko minbiziaren tumoreak ezabatzeko funtzioa du, DNAren kalteak konpontzen baititu (276). Horrez gain, nahiz eta orain arte miR-146a-5p eta *BRCA1* genearen arteko atzeraelikadura-zikloa linfomarako deskribatu ez den, BZHLHn miR-146a-5p molekulak *BRCA1* genearen itzulpena inhibitzen duela proposatu dugu. Are gehiago, Luo *et al.*-ek aurkitu zutenez, *SMAD4* genearen adierazpen-galera BZHLH zelulen proliferazioarekin erlazionatuta egon daiteke, β hazkuntza-faktorearen (*TGF-β*) seinale-bide goretsiz (277). *NOTCH1* gene tumore-ezabatzailea da, eta haren jarduera nabarmen txikitzen da azaleko minbizian (278). Aukera erakargarria litzateke p53-ren funtzioaren murrizketak *NOTCH1* genearen adierazpenaren erregulazioa txikitzea (279).

BZHLHn mikroRNAen azpi-adierazpenaren ondorioz gain-adierazita dauden geneei dagokienez, *BCL2* geneak du emaitzarik esangarriena. Berez, 135a-5p, miR-234-5p, miR-139-5p, miR-451a eta miR-497-5p molekulek erregulatzen dute, baina horien mikroRNA molekulen azpi-adierazpenaren ondorioz genearen gain-adierazpena eragin dezake. Datuek erakutsi dutenez, apoptosiaren kontrakoak diren osagaiak (*Bcl-2*, esaterako) asko adieraztea da B zeluletan linfomagenesiari ekarpen handiena egiten dion faktore nagusietako bat (280). Hori aurkitu zenetik, ikerketa askok zehaztu dute minbizian parte hartzen duen onkogene garrantzitsuenetakoa dela *BCL2*, apoptosia inhibitzen baitu eta linfomak garatzea eragiten baitu, batez ere *c-MYC* genearen gehiegizko adierazpenarekin batera agertzen denean (281). *BCL2* proteina mitokondrietan kokatzen da gehien batean; biziraupena sustatzen du eta apoptosia inhibitu, *C* zitokromoa mitokondrietatik zitoplasmara askatzea saihestuz. BZHLH kasuen 50ean Bcl-2a gain-adierazita dago translokazioaren eta beste mekanismo batzuen bidez (Bcl-2 irabazia/anplifikazioaren bidez, adibidez) (282). B zeluletako minbizi askok, BZHLHk barne, t(14;18)(q32;q21) translokazio kromosomikoa dute. Translokazio horren ondorioz, 14q32 gunean dauden kate astuneko immunoglobulina sustatzaileak *BCL2* genearen promotoretik gertu kokatzen dira, eta, hala, handitu egiten da *BCL2* genearen adierazpenaren erregulazioa. mikroRNA bidez *BCL2* genea isiltzeko prozesua galtzeak ere adierazpena handitzen lagunduko luke. Izan ere, aurretik egindako ikerketek berretsi egin dute mikroRNAak (miR-15 eta miR-16, adibidez) ezabatzea edo haien erregulazioa txikitzea *BCL2* genea gehiegi adieraztearekin erlazionatuta dagoela (283). Beraz, miR-135a-5p, miR-234-5p, miR-139-5p, miR-451a eta miR-497-5p azì-adierazpenak *BCL2* genearen gain-adierazpena susta lezake BZHLHn eta, hala, linforma-zelulen apoptosia gutxitu. miR-234-5p ez beste mikroRNA guztia hauek daude gure populazioko BZHLHn gehien azpi-adierazita dauden 20 mikroRNA nagusien multzoan. Beraz, interesgarria litzateke lotura horiek beste populazio batzuetan aztertzea.

Diagnostikorako biomarkatzaile izateko hautagai den miR-145-5p mikroRNAren azpi-adierazpenak gene batzuen gain-adierazpenean lagun dezake, besteak beste: *STAT1, MMP1, JAG1, VEGFA, EPAS1* eta *FZD7.* Gure emaitzen arabera, *STAT1* genearen erregulazioa txikitu egiten da beste linfometan (284) eta minbizietan (285). *STAT1* geneak apoptosia sustatu ohi du. Horretarako, zelularen gainazaleko heriotza-hartzaileen familiako kideen eta haien lotugaien adierazpena sustatzen du (286). Hala ere, *STAT1* geneak BZHLHn duen funtzioari buruzko iritzi ezberdinak daude, *STAT1* geneak BZHLHn onkogene gisa jarduten duela baitiote beste ikerketa batzuek (287). Hori dela eta, datu esperimental gehiago behar dira *STAT1* geneak BZHLHn duen funtzioa egiaztatzeko. Bestalde, *MMP1* genearen gain-adierazpena bereziki interesgarria da, beste minbizi batzuetan (esofagoko minbizian, adibidez) gain-adierazita dagoela aipatu baita (288). Tumorearen aurrerapenean sortzen den mikroingurunean gertatzen diren aldaketa askoren bitartekari dira matrizeko metaloproteinasak (MMPak). Horien artean dago *MMP1*, zeinak zelulaz kanpoko matrizearen hainbat osagai degradatzen baititu, eta horrek minbizi-zelulei inbaditzen eta metastasia egiten laguntzen die (289). *JAG1* geneari dagokionez, hainbat ikerketa independentetan aipatu da *NOTCH1* genearen eta *Jagged1* lotugaiaren gain-adierazpena gertatzen dela mieloma anizkoitzean gaitzak aurrera egiten duenean (290). *EGFR* ere maila altuan aurkitu ohi da minbizi-zelula mota batzuetan, eta zelula horiek haztea eta zatitzea eragiten du (291). Urdaileko minbizien %30 kasuetan, *EGFR* gain-adierazita dagoela ikusi da, eta biomarkatzaile eraginkorra izan daiteke EGFRren kontrako terapiaren onura klinikoa

aurresateko (292). Hala ere, ez da ezagutzen BZHLHn *EGFR*ren adierazpenaren erregulazioak zer mekanismo duen.

MikroRNAei buruzko jakintza geroz eta handiagoa da eta tumoregenesian eta tumoreen aurrerapenean duten parte-hartze estuari buruz. mRNA-mikroRNA interakzioen analisi honen bidez, erregulazio aldakorra duten mikroRNA molekulek BZHLHren patogenesiari eragiteko duten mekanismo bat proposatu dugu, eta PI3K/AKT/FOXO1/Wnt bideak eta *BCL2*-ren parte-hartzeak duten garrantzia nabarmendu dugu. Litekeena da mikroRNA batzuek elkarlanean jardutea (miR-182-5p, miR-183-3p eta miR-9-5p), eta beste batzuk (miR-146a-5p, adibidez) BZHLHn parte hartzen duten geneen erregulatzaile nagusiak izatea. Metodo honen bidez, gene sorta handietatik biomarkatzaile izan daitezkeen hautagaiak identifikatu ditugu, adierazpen diferentziala duten gene sorta txikietatik egin beharrean. Ikerketa honetan identifikatutako mikroRNA-mRNA adierazpen bateratua itu gisa erabil daiteke BZHLH detektatzeko garaian.

MUGAK ETA INDARGUNEAK

Ikerketa honen garapenean zehar zenbait muga eta indargune aurkitu genituen.

BZHLH pazienteen gongoil linfatikoen FFPE laginetan mikroRNA molekulen adierazpena aztertu dugu ikerketa honetan. Gongoil linfatikoen FFPE biopsiak eskuragarri izateari esker, ikerketa-populazioaren ia 20 urteko tartea aztertzeko aukera izan dugu, hots, 1999 eta 2018. urte bitartean BZHLH diagnostikatu zaien pazienteen laginak. Bost urteko biziraupen orokorra eta aurrerapenik gabeko biziraupena gaixotasunari dagokion amaiera-puntuko emaitza sendo gisa hartu badugu ere, epe luze horretan jarraipena egiteko aukera izatea abantaila dela deritzogu. Gainera, Euskadiko hiru ospitale nagusietako pazienteak sartu dira ikerketan, eta, horri esker, paziente-populazio garrantzitsua lortu dugu. Hala ere, FFPE blokeetatik erauzitako RNAren kalitatea ez da oso ona; 300 base baino laburragoak diren zatitan degradatzen da normalean, (293,294) eta formaldehidoarekin finkatzerakoan kimikoki eraldatzen da metiliol taldeen erruz (295). FFPE blokeetatik erauzitako RNAk aldaketak jasan ohi baditu ere, mRNA molekulekin alderatuz gero, mikroRNAk erresistenteagoak dira RNasaren bidezko degradazioarekiko, tamaina txikiagaitik eta bigarren mailako egituragaitik ziurrenez (296). Are gehiago, aurretik egindako ikerketetan ondorioztatu da gordetako FFPE ehun-laginetatik erauzitako mikroRNA molekulen adierazpenak korrelazio ona zuela izoztutako lagin freskoekin, eta formaldehidoaren bidezko finkapenak ez duela gehiegi aldatzen mikroRNA molekulen egonkortasuna (297). Inolako zalantzarik gabe, RNA molekulak hobeto gordeko lirateke izoztutako lagin freskoetan, baina material mota hori ez dago hain eskuragarri. MikroRNA molekulen analisi hauetarako, FFPE laginak erabilgarriak dira, eta atzera begira egindako ikerketa handiak egiteko aukera ematen du, zeinetan emaitzak pazienteen parametro klinikoekin korrelazioan kokatu baitaitezke.

Hurrengo belaunaldiko sekuentziazio-teknologia erabiliz egin zen mikroRNA profilen analisi osoa. Gaur egun, RT-PCRa edo microarray teknologia erabilita egiten da mikroRNA adierazpenaren neurketa kuantitatiboa. Guk dakigula, minbizian mikroRNA sinadurak identifikatzeko mikroRNA sekuentziazioa erabili duten ikerketa gutxi daude, orain arte batek erabili du hurrengo belaunaldiko sekuentziazioa (NGS) BZHLH ikertzeko asmoz (150). NGS

metodoak gero eta gehiago erabiltzen dira deskribatutako mikroRNA guztiak identifikatzeko aukera ematen dutelako. Horrelakorik ezin daiteke egin beste teknikekin, eta, gure ikerketan ikusi da, gaitzaren prozesuekin erlazionatutako mikroRNA asko ez direla aztertu orain arte, hoiek aztertzea oso garrantzitsua denean.

Bestalde, pazienteak hiru ospitaletan diagnostikatu zituzten, eta jarraipen-ohitura ezberdinak izan zituzten. Hori heterogeneotasun-iturri bada ere, kontuan hartu behar da tratamendu-protokoloak antzekoak izan direla. Azkenik, BZHLHn biomarkatzaile izateko aukera duten mikroRNA asko ez dira aztertu orain arte, eta, beraz, haien funtzioa baliozkotu egin beharko litzateke beste populazio batzuetan. BZHLH laginen kohorte handiagoetan prospekzio-ikerketak egitea beharezkoa da gure aurkikuntzak are gehiago baliozkotzeko eta paziente bakoitzaren mikroRNA profilean oinarritutako aukera terapeutiko berriak aztertzeko.

MikroRNA-mRNA sareak era esperimentalean baliozkotutako datu bilduma handietan oinarrituta daude. Hala ere, mikroRNA sareen analisiak badu muga bat: paziente ezberdinen erregulazioan aldaketak zituzten mikroRNA eta geneetan oinarrituta eraiki zela sarea. Metodo horren beste desabantaila mikroRNA sareek inferentzia kausal okerretara jotzea eragin dezaketela, eta horrek emaitza kontraesankorrak ematen ditu gene-adierazpenean. Egoera ideal batean, paziente beraren mikroRNA eta geneen adierazpenak erabiliko lirateke mikroRNA molekulen erregulazio-sareak aurresateko. Hala ere, muga hori onartu beharra dugu ikerketaren beraren diseinua dela eta. Interakzio horiek laborategian baliozkotzea da falta den erronkarik handiena.

ONDORIOAK

B-zelula handiko linfoma hedatsuan:

1. Lau mikroRNAk (miR-150-5p, miR-146a-5p, miR-155-5p eta miR-21-5p) azaldu zuten aldakortasuna erregulazioan BZHLHn literaturan oinarrituz eta emaitza hauek gure pazienteen kohortean balidatu ziren. Hala ere, beste ikerketa lanetan aztertutako mikroRNA kopuru murriztua eta haien emaitza kontraesangarriak direla eta, ez dute ondorio sendorik ekartzen eta beraz, ezin daiteke gaixotasunaren sailkapenerako, tratamenduaren erantzunerako eta pronostikorako sinadura identifikatu.
2. MikroRNA adierazpenean aldakortasuna argia identifikatu zen gure kohorteko BZHLH laginetan eta kontroletan RNAseq teknika erabiliz. MiR-210-3p eta miR-944 gain-adierazpen esangarriena izan zuten eta miR-215-5p eta miR-150-5p aldera, azpi-adierazpen esangarriena izan zuten.
3. Azpimoten ezberdintasunei dagokiela, miR-129-2-3p gain-adierazpenik handiena erakutsi zuen mikroRNA izan zen ZGB BZHLH azpimotan eta miR-511-5p ez-ZGB BZHLHn. MiR-129-2-3pen gain-adierazpenaren papera ZGB azpimotan izan daiteke linfomen zentro germinalaren eraketan erregulazio aldaketak dituzten transkritoak bere itu izatea.
4. miR-12136, miR-129a-5p, miR-129-1-3p, miR-3150b-3p, miR-127-3p, miR-3681-5p, miR-370-3p, miR-4464, miR-129b-5p, miR-3928-3p eta miR-192-5p osatzen duten mikroRNA sinadura arrisku handiko paziente errefraktarioak identifikatu ditzake. Gainera, etorkizunean mikroRNAn oinarritutako terapiaren itutzat har daitezke.
5. MiR-4444 eta miR-205-5p adierazpena BZHLHren pronostiko ona eta txarraren markatzaileak izan daitezke hurrenez hurren.
6. MikroRNA espezifikoen gain-adierazpena BZHLHren patogenesian parte hartu dezakete PI3K/AKT/FOXO1/Wnt bidezidorren erregulazioaren bidez. Izan ere, bidezidor hauetako geneak identifikatu ditugun desregulatutako MikroRNAen ituak dira.
7. MiR-9-5p, miR-146a-5p eta miR-182-5p master erregulatzaileak izan daitezke BZHLHn adierazpen aldakorra duten gene anitz erregulatzen dituztelako.
8. NGS balio handiko teknika da gutxi ikertutako mikroRNAk aztertzea ahalbidetzen duelako.

Laburbilduz, gure ikerketa lanak mikoRNAk BZHLHren diagnosian, sailkapenean, tratamenduaren erantzunean, pronostikoan eta patogenesian paper garrantzitsua jokatzen dutela azpimarratzen du.

ERREFERENTZIAK

ERREFERENTZIAK

1. Swerdlow SH, Campo E, Pileri SA, Harris NL, Stein H, Siebert R, et al. The 2016 revision of the World Health Organization classification of lymphoid neoplasms. Blood. 2016 May 19;127(20):2375–90.

2. Zhang J, Grubor V, Love CL, Banerjee A, Richards KL, Mieczkowski PA, et al. Genetic heterogeneity of diffuse large B-cell lymphoma. Proc Natl Acad Sci U S A. 2013 Jan 22;110(4):1398–403.

3. Coiffier B, Thieblemont C, Van Den Neste E, Lepeu G, Plantier I, Castaigne S, et al. Long-term outcome of patients in the LNH-98.5 trial, the first randomized study comparing rituximab-CHOP to standard CHOP chemotherapy in DLBCL patients: a study by the Groupe d'Etudes des Lymphomes de l'Adulte. Blood. 2010 Sep 23;116(12):2040–5.

4. Raut LS, Chakrabarti PP. Management of relapsed-refractory diffuse large B cell lymphoma. South Asian J Cancer. 2014 Jan;3(1):66–70.

5. Swerdlow, S.H., Campo, E., Harris, N.L., Jaffe, E.S., Pileri, S.A., Stein, H., Thiele, J., Vardiman, J.W. WHO Classification of Tumours of Haematopoietic and Lymphoid Tissues, Fourth Edition. Vol. 2.

6. Maurizio Martelli, Andrés J.M. Ferreri, Claudio Agostinelli c, Alice Di Rocco, Michael Pfreundschuh, Stefano A. Pileri. Diffuse large B-cell lymphoma. Critical Reviews in Oncology/Hematology. 2013 Aug;87(2):146–71.

7. Anderson JR, Armitage JO, Weisenburger DD. Epidemiology of the non-Hodgkin's lymphomas: distributions of the major subtypes differ by geographic locations. Non-Hodgkin's Lymphoma Classification Project. doi:10.1023/a:1008265532487. Ann Oncol. 1998;9(7):717–20.

8. Gouveia GR, Siqueira SAC, Pereira J. Pathophysiology and molecular aspects of diffuse large B-cell lymphoma. Rev Bras Hematol Hemoter. 2012;34(6):447–51.

9. Klien U, Goasens T, Fischer M, Kanzler H, Braeuninger A, Rajewsky K, et al. Somatic hypermutation in normal and transformed human B cells. Immunological Reviews. 1998 Apr 1;162(1):261–80.

10. A A Alizadeh , M B Eisen, R E Davis, C Ma, I S Lossos, A Rosenwald, J C Boldrick, H Sabet, T Tran, X Yu, J I Powell, L Yang, G E Marti, T Moore, J Hudson Jr, L Lu, D B Lewis, R Tibshirani, G Sherlock, W C Chan, T C Greiner, D D Weisenburger, J O Armitage, R Warnke, R Levy, W Wilson, M R Grever, J C Byrd, D Botstein, P O Brown, L M Staudt. Distinct Types of Diffuse Large B-cell Lymphoma Identified by Gene Expression Profiling. Nature. 2000;403(6769):503-511.

11. Li S, Young KH, Medeiros LJ. Diffuse large B-cell lymphoma. Pathology. 2018 Jan;50(1):74–87.

12. González-Barca E, Coronado M, Martín A, Montalbán C, Montes-Moreno S, Panizo C,

et al. Spanish Lymphoma Group (GELTAMO) guidelines for the diagnosis, staging, treatment, and follow-up of diffuse large B-cell lymphoma. Oncotarget. 2018 Aug 17;9(64):32383–99.

13. Montes-Moreno S, Mollejo Villanueva M, Fraga M, García JF, Villar JL, Martínez A, Rodríguez Pinilla SM, Battle A, Pulla MP, Rozman M, García Sanz R. Recomendaciones para el estudio histopatológico, inmunohistoquímico, citogenético y molecular e informe diagnóstico de los procesos neoplásicos linfoides. Consenso SEAP-SEHH-GOTEL. In: Libro Blanco de la Anatomía Patológica en España. 2017. p. 63–174.

14. Armitage JO, Weisenburger DD. New approach to classifying non-Hodgkin's lymphomas: clinical features of the major histologic subtypes. Non-Hodgkin's Lymphoma Classification Project. JCO. 1998 Aug 1;16(8):2780–95.

15. The Non-Hodgkin's Lymphoma Classification Project. A Clinical Evaluation of the International Lymphoma Study Group Classification of Non-Hodgkin's Lymphoma. Blood. 1997 Jun 1;89(11):3909–18.

16. Møller MB, Pedersen NT, Christensen BE. Diffuse large B-cell lymphoma: clinical implications of extranodal versus nodal presentation – a population-based study of 1575 cases. British Journal of Haematology. 2004 Jan 1;124(2):151–9.

17. Friedberg JW, Fisher RI. Diffuse large B-cell lymphoma. Hematol Oncol Clin North Am. 2008 Oct;22(5):941–ix.

18. Singh, Rajeshwar; Dubey, A; Rathore, Anvesh; Kapoor, Rajan; Sharma, Durgesh; Singh, Nilabh; Maggo, Sachin; Diffuse large B-Cell lymphoma-review. Journal of Medical Sciences. 2018 Jul 1;38(4):137–43.

19. Young RM, Shaffer AL 3rd, Phelan JD, Staudt LM. B-cell receptor signaling in diffuse large B-cell lymphoma. Semin Hematol. 2015 Apr;52(2):77–85.

20. Colomo L, López-Guillermo A, Perales M, Rives S, Martínez A, Bosch F, et al. Clinical impact of the differentiation profile assessed by immunophenotyping in patients with diffuse large B-cell lymphoma. Blood. 2003 Jan 1;101(1):78–84.

21. Hans CP, Weisenburger DD, Greiner TC, Gascoyne RD, Delabie J, Ott G, et al. Confirmation of the molecular classification of diffuse large B-cell lymphoma by immunohistochemistry using a tissue microarray. Blood. 2004 Jan 1;103(1):275–82.

22. Brown PJ, Ashe SL, Leich E, Burek C, Barrans S, Fenton JA, et al. Potentially oncogenic B-cell activation–induced smaller isoforms of FOXP1 are highly expressed in the activated B cell–like subtype of DLBCL. Blood. 2008 Mar 1;111(5):2816–24.

23. Muris J, Meijer C, Vos W, van Krieken J, Jiwa N, Ossenkoppele G, et al. Immunohistochemical profiling based on Bcl-2, CD10 and MUM1 expression improves risk stratification in patients with primary nodal diffuse large B cell lymphoma. The Journal of Pathology. 2006 Apr 1;208(5):714–23.

24. Meyer PN, Fu K, Greiner TC, Smith LM, Delabie J, Gascoyne RD, et al. Immunohistochemical methods for predicting cell of origin and survival in patients with diffuse large B-cell lymphoma treated with rituximab. J Clin Oncol. 2011 Jan 10;29(2):200–7.

25. Choi WWL, Weisenburger DD, Greiner TC, Piris MA, Banham AH, Delabie J, et al. A New Immunostain Algorithm Classifies Diffuse Large B-Cell Lymphoma into Molecular Subtypes with High Accuracy. Clin Cancer Res. 2009 Sep 1;15(17):5494.

26. Natkunam Y, Zhao S, Mason DY, Chen J, Taidi B, Jones M, et al. The oncoprotein LMO2 is expressed in normal germinal-center B cells and in human B-cell lymphomas. Blood. 2007 Feb 15;109(4):1636–42.

27. Scott DW, Wright GW, Williams PM, Lih C-J, Walsh W, Jaffe ES, et al. Determining cell-of-origin subtypes of diffuse large B-cell lymphoma using gene expression in formalin-fixed paraffin-embedded tissue. Blood. 2014 Feb 20;123(8):1214–7.

28. Scott DW, Mottok A, Ennishi D, Wright GW, Farinha P, Ben-Neriah S, et al. Prognostic Significance of Diffuse Large B-Cell Lymphoma Cell of Origin Determined by Digital Gene Expression in Formalin-Fixed Paraffin-Embedded Tissue Biopsies. J Clin Oncol. 2015 Sep 10;33(26):2848–56.

29. Carbone PP, Kaplan HS, Musshoff K, Smithers DW, Tubiana M. Report of the Committee on Hodgkin's Disease Staging Classification. Cancer Res. 1971 Nov 1;31(11):1860.

30. Rosenberg SA. Validity of the Ann Arbor staging classification for the non-Hodgkin's lymphomas. Cancer Treat Rep. 1977;(6):1023–7.

31. A Predictive Model for Aggressive Non-Hodgkin's Lymphoma. N Engl J Med. 1993 Sep 30;329(14):987–94.

32. Coiffier B, Lepage E, Brière J, Herbrecht R, Tilly H, Bouabdallah R, et al. CHOP Chemotherapy plus Rituximab Compared with CHOP Alone in Elderly Patients with Diffuse Large-B-Cell Lymphoma. N Engl J Med. 2002 Jan 24;346(4):235–42.

33. Sehn LH, Berry B, Chhanabhai M, Fitzgerald C, Gill K, Hoskins P, et al. The revised International Prognostic Index (R-IPI) is a better predictor of outcome than the standard IPI for patients with diffuse large B-cell lymphoma treated with R-CHOP. Blood. 2006 Nov 14;109(5):1857–61.

34. Zhou Z, Sehn LH, Rademaker AW, Gordon LI, Lacasce AS, Crosby-Thompson A, et al. An enhanced International Prognostic Index (NCCN-IPI) for patients with diffuse large B-cell lymphoma treated in the rituximab era. Blood. 2014 Feb 6;123(6):837–42.

35. Montalbán C, Díaz-López A, Dlouhy I, Rovira J, Lopez-Guillermo A, Alonso S, et al. Validation of the NCCN-IPI for diffuse large B-cell lymphoma (DLBCL): the addition of β2-microglobulin yields a more accurate GELTAMO-IPI. British Journal of Haematology. 2017 Mar 1;176(6):918–28.

36. Lamy T, Damaj G, Soubeyran P, Gyan E, Cartron G, Bouabdallah K, et al. R-CHOP 14 with or without radiotherapy in nonbulky limited-stage diffuse large B-cell lymphoma. Blood. 2018 Jan 11;131(2):174–81.

37. German High-Grade Non-Hodgkin's Lymphoma Study Group Rituximab and Combination Chemotherapy With or Without Radiation Therapy in Treating Patients With B-Cell Non-Hodgkin's Lymphoma. 2006 Jan 18; Available from: https://clinicaltrials.gov/ct2/show/NCT00278408.

38. Offner F, Samoilova O, Osmanov E, Eom H-S, Topp MS, Raposo J, et al. Frontline rituximab, cyclophosphamide, doxorubicin, and prednisone with bortezomib (VR-CAP) or vincristine (R-CHOP) for non-GCB DLBCL. Blood. 2015 Oct 15;126(16):1893–901.

39. Vitolo U, Trněný M, Belada D, Burke JM, Carella AM, Chua N, et al. Obinutuzumab or Rituximab Plus Cyclophosphamide, Doxorubicin, Vincristine, and Prednisone in Previously Untreated Diffuse Large B-Cell Lymphoma. JCO. 2017 Aug 10;35(31):3529–37.

40. Held G, Murawski N, Ziepert M, Fleckenstein J, Pöschel V, Zwick C, et al. Role of Radiotherapy to Bulky Disease in Elderly Patients With Aggressive B-Cell Lymphoma. JCO. 2014 Feb 3;32(11):1112–8.

41. Pfreundschuh M, Trümper L, Österborg A, Pettengell R, Trneny M, Imrie K, et al. CHOP-like chemotherapy plus rituximab versus CHOP-like chemotherapy alone in young patients with good-prognosis diffuse large-B-cell lymphoma: a randomised controlled trial by the MabThera International Trial (MInT) Group. The Lancet Oncology. 2006 May 1;7(5):379–91.

42. Pfreundschuh M, Kuhnt E, Trümper L, Österborg A, Trneny M, Shepherd L, et al. CHOP-like chemotherapy with or without rituximab in young patients with good-prognosis diffuse large-B-cell lymphoma: 6-year results of an open-label randomised study of the MabThera International Trial (MInT) Group. The Lancet Oncology. 2011 Oct 1;12(11):1013–22.

43. Récher C, Coiffier B, Haioun C, Molina TJ, Fermé C, Casasnovas O, et al. Intensified chemotherapy with ACVBP plus rituximab versus standard CHOP plus rituximab for the treatment of diffuse large B-cell lymphoma (LNH03-2B): an open-label randomised phase 3 trial. The Lancet. 2011 Nov 26;378(9806):1858–67.

44. Molina TJ, Canioni D, Copie-Bergman C, Recher C, Brière J, Haioun C, et al. Young Patients With Non–Germinal Center B-Cell–Like Diffuse Large B-Cell Lymphoma Benefit From Intensified Chemotherapy With ACVBP Plus Rituximab Compared With CHOP Plus Rituximab: Analysis of Data From the Groupe d'Etudes des Lymphomes de l'Adulte/Lymphoma Study Association Phase III Trial LNH 03-2B. JCO. 2014 Nov 10;32(35):3996–4003.

45. Wilson WH, sin-Ho J, Pitcher BN, Hsi ED, Friedberg J, Cheson B, et al. Phase III Randomized Study of R-CHOP Versus DA-EPOCH-R and Molecular Analysis of Untreated Diffuse Large B-Cell Lymphoma: CALGB/Alliance 50303. Blood. 2016 Dec 2;128(22):469–469.

46. Purroy N, Bergua J, Gallur L, Prieto J, Lopez LA, Sancho JM, et al. Long-term follow-up of dose-adjusted EPOCH plus rituximab (DA-EPOCH-R) in untreated patients with poor prognosis large B-cell lymphoma. A phase II study conducted by the Spanish PETHEMA Group. British Journal of Haematology. 2015 Apr 1;169(2):188–98.

47. Stiff PJ, Unger JM, Cook JR, Constine LS, Couban S, Stewart DA, et al. Autologous transplantation as consolidation for aggressive non-Hodgkin's lymphoma. N Engl J Med. 2013 Oct 31;369(18):1681–90.

48. Peyrade F, Jardin F, Thieblemont C, Thyss A, Emile J-F, Castaigne S, et al. Attenuated immunochemotherapy regimen (R-miniCHOP) in elderly patients older than 80 years with diffuse large B-cell lymphoma: a multicentre, single-arm, phase 2 trial. The Lancet Oncology. 2011 May 1;12(5):460–8.

49. Fields PA, Townsend W, Webb A, Counsell N, Pocock C, Smith P, et al. De Novo Treatment of Diffuse Large B-Cell Lymphoma With Rituximab, Cyclophosphamide, Vincristine, Gemcitabine, and Prednisolone in Patients With Cardiac Comorbidity: A United Kingdom National Cancer Research Institute Trial. JCO. 2013 Nov 12;32(4):282–7.

50. Luminari S, Montanini A, Caballero D, et al. Nonpegylated liposomal doxorubicin (MyocetTM) combination (R-COMP) chemotherapy in elderly patients with diffuse large B-cell lymphoma (DLBCL): results from the phase II EUR018 trial. Ann Oncol. 2010;21(7):1492–9.

51. Oki Y, Ewer MS, Lenihan DJ, Fisch MJ, Hagemeister FB, Fanale M, et al. Pegylated liposomal doxorubicin replacing conventional doxorubicin in standard R-CHOP chemotherapy for elderly patients with diffuse large B-cell lymphoma: an open label, single arm, phase II trial. Clin Lymphoma Myeloma Leuk. 2015 Mar;15(3):152–8.

52. Philip T, Guglielmi C, Hagenbeek A, Somers R, Van Der Lelie H, Bron D, et al. Autologous Bone Marrow Transplantation as Compared with Salvage Chemotherapy in Relapses of Chemotherapy-Sensitive Non-Hodgkin's Lymphoma. N Engl J Med. 1995 Dec 7;333(23):1540–5.

53. Gisselbrecht C, Glass B, Mounier N, Singh Gill D, Linch DC, Trneny M, et al. Salvage regimens with autologous transplantation for relapsed large B-cell lymphoma in the rituximab era. J Clin Oncol. 2010 Sep 20;28(27):4184–90.

54. Crump M, Kuruvilla J, Couban S, MacDonald DA, Kukreti V, Kouroukis CT, et al. Randomized Comparison of Gemcitabine, Dexamethasone, and Cisplatin Versus Dexamethasone, Cytarabine, and Cisplatin Chemotherapy Before Autologous Stem-Cell Transplantation for Relapsed and Refractory Aggressive Lymphomas: NCIC-CTG LY.12. JCO. 2014 Sep 29;32(31):3490–6.

55. Martín A, Conde E, Arnan M, Canales MA, Deben G, Sancho JM, et al. R-ESHAP as salvage therapy for patients with relapsed or refractory diffuse large B-cell lymphoma: the influence of prior exposure to rituximab on outcome. A GEL/TAMO study. Haematologica. 2008 Dec 1;93(12):1829.

56. Derenzini E, Musuraca G, Fanti S, Stefoni V, Tani M, Alinari L, et al. Pretransplantation positron emission tomography scan is the main predictor of autologous stem cell transplantation outcome in aggressive B-cell non-Hodgkin lymphoma. Cancer. 2008 Nov 1;113(9):2496–503.

57. Sauter CS, Matasar MJ, Meikle J, Schoder H, Ulaner GA, Migliacci JC, et al. Prognostic value of FDG-PET prior to autologous stem cell transplantation for relapsed and refractory diffuse large B-cell lymphoma. Blood. 2015 Apr 16;125(16):2579–81.

58. Escalón MP, Champlin RE, Saliba RM, Acholonu SA, Hosing C, Fayad L, et al. Nonmyeloablative Allogeneic Hematopoietic Transplantation: A Promising Salvage Therapy for Patients With Non-Hodgkin's Lymphoma Whose Disease Has Failed a Prior Autologous Transplantation. JCO. 2004 Jun 15;22(12):2419–23.

59. van Kampen RJW, Canals C, Schouten HC, Nagler A, Thomson KJ, Vernant J-P, et al. Allogeneic Stem-Cell Transplantation As Salvage Therapy for Patients With Diffuse Large B-Cell Non-Hodgkin's Lymphoma Relapsing After an Autologous Stem-Cell Transplantation: An Analysis of the European Group for Blood and Marrow Transplantation Registry. JCO. 2011 Feb

14;29(10):1342–8.

60. Mounier N, El Gnaoui T, Tilly H, Canioni D, Sebban C, Casasnovas R-O, et al. Rituximab plus gemcitabine and oxaliplatin in patients with refractory/relapsed diffuse large B-cell lymphoma who are not candidates for high-dose therapy. A phase II Lymphoma Study Association trial. Haematologica. 2013 Nov;98(11):1726–31.

61. Pettengell R, Coiffier B, Narayanan G, de Mendoza FH, Digumarti R, Gomez H, et al. Pixantrone dimaleate versus other chemotherapeutic agents as a single-agent salvage treatment in patients with relapsed or refractory aggressive non-Hodgkin lymphoma: a phase 3, multicentre, open-label, randomised trial. The Lancet Oncology. 2012 Jul 1;13(7):696–706.

62. Witzig TE, Vose JM, Zinzani PL, Reeder CB, Buckstein R, Polikoff JA, et al. An international phase II trial of single-agent lenalidomide for relapsed or refractory aggressive B-cell non-Hodgkin's lymphoma. Annals of Oncology. 2011 Jul 1;22(7):1622–7.

63. Vose JM, Habermann TM, Czuczman MS, Zinzani PL, Reeder CB, Tuscano JM, et al. Single-agent lenalidomide is active in patients with relapsed or refractory aggressive non-Hodgkin lymphoma who received prior stem cell transplantation. British Journal of Haematology. 2013 Sep 1;162(5):639–47.

64. Coleman M, Martin P, Ruan J, Furman R, Niesvizky R, Elstrom R, et al. Prednisone, etoposide, procarbazine, and cyclophosphamide (PEP-C) oral combination chemotherapy regimen for recurring/refractory lymphoma: Low-dose metronomic, multidrug therapy. Cancer. 2008 May 15;112(10):2228–32.

65. Melchardt T, Troppan K, Weiss L, Hufnagl C, Neureiter D, Tränkenschuh W, et al. A modified scoring of the NCCN-IPI is more accurate in the elderly and is improved by albumin and β2-microglobulin. British Journal of Haematology. 2015 Jan 1;168(2):239–45.

66. Kanemasa Y, Shimoyama T, Sasaki Y, Tamura M, Sawada T, Omuro Y, et al. Beta-2 microglobulin as a significant prognostic factor and a new risk model for patients with diffuse large B-cell lymphoma. Hematological Oncology. 2017 Dec 1;35(4):440–6.

67. Chen Y, Neelapu S, Feng L, Bi W, Yang T-H, Wang M, et al. Prognostic significance of baseline peripheral absolute neutrophil, monocyte and serum β2-microglobulin level in patients with diffuse large b-cell lymphoma: a new prognostic model. British Journal of Haematology. 2016 Oct 1;175(2):290–9.

68. Salles G, de Jong D, Xie W, Rosenwald A, Chhanabhai M, Gaulard P, et al. Prognostic significance of immunohistochemical biomarkers in diffuse large B-cell lymphoma: a study from the Lunenburg Lymphoma Biomarker Consortium. Blood. 2011 Jun 30;117(26):7070–8.

69. Rosenwald A, Wright G, Chan WC, Connors JM, Campo E, Fisher RI, et al. The Use of Molecular Profiling to Predict Survival after Chemotherapy for Diffuse Large-B-Cell Lymphoma. N Engl J Med. 2002 Jun 20;346(25):1937–47.

70. Lenz G, Wright G, Dave SS, Xiao W, Powell J, Zhao H, et al. Stromal Gene Signatures in Large-B-Cell Lymphomas. N Engl J Med. 2008 Nov 27;359(22):2313–23.

71. Lossos IS, Czerwinski DK, Alizadeh AA, Wechser MA, Tibshirani R, Botstein D, et al. Prediction of Survival in Diffuse Large-B-Cell Lymphoma Based on the Expression of Six Genes.

N Engl J Med. 2004 Apr 29;350(18):1828–37.

72. Alizadeh AA, Gentles AJ, Alencar AJ, Liu CL, Kohrt HE, Houot R, et al. Prediction of survival in diffuse large B-cell lymphoma based on the expression of 2 genes reflecting tumor and microenvironment. Blood. 2011 Aug 4;118(5):1350–8.

73. Hong F, Kahl BS, Gray R. Incremental value in outcome prediction with gene expression–based signatures in diffuse large B-cell lymphoma. Blood. 2013 Jan 3;121(1):156–8.

74. Wright G, Tan B, Rosenwald A, Hurt EH, Wiestner A, Staudt LM. A gene expression-based method to diagnose clinically distinct subgroups of diffuse large B cell lymphoma. Proc Natl Acad Sci U S A. 2003 Aug 19;100(17):9991–6.

75. Green TM, Young KH, Visco C, Xu-Monette ZY, Orazi A, Go RS, Nielsen O, Gadeberg OV, Mourits-Andersen T, Frederiksen M, Pedersen LM, Møller MB. Immunohistochemical double-hit score is a strong predictor of outcome in patients with diffuse large B-cell lymphoma treated with rituximab plus cyclophosphamide, doxorubicin, vincristine, and prednisone. J Clin Oncol. 2012 Oct 1;30(28):3460–7.

76. Rosenthal A, Younes A. High grade B-cell lymphoma with rearrangements of MYC and BCL2 and/or BCL6: Double hit and triple hit lymphomas and double expressing lymphoma. Blood Rev. 2017 Mar;31(2):37–42.

77. Esteller M. Non-coding RNAs in human disease. Nature Reviews Genetics. 2011 Dec 1;12(12):861–74.

78. Dunham I, Kundaje A, Aldred SF, Collins PJ, Davis CA, Doyle F, et al. An integrated encyclopedia of DNA elements in the human genome. Nature. 2012 Sep 1;489(7414):57–74.

79. Sana J, Faltejskova P, Svoboda M, Slaby O. Novel classes of non-coding RNAs and cancer. J Transl Med. 2012 May 21;10:103–103.

80. Krol J, Loedige I, Filipowicz W. The widespread regulation of microRNA biogenesis, function and decay. Nature Reviews Genetics. 2010 Sep 1;11(9):597–610.

81. Han J, Lee Y, Yeom K-H, Kim Y-K, Jin H, Kim VN. The Drosha-DGCR8 complex in primary microRNA processing. Genes Dev. 2004 Dec 15;18(24):3016–27.

82. Bohnsack MT, Czaplinski K, Gorlich D. Exportin 5 is a RanGTP-dependent dsRNA-binding protein that mediates nuclear export of pre-miRNAs. RNA (New York, NY). 2004 Feb;10(2):185–91.

83. Kim VN. MicroRNA precursors in motion: exportin-5 mediates their nuclear export. Trends in cell biology. 2004 Apr;14(4):156–9.

84. Hutvágner G, McLachlan J, Pasquinelli AE, Bálint E, Tuschl T, Zamore PD. A cellular function for the RNA-interference enzyme Dicer in the maturation of the let-7 small temporal RNA. Science (New York, NY). 2001 Aug 3;293(5531):834–8.

85. Merritt WM, Bar-Eli M, Sood AK. The dicey role of Dicer: implications for RNAi therapy. Cancer research. 2010 Apr 1;70(7):2571–4.

86. Song J-J, Liu J, Tolia NH, Schneiderman J, Smith SK, Martienssen RA, et al. The crystal structure of the Argonaute2 PAZ domain reveals an RNA binding motif in RNAi effector complexes. Nature structural biology. 2003 Dec 16;10(12):1026–32.

87. Inada T, Makino S. Novel roles of the multi-functional CCR4-NOT complex in post-transcriptional regulation. Frontiers in genetics. 2014 May 20;5:135.

88. Li S, Wang L, Fu B, Berman MA, Diallo A, Dorf ME. TRIM65 regulates microRNA activity by ubiquitination of TNRC6. Proceedings of the National Academy of Sciences. 2014 May 13;111(19):6970–5.

89. Ryan BM, Robles AI, Harris CC. Genetic variation in microRNA networks: the implications for cancer research. Nat Rev Cancer. 2010 Jun;10(6):389–402.

90. Gregory RI, Chendrimada TP, Shiekhattar R. MicroRNA biogenesis: isolation and characterization of the microprocessor complex. Methods in molecular biology (Clifton, NJ). 2006;342:33–47.

91. Nakajima M, Yokoi T. MicroRNAs from biology to future pharmacotherapy: Regulation of cytochrome P450s and nuclear receptors. Pharmacology & Therapeutics. 2011 Sep 1;131(3):330–7.

92. Santiago K, Chen Wongworawat Y, Khan S. Differential MicroRNA-Signatures in Thyroid Cancer Subtypes. Kanat O, editor. Journal of Oncology. 2020 Jun 3;2020:2052396.

93. Lu J, Getz G, Miska EA, Alvarez-Saavedra E, Lamb J, Peck D, et al. MicroRNA expression profiles classify human cancers. Nature. 2005 Jun 1;435(7043):834–8.

94. Volinia S, Calin GA, Liu C-G, Ambs S, Cimmino A, Petrocca F, et al. A microRNA expression signature of human solid tumors defines cancer gene targets. Proc Natl Acad Sci U S A. 2006 Feb 14;103(7):2257–61.

95. Calin GA, Dumitru CD, Shimizu M, Bichi R, Zupo S, Noch E, et al. Frequent deletions and down-regulation of micro- RNA genes miR15 and miR16 at 13q14 in chronic lymphocytic leukemia. Proc Natl Acad Sci U S A. 2002 Nov 26;99(24):15524–9.

96. Liu C, Kelnar K, Liu B, Chen X, Calhoun-Davis T, Li H, et al. The microRNA miR-34a inhibits prostate cancer stem cells and metastasis by directly repressing CD44. Nat Med. 2011 Feb;17(2):211–5.

97. Rokavec M, Öner MG, Li H, Jackstadt R, Jiang L, Lodygin D, et al. IL-6R/STAT3/miR-34a feedback loop promotes EMT-mediated colorectal cancer invasion and metastasis. J Clin Invest. 2014 Apr;124(4):1853–67.

98. Okada N, Lin C-P, Ribeiro MC, Biton A, Lai G, He X, et al. A positive feedback between p53 and miR-34 miRNAs mediates tumor suppression. Genes Dev. 2014 Mar 1;28(5):438–50.

99. Cortez MA, Ivan C, Valdecanas D, Wang X, Peltier HJ, Ye Y, et al. PDL1 Regulation by p53 via miR-34. J Natl Cancer Inst. 2015 Nov 17;108(1):djv303.

100. Roush S, Slack FJ. The let-7 family of microRNAs. Trends in Cell Biology. 2008 Oct 1;18(10):505–16.

101. Tokumaru S, Suzuki M, Yamada H, Nagino M, Takahashi T. let-7 regulates Dicer expression and constitutes a negative feedback loop. Carcinogenesis. 2008 Aug 11;29(11):2073–7.

102. Johnson CD, Esquela-Kerscher A, Stefani G, et al. The let-7 microRNA represses cell proliferation pathways in human cells. Cancer Res. 2007;67(16):7713–22.

103. Sung S-Y, Liao C-H, Wu H-P, Hsiao W-C, Wu I-H, Jinpu, et al. Loss of let-7 microRNA upregulates IL-6 in bone marrow-derived mesenchymal stem cells triggering a reactive stromal response to prostate cancer. PLoS One. 2013 Aug 19;8(8):e71637–e71637.

104. Johnson SM, Grosshans H, Shingara J, Byrom M, Jarvis R, Cheng A, et al. RAS Is Regulated by the let-7 MicroRNA Family. Cell. 2005 Mar 11;120(5):635–47.

105. Yang D, Sun Y, Hu L, Zheng H, Ji P, Pecot CV, et al. Integrated analyses identify a master microRNA regulatory network for the mesenchymal subtype in serous ovarian cancer. Cancer Cell. 2013 Feb 11;23(2):186–99.

106. Keklikoglou I, Koerner C, Schmidt C, Zhang JD, Heckmann D, Shavinskaya A, et al. MicroRNA-520/373 family functions as a tumor suppressor in estrogen receptor negative breast cancer by targeting NF-κB and TGF-β signaling pathways. Oncogene. 2012 Sep 1;31(37):4150–63.

107. Nishimura M, Jung E-J, Shah MY, Lu C, Spizzo R, Shimizu M, et al. Therapeutic synergy between microRNA and siRNA in ovarian cancer treatment. Cancer Discov. 2013 Nov;3(11):1302–15.

108. De Craene B, Berx G. Regulatory networks defining EMT during cancer initiation and progression. Nat Rev Cancer. 2013;13(2):97–110.

109. Zhao M, Ang L, Huang J, Wang J. MicroRNAs regulate the epithelial–mesenchymal transition and influence breast cancer invasion and metastasis. Tumour Biol. 2017 Feb 1;39(2):1010428317691682.

110. Asangani IA, Rasheed SAK, Nikolova DA, Leupold JH, Colburn NH, Post S, et al. MicroRNA-21 (miR-21) post-transcriptionally downregulates tumor suppressor Pdcd4 and stimulates invasion, intravasation and metastasis in colorectal cancer. Oncogene. 2008 Apr 1;27(15):2128–36.

111. Frankel LB, Christoffersen NR, Jacobsen A, Lindow M, Krogh A, Lund AH. Programmed cell death 4 (PDCD4) is an important functional target of the microRNA miR-21 in breast cancer cells. J Biol Chem. 2008;283(2):1026–33.

112. Yan L-X, Huang X-F, Shao Q, Huang M-Y, Deng L, Wu Q-L, et al. MicroRNA miR-21 overexpression in human breast cancer is associated with advanced clinical stage, lymph node metastasis and patient poor prognosis. RNA. 2008 Nov;14(11):2348–60.

113. Krichevsky AM, Gabriely G. miR-21: a small multi-faceted RNA. J Cell Mol Med. 2009 Jan;13(1):39–53.

114. Gironella M, Seux M, Xie M-J, Cano C, Tomasini R, Gommeaux J, et al. Tumor protein 53-induced nuclear protein 1 expression is repressed by miR-155, and its restoration inhibits

pancreatic tumor development. Proc Natl Acad Sci U S A. 2007 Oct 9;104(41):16170–5.

115. O'Connell RM, Chaudhuri AA, Rao DS, Baltimore D. Inositol phosphatase SHIP1 is a primary target of miR-155. Proc Natl Acad Sci USA. 2009 Apr 28;106(17):7113.

116. Faraoni I, Antonetti FR, Cardone J, Bonmassar E. miR-155 gene: A typical multifunctional microRNA. Biochimica et Biophysica Acta (BBA) - Molecular Basis of Disease. 2009 Jun 1;1792(6):497–505.

117. Tili E, Croce CM, Michaille J-J. miR-155: On the Crosstalk Between Inflammation and Cancer. International Reviews of Immunology. 2009 Jan 1;28(5):264–84.

118. Puisségur M-P, Mazure NM, Bertero T, Pradelli L, Grosso S, Robbe-Sermesant K, et al. miR-210 is overexpressed in late stages of lung cancer and mediates mitochondrial alterations associated with modulation of HIF-1 activity. Cell Death Differ. 2011 Mar;18(3):465–78.

119. Mogilyansky E, Rigoutsos I. The miR-17/92 cluster: a comprehensive update on its genomics, genetics, functions and increasingly important and numerous roles in health and disease. Cell Death Differ. 2013 Dec;20(12):1603–14.

